goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-01-21
EGUBAKOITZA
449. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Atez atekoa martxoan hasiko da

Antzuolan hasiko dira zaborra hala batzen | 4

Atzo aurkeztu zuten kanpaina. | M.B.

Otsail amaieran bukatuko dituzte Irizar etxea berritzeko lanak | 16

Joskintza ikastaroa, Emausen tailerrean lan egiteko | 2

Bailarako ekoizleek asteon aurkeztu dituzte txakolina eta sagardoa | 5

Arrasate institutuko batxilergoko ikasleak Santa Barbara parkean egin duten artelana erakusten.

Natura, artelan bihurtuta

'Auzolana herrira' ekimenaren lehen saioa egin zuten atzo, eguena, Arrasaten. 16 eta 18 urte arteko batxilergoko ikasleei zuzenduta dago, eta helburua da gazteok naturako elementuez baliatuz artelanak egitea. Ekimenak Debagoiena osoa bisitatuko du. | 13

JOKIN BEREZIARTUA

Bailarako kirolari onenek saria jasoko dute gaur Aramaion, Debagoieneko Kirol Sarietan | 28

Aitor Zabaleta.

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | GUTUNAK 7 | ELKARRIZKETA 8 | HERRITARRAK 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | GAZTEAK 34 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Handitzen doa Emaus zentroa, Ekocenterra amesten duela

- Tailerrean lan egiteko eta lan-poltsa osatzeko asmoz, joskintza ikastaroa emango dute
- Arrasaten Ekocenterra egiteko aukera ikusten dute Udalak eta Emausek, askotariko produktuekin

Ione Barquero eta Iune Polo, Emauseko gurdiarekin eta amantalarekin. | LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Arrasateko Udalak eta Emaus Fundazioak beste pauso bat emango dute euren elkarlanean, eta beste hamar edo hamabi laguni ikastaroa emango diete joskintza industrialean. Batez ere, gaur egun Arrasaten daukaten tailerrean lan egiteko behar dituzten trebeziak erakutsiko dizkiete, eta, Arrasateko Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomiko teknikari Marga Garmendiaren esanetan, "ikastaroa egiten duten batzuendako lan aukerak izango dira tailerrean". Tailer hori Emaus Fundazioaren gizarteratze enpresaren parte da, eta Emaus Fundazioak eramaten du, Arrasateko Udalaren laguntzarekin. Emausen markako, Sin Desperdicioko produktuak egiten dituzte han, publizitate-xingolak berrerabilita.

Ikastaroan izena emateko epea astelehenean, hilak 24 bukatuko da. Arrasateko BAZen edo Enplegu sailean (943 25 20 70 telefonoan) eman behar da izena. Betekizun bakarra da langabea izatea eta Enplegu Zerbitzu Publikoan izena emanda egotea. Horrez gain, helburuetako bat bazterketa arriskuan daudenen gizarteratzea denez, hautagaien egoera sozioekonomikoa eta langabe zenbat denbora egon diren ere kontuan hartuko dira. Lehentasuna izango dute Arrasateko hautagaiek. Azkenik, kontuan hartuko da joskintzarekin harremana izatea. Eskolak urtarrilaren 31tik apirilaren 8ra izango dira (250 ordu) eta 10-12 laguneko taldea osatuko da. Marga Garmendiak argitzen duenez, "ikastaroa ez da bakarrik gizarteratze prozesuan daudenendako. Hamabi partaide badira, proportzioa izan daiteke gizarteratze prozesuan dauden zortzi lagun eta normalizatuta dauden lau".

Formazio eta enplegu aukera horrekin, Arrasateko Udalak eta Emaus Fundazioak orain Debagoienean daukaten gizarteratze eta merkaturatze eskaintza zabaldu egingo dute. Marga Garmendiak gogorarazten duen moduan, "bi helburu betetzen dira: batetik, ingurumenari dagokionez, berrerabilitako materiala erabiltzen delako; eta, bestetik, bazterketa arriskuan daudenen gizarteratzea lortzen da". Hirugarren helburu bat ere betetzen dihardute, pixkana-pixkana: ehungintza sektorea ere Arrasaten eta Debagoienean dagoela ziurtatzea.

Urte bete pasa herrian

Amaia Albes diseinatzaile arrasatearrak emango du ikastaroa; eta, berak esan digunez, "tailerreko lanak egiteari oso zuzenduta" egongo da. Hala, ez du erakutsiko konponketak egiten, adibidez. Ione Barquero Arrasateko tailerreko arduradunak azalpenak ematen dizkigu: "Xingolen materiala oso gogorra da, eta hori lantzen ikasiko dute. Bestalde, batzuetan unean uneko eskaerak jasotzen ditugu, eta bat-batean zerbitzatu beharreko eskaerak dira. Bada, horiei erantzuteko ere jendea behar izaten da". Hortaz, zuzenean tailerrera lanera joango ez liratekeen pertsonek lan-poltsa bat osatuko lukete, unean uneko

AGRIPINA SANCHEZ | LANGILEA

"Hutsetik ikasi nuen Sin Desperdicio markako produktuak josten"

Agripina Sanchezek Emauseko gizarteratze enpresan dihardu lanean. "Denetarik pixka bat" egiten duela diosku, eta pozik dabilela bere lanpostuan.

Noiztik diharduzu Emausekin?

2009ko ikastaroa eman zutenetik. Zortzi hileko formazioa jaso nuen eta tailerrean lanean hasi nintzen horren ostean.

Zelakoa da zure lana orain?

Denetarik egiten dut: tailerrean ibiltzen naiz, Sin Desperdicio markako produktuak egiten, baina dendan egotea ere egokitzen zait. Beharren arabera egiten dut gauza bat edo bestea.

Eta zer moduz zabiltza?

Ondo; gustatzen zait nire lana.

Ikastaroa egin aurretik bazenekien josten?

Ez; hutsetik hasi nintzen. Orain, denetarik josten dut; izkinak bateratzea, kremailerak ipintzea... horiek gauza zailenak dira.

Eta zer gustatzen zaizu gehien zure lanean?

Gauza desberdinak egitea, produktu bakoitzaren diseinua, kolorea... desberdinak direlako.

Sanchez, dendan. | LEIRE KORTABARRIA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA (+)

MATRIKULA EPEA ZABALIK

Finantza Ikastaro Aurreratua • Enpresa Kudeaketa Ikastaro Aurreratua
Marketing Ikastaro Aurreratua • Enpresa Kooperatiboen Kudeaketan Ikastaro Aurreratua

Hasiera data: 2011ko otsaila

Langabezian bazaude, langabetu-txartela aurkeztuz %20ko deskontua lor dezakezu.
"Fundación Tripartita" bidez ere diru laguntzak jaso daitezke.

Informazioa gehiago: 943 718 009 • postgrado@enpresagintza.mondragon.edu
www.mondragon.edu/muplus

Amaia Albes, Emausen tailerrean. Joskintza erakutsiko die hainbat laguni. | L.K.

Arrasateko Emaus dendan neguko arropak dituzte orain, batik bat. | LEIRE KORTABARRIA

lanak edo lanaldi luzeagoak egiteko. Arduradunek esaten dutenez, oso zaila da tailer horretarako behar den lana egiten dakiten langileak topatzea.

Lehen ere, Udalak eta Emausek eman zieten formazioa hainbat laguni. 2009. urtean izan zen, eta hura izan zen Emaus Fundazioaren abiapuntua Arrasaten. Zortzi hileko formazioa eta gero, Emausek Arrasaten duen tailerrean lanean hasi ziren hiru lagun, gizarteratze helburu horren barruan; horiekin bi arduradun hasi ziren. Handik gutxira, denda ireki zuten tailerren ondoan. Biak daude Nafarroa Etorbidean, Udaltzaingoaren eraikinaren ostean.

Bi produktu mota daude: bigarren eskuko arropa eta Emausen Sin Desperdicio markako produktuak –poltsak, diru-zorroak, giltzatakoak, erosketa-gurditxoak…–. Hasieran kosta egin zitzaion arren, orain polito dabil denda, Emaus Fundazioko Formazio eta Enplegu Programen arduradun Iune Polok dioen bezala: "Asko lagundu zuen denda lekuz aldatzeak; orain, sarrera kalera begira dago. Erantzuna oso ona da". Emaus Fundazioaren datuen arabera, hauek izan dira azken hilotako salmentak Arrasaten, eurotan: bigarren eskuko arropenak, 2.516,16 euroko salmentak urrian, 2.167,50 azaroan eta 1.794 abenduan; Sin Desperdicio produktuenak, 192,10 eurokoak urrian, 97,80 azaroan eta 269,60 abenduan.

Bigarren beherapenak

"Prezio aldetik, oso produktu desberdinak dira bi euroko kamiseta bat eta 30 euroko Sin Desperdicio poltsa bat. Baina kamiseta bigarren eskuko arropa bat da, eta tailerrean ez dugu landu; Sin Desperdicioko produktuak, aldiz, banan-banan egindakoak dira. Hori kontuan hartuta, prezioa oso justua dago; hortik guk ez dugu etekinik ateratzen", Iune Poloren hitzetan.

Beste komertzio askok bezala, Emausen dendak beherapenak dauzka. Astelehenean, Sin Desperdicio ez beste produktu guztiak prezio erdira ipiniko dituzte.

L.K.

MARGA GARMENDIA
ENPLEGU TEKNIKARIA

"Gizarteratze bidean egotea kontuan hartuko da"

Udal Enplegu eta Garapen Ekonomikoko teknikariak joskintza ikastaroaren ezaugarriak azaldu dizkigu.

Zelakoa da ikastaroa?
Doakoa da, eta 250 ordukoa izango da, urtarrilaren 31tik apirilaren 8ra. Formazio praktikoa jasoko dute. Izenematea astelehenean bukatuko da.

Nork eman dezake izena?
Ezinbestean bete beharreko baldintza bakarra da Enplegu Zerbitzu Publikoan langabe gisa izena emanda egotea. Lehentasuna izango dute Arrasatekoek. Kontuan hartuko dira hautagaien egoera sozioekonomikoa, zenbat denbora daroaten langabezian eta joskintzarekin harremana izatea. Hortaz, edozein apunta daiteke, baina bazterketa egoeran ez daudenendako lau postu inguru bakarrik izango ditugu.

Bigarren eskuko arropa eta oinetako gehienak edukiontzi zurietatik edo zuzenean emandako arropetatik ateratzen du Emausek; baina, erabilitako edozein arropa ez dute saltzen: "Garbi eta ondo dagoenak bakarrik balio digu. Kontuan hartu behar da arropa hori ez dela lantzen; ez da garbitzen edo konpontzen, horrek asko garestituko lukeelako", esaten dute arduradunek. Bestalde, edukiontzietan ondo utzi arren arropa, gero kaltetu egin daiteke (euria…). Horregatik, eskatzen dute zuzenean Emausen egoitzara eramatea artikuluak.

Arropa eta bestelakoak

Etorkizunean, Arrasaten Ekocenter bat ipintzeko aukera dagoela esaten dute arduradunek. Gipuzkoan bi halako daude: Belartzan (Donostian) eta Irunen. Etxetresna elektrikoak, altzariak, jostailuak… denetariko produktuak berriz salgai jartzen dira. Iune Polok dioen moduan, "Ekocenter biak gizarteratze enpresek gidatzen dituzte, eta langileen %50 eta %70 artean izaten dira gizarteratze prozesuan dauden pertsonak". Momentu honetan, 17 halako langile dituzte Ekocenterretan, eta une jakinetarako beste 7-8 lagun hartzen dituzte. Eta Eusko Jaurlaritzaren Euskadi+ planaren laguntzarekin, beste bost hartuko dituzte.

Ekocenterrera bidea ez da erraza, izan ere, ekonomikoki bideragarria izan behar da, gastuak estaltzeko; baina, pixkana-pixkana, bide horretan jarraitzeko asmoa dutela esaten dute Udaleko eta Emauseko arduradunek.

ESANAK

"Polito dabil denda; asko lagundu zuen lekuz aldatzeak"

"Ondo eta garbi dagoen bigarren eskuko arropa soilik saltzen dugu"

IUNE POLO | EMAUSEKO ARDURADUNA

Saltoki handiak baino gehiago

Ekocenterrak bigarren eskuko produktuak saltzeko dendak baino askoz gehiago dira. 2.000 m²-ko hedaduran, dauzkate hondakinak berreskuratu eta berrerabiltzeko tratamendu zentroa; tresnendako pieza saltokia eta denok erabiltzeko zabalik dagoen konponketa-tailerra; eta ingurumenaren gaineko sentsibilizazio-gunea. Horrez gain, langile berriak han bertan formatzen dituzte. Gipuzkoan bi daude, eta bat Asturiasen.



Ekocenterretan, denetariko produktuak daude. | EMAUS FUNDAZIOA

DATUAK

%50

MERKEAGO

Astelehenean, bigarren eskuko produktuak erdi preziora jarriko dituzte.

6.500

EURO

Urritik abendura, 6.477 euroko salmentak egin zituzten 2. eskuko produktuetan Arrasaten.

EUSKARA IKASTAROAK

MATRIKULA ZABALIK

UDAL EUSKALTEGIAK

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
E-posta: *euskaltegi@arrasate-mondragon.net*

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi, 13
BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
E-posta: *berg.eusk@udal.gipuzkoa.net*

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4
20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62
E-posta: *leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net*

Intxaurtxueta 10
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
E-posta: *leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net*

Urtarrilaren 20tik 31ra.

Martxoaren 7an hasiko dute atez ateko bilketa zerbitzua Antzuolan

- Otsail bukaeran banatuko dute beharrezko materiala etxe guztietan
- Hilaren 24an zabalduko dute informazio bulegoa udaletxean

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Martxoaren 7an hasiko dute atez ateko zabor bilketa zerbitzua Antzuolan. *Hondakinekin selektiboak gara* leloarekin aurkeztu zuten kanpaina atzo Debagoieneko Makomunitatean.

Antzuolako alkate Pedro Iturbek esandakoaren arabera, otsail bukaeran banatuko dute beharrezko materiala etxe guztietan; besteak beste, kuboa eta gida praktikoa. Bestalde, aipatu zuen astelehenean, hilaren 24an, 17:30ean, zabalduko dutela udaletxean atez ateko informazio bulegoa. Dena den, antzuolarrek beste hainbat bide izango dituzte zalantzak argitzeko: 900 70 10 87 doako telefonoa; *atezate@debagoiena.com* helbidea; *www.debagoiena.com/atezate*; eta sare sozialetan: *www.facebook.com/atezate* eta *www.twitter.com/atezate*.

Pedro Lasagabaster, Ino Galparsoro, Pedro Iturbe eta Luis Lonbide, atzoko prentsaurrekoan. | MIREIA BIKUÑA

Batzarrak herritarrendako

Bestalde, antzuolarrei zuzenean emango diete zerbitzu berriaren gaineko informazioa: herritarrekin lehen batzar orokorra hilaren 24an egingo dute. Ondoren, hilaren 31tik otsailaren 3ra arte beste batzar batzuk egingo dituzte.

Antzuola aitzindari izango da bailaran atez ateko bilketarekin, eta alkatea pozik agertu zen: "Herritarrak gogotsu ikusi ditut. Ziur nago emaitza oso onak lortuko ditugula, eta bidea ongi irakatsiko diegula Debagoieneko beste herriei". Gainera, autokonposta egiteko kanpaina martxan jarriko dute. Alkateak dei egin die lur-muturren bat duten herritarrei. Konpost-kaxa eta konposta egiten ikasteko ikastaroa doan izango dituzte, eta %20ko bonifikazioa hondakinen tasan. Interesatuek informazio bulegoan eman dezakete izena.

Helburuak

Zabor bilketa berriarekin Mankomunitateak bete gura dituen helburuak azaldu zituen Pedro Lasagabasterrek, Mankomunitateko Ingurumen batzordeko buruak: "Organikoen %100 bildu gura ditugu selektiboki. Bosgarren edukiontziarekin %20 bakarrik birziklatuko genuke".

ESANAK

"Herritarrak gogotsu daude; emaitza onak lortuko ditu, ziur nago"

PEDRO ITURBE
ANTZUOLAKO ALKATEA

"Organikoaren %100 bildu gura dugu selektiboki atez atekoarekin"

PEDRO LASAGABASTER
MANKOMUNITATEKO ORDEZKARIA

2009an baino %9,8 gutxiago irabazi du Euskadiko Kutxak

Arduradunak "pozik" daude iazko berankortasun indizeari eutsi egin diotelako

M.B. | ARRASATE

Asteon eman ditu aditzera Euskadiko Kutxak iazko ekitaldiko datuak, eta, prentsa-ohar bidez adierazitakoaren arabera, "pozik" daude iazko berankortasun indizeari eutsi egin diotelako. Euskadiko Kutxak gestio planeko aurreikuspenak bete eta zerga osteko 51,4 milioi euroko emaitzak izan ditu, aurreko ekitaldian baino %9,8 gutxiago.

DATUA

51,4

MILIOI

Hori da Euskadiko Kutxak iaz izandako emaitza, zergak ordainduta.

Bost entitate onenen artean

Euskadiko Kutxaren txostenetik hainbat datu azpimarra daitezke: aurrezkiari dagokionez, *Max* kontuaren bilakaera da aipagarria, %20ko igoera izan du saldoetan; berankortasunak ere datu baikorrak eman dizkio Euskadiko Kutxari, %3,17ko ratioa du –sektoreko txikienetakoa–. Euren ustez, "lasai egoteko moduko maila" du entitateak %85eko gordailu-ratioarekin. Kaudimen edo solbentzian %10,84ko ratioa du, Core Capital ratioaren arabera. Kaudimen eta likidezia horrekin, Espainiako lehen bost entitateen artean dago.

Kreditu inbertsio gutxiago

Arrasateko kutxak bezeroei emandako krediduak %1,9 txikitu ziren iaz. Etxeko ekonomietako inbertsioen kopurua ere txikitu egin zen: %0,7. Izan ere, behera egin du kontsumorako finantzaketa eskariak. Enpresen kasuan, %4,5 txikitu da kreditu eta maileguetan emandako kopurua.

Grebarako dei egin diete emakumeei, gazteei eta kooperatibistei

ELAk eta LABek hiru taldeoi dei egin diete; ESK-k, bereziki, gazteei

UBANE MADERA | ARRASATE

Pentsioen erreformaren aurkako greba orokorrean parte hartzeko dei berezia egin zieten gazteei, emakumeei eta kooperatibistei ELA eta LAB sindikatuek Arrasaten asteon egindako agerraldian.

Horrekin batera, greba egunerako antolatu dituzten mobilizazioen berri eman zuten: piketeak elkartuko dira 05:30ean Arrasaten (Seber Altube plazan), Bergaran (Herriko Plazan), Oñatin (Herriko Plazan) eta Elgetan (Pagatza poligonoan). Eta eskualdeari dagokionez, iragarri zuten, besteak beste, Debagoieneko manifestazioa 18:00etan hasiko dela Arrasateko Seber Altuben.

ESK-k, gazteei dei

Bestalde, ESK sindikatuak eta Antikapitalistak eta Gorripidea taldeek ere bat egin dute urtarrilaren 27ko grebarekin.

Hain justu, ESK sindikatuak hitzaldia eta agerraldia egin zituen eguaztenean Arrasaten. Eta ESK-ri dagokionez, gazteen kasua azpimarratu zuen. Adierazi zuen gazteak, batez ere, ez direla ohartzen erretiroa atzeratzeak zer esan gura duen, erretiroa kalkulatzeko denboraldia 15 urtekoa izan beharrean 20-25ekoa izango delako. Hitzaldian, Frantziako esperientziaren gainean jardun zuten. Han 60tik 62 urtera atzeratu dute erretiroa, baina nabarmendu zuten Frantzian sindikatuak batuta daudela eta hemen batasun hori falta dela.

Kooperatiben esperientzia Hego Koreara

Hego Koreako telebista publikoaren ordezkaritza gure artean da, Mondragon taldeari buruzko dokumentala grabatzen. Helburua da Hego Koreako lan baldintzak hobetu beharraz ohartaraztea hangoak, eta eredu moduan hartu dute hemengo esperientzia.

ANDER MONEDERO

Zabaldu dituzte kupelak: edalontzia ipini eta... txotx!

Astelehenean, txakolinaren uzta berriaren aurkezpenean, Getarian eskualdeko txakolina ere izan zen

UBANE MADERA | ARRASATE

Atzo, eguena, egin zuten txotx Aramaioko Iturrietako sagardotegian. Arabako sagardoa aurkeztu zuten, Aramaion egindakoa oinarri hartuta: "Produktu ona dator, sagardo ona ateratzeko propietateekin. Lasto kolorea du, nahiko argia. Eta zapore aldetik... Kupel bakoitzekoa desberdina da. Onena da bakoitzetik dastatzea"; halaxe gonbidatu gaitu sagardo kupelak estreinatzera Juan Jose Peciñak, Iturrieta sagardotegiko ugazabak.

Alvarez (Ahaztuak), Aretxaga (ASSE), Peciña, Markinez eta Borobia. | ITURRIETA

Arabako sagardoa

Gonbit bera egin dute Koldo Markinezek (Trebiñu sagardoa) eta Koldo Borobiak (Borobia sagardo ekologikoa, Ozeta). Izan ere, Peciñarekin batera aurkeztu zuten sagardo berria, berezitasun batekin: Arabako Sagarzaleen Elkartearen izenean (ASSE) aurkeztu zutela. "Ahalegin berezia egiten gabiltza, batez ere geratzen diren aspaldiko sagarrondo horiek berreskuratzeko", kontatu du Koldo Borobiak.

> ESANAK
>
> **"Guk nahi duguna da Arabako sagar propioa atera"**
>
> JUAN JOSE PECIÑA | SAGARDOGILEA

"Arabako sagarrak ekarri nahi izaten ditugu zukua egiteko. Aurten gehienak Arabatik ekarri ditugu, Lautadatik eta Trebiñutik; hala ere, kilo batzuk ekarri ditugu Debagoienetik: Zabaleta, Bergara... Baina guk nahi duguna da Arabako sagar propioa atera. Pentsatu dugu egitea Sagardo Eguna Gasteizen, hasteko erakusten Arabako sagardo desberdinak. Data zehaztu barik dago, baina seguru aski ekain-irailean izango da", gaineratu du Peciñak.

"Sagardo indartsua dugu, txuletoiarekin jateko ezin hobea. Etor dadila jendea eta dasta dezala", bukatu du Koldo Markinezek.

Txakolina ere "oso ona"

Bestalde, astelehenean egin zuten txakolinaren uzta berriaren aurkezpen eta dastatzea, Getarian. Parte-hartzaileen artean eskualdeko ordezkaritza ere izan zen; esaterako, Felix Etxagibel (Otxia txakolina, Arrasate) eta Jabier Arregi (Kataide txakolina, Arrasate). Azken horrek honela deskribatu du aurten etxean egin duten txakolina: "Lasto kolorekoa, kata oso onekoa, gradutan ere nahiko ondo dagoena. Ez da iristen 11ra, baina hor-hor dabil, 10,80 dauka. Gustuz oso ondo dago. Jendeak esan beharko du, baina, gure ustez, oso ona da".

Bide batez, hark gogora ekarri zuen etzi, domeka, izango dela txakolin hori dastatzeko aukera, Angiozarren, 12:00etan.

Goiena Gida 2011. | GOIENA

Banatu ditugu Goiena Gidak: guztira, 20.600 ale

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

2011ko Goiena Gida komertziala asteon banatu dugu Debagoieneko herrietan eta Aramaion. Guztira, 20.600 ale banatu ditugu. Hiru gida komertzial ezberdin egin ditugu: Bergara alderako bat, eta Bergaran bertan, Elgetan eta Antzuolan banatu duguna(6.700 ale); Leintz Bailararako bestea: 10.500 ale banatu ditugu Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatza eta Aramaion; eta, azkenik, Oñatiko gida (3.400 ale). Egubakoitzetako GOIENA jasotzen duten guztiek eta gidan bertan parte hartu duzuen bezeroek jasoko duzue Goienaren gida komertziala, denda, enpresa edo etxe partikularretan.

Dena den, norbaitek ez badu jasotzen, bi bide ditu eskaera egiteko: alde batetik, 943 08 10 50 telefonoan eska daiteke; eta, beste alde batetik, *harpidetza@goiena.com* helbidean. Bezero zein partikular bakoitzak gida bana eskuratu ahal izango du. Beste alerik nahi izanez gero, 10 euro ordaindu beharko dira.

'Goiena.net'-en ikusgai

Bestalde, *Goiena.net*-en ere eskuragarri duzue. Hala, *Goiena.net/gida* helbidean, edozeinek topa ditzake Debagoieneko enpresa, komertzio eta bestelakoen telefonoak. " Goiena Gida komertziala asko baloratzen eta estimatzen den produktua da", adierazi du Imanol Elortzak, gida komertzialen arduradunak.

Eskualdeko mendi zidorrak eta gehiago, Fiturren

Eguaztenean zabaldu zituen ateak Madrilgo Fitur turismo azokak, domekara arte

U.M. | OÑATI

10.500 enpresa baino gehiagoren artean, 170 erkidegoren artean, 9. pabiloian, Kanariar Uharteetatik, Asturiastik eta Kantabriatik gertu. Han dago Euskadiren eskaintza munduko bigarren azoka turistikoan, Fiturren. Jakina, Euskadiko eskaintzarekin, Gipuzkoaren barruan dago gurea, Debagoienekoa.

Eskaintza eta ordezkariak

Berde eta naturala izenburupean aurkeztu dute Gipuzkoa barnealdeko eskaintza, eta hor dute bisitariek Debagoieneko informazioa: "Inaziotar Lurraldea, ibilbide kulturalak, naturalak eta mendi-ibiliak", Ana Heriz Debagoieneko Mankomunitateko turismo teknikariaren esanetan.

Eguaztenean bertan, Fiturren inaugurazio egunean izan zen Debagoieneko ordezkaritza. Han egon zen, esaterako, Ernesto Murgiondo oñatiarra, Gipuzkoako Diputazioko Turismo zuzendaria. "Naturan garatzeko moduko ekintzen artean bidezidorren gaineko eskaintza dago, eta Debagoieneko 22 bidezidorren informazioa dago txertatuta. Nahiko duina da eskaintza hori, urteotako mantenu onari esker egoera onean daudelako bidezidorrak. Mankomunitatea arduratu da lan horrekin", adierazi du diputatuak. "Bestalde, jende askok galdetu ohi du Inaziotar Lurraldeaz, Arantzazu...".

Diputatuak nabarmendu du, gainera, krisiak mesede egin digula, "hurbileko jendea erakarri" duelako; baina "2010eko emaitzak onak izateak ez gaitu lokartu behar eta ondo egindako lanarekin, kalitatearekin, ditugun parajeekin eta jendearen abegikortasunarekin itxaropentsu eta baikor hartuko dugu datorren urtea", gehitu du.

Ikerne Altube eta Ernesto Murgiondo, Euskadiren standean. | JOSEBA LARRINAGA

Eguazteneko bisitarien artean Garapen Agentziako Ikerne Altube arduraduna ere izan zen Madrilen. "Azoka guztien moduan, Fitur elkargune bat da, proiektu berriak, kolaborazioak, informazioa... trukatzeko", kontatu du.

Politeknikoko zentro berriarendako kalifikazio bikaina

M.B. | ARRASATE

Goi Eskola Politeknikoan eraiki duten sistema txertatuen ikerketa eta berrikuntzako zentro berriak IHOBErengandik kalifikazio bikaina lortu du, eraikuntza iraunkorraren arabera eraiki dutelako. 13.000 metro karratu ditu eraikinak eta 18 milioi euro inbertitu dituzte.

Diseinua LKS Ingeniariarena izan da, "Mondragon Goi Eskola Politeknikoko eraikinen kudeaketarako taldeak argi eta garbi definitutako ezaugarri eta beharrak kontuan hartuta", eta Calener-en A kalifikazioa lortu zuen. "Eraikina bi bolumen prismatikok osatzen dute, hiru altuerako komunikazio gune zentral batez bereizita; bertan kokatu dira lokaletarako sarbideak eta laborategiak, eta eraikin osoaren eta bertako jardueraren ikuspegi globala eduki daiteke", zehaztu dute.

Erreferente izatea

Goi Eskola Politeknikoaren eraikin berria erreferente bihurtu gura dute Estatuan, ingeniaritzaren eta elektronika adimentsuaren diseinuaren garapenean. Eraginkortasun energetikoa izan dute kontuan eraikina diseinatu eta eraikitzeko orduan; eraikinaren kokapena, hegoaldeko fatxadaren orientazioaren aprobetxamendua eta argi zenitalaren aprobetxamendua.

20tik aurrera
EGIN TXOTX!!

Bertako sagardoa
Sagardotegiko menua
(Txuletoia edo sahieskia)

Iturrieta sagardotegia
Arraga auzoa /Aramaio
945 445 385 685 721 593
iturrietasagardotegia.blogspot.com

ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI
'http://goiena.net/iritzia/'

Bestelako jendartea amets

Telebistan agertzen diren krisi ekonomikoari buruzko foroetan, "merkatuak eskatzen du", "merkatuaren eragina"… entzuten dugu. Lotsa gutxirekin jarduten dute "merkatua" esaten jendartearen gainetik dagoen izaki bat balitz bezala. Ez digute esaten "merkatu" horri inolako kontrol demokratikorik gabe eragiten dioten kapitalistek izen-abizenak dituztela. Politikariak dira gero "merkatuak" agindutako neurriak ezartzen dituztenak: langileei soldatak jaitsi, kaleratzea merkatu, pentsioak murriztu, baliabide energetikoak eta lehengaiak esplotatu… Hedabideetan, neurriok krisiari aurre egiteko aukera bakarra balira bezala azaltzen dizkigute, euren mendeko dira eta. Erabaki politikoak ez die erantzuten, ordea, jendartearen premiei, politikariak presionatzen dituzten kapitalisten interesei baizik. Politikariok etorkizuneko lanpostuak prestatzen ariko dira, Felipe Gonzalez, Jose Maria Aznar eta beste batzuen modura.

"Ez dugu amorerik emango; ez gara inor baino gehiago, ezta gutxiago ere"

Emakumeon kasuan langileengan eragiten duten neurri murriztaileokin gurutzatzen da patriarkatua. Lanaren sexu-bereizketara darama horrek eta, kasualitatez, ordaindu gabeak, soldata baxukoak, beste prestazio batzuk ez dituztenak, lan izenik ez dutenak… dira lanok: etxeko lanak… EUSTATen inkestetan azaltzen da emakumezkoek gizonezkoek baino denbora gutxiago eskaintzen dietela lan ordainduei, eta horiek baino askoz denbora gehiago lan ordaindu gabeei.

Inposizio kapitalista eta patriarkatuaz gain, emakume euskaldun garen partetik, auzoko bi estatuek ezartzen diguten erdaren nagusitasuna ere nozitzen dugu, atseginez euskaraz bizitzea eragozten diguna. Ekin Emakumeak elkarteko kide gisa, ez gaude prest amore emateko. Ez gara inor baino gehiago, ezta gutxiago ere. Horregatik ari gara euskaraz bizitzeko baldintzak sortu nahian ekintzak antolatzen, bai herrikoentzako, bai etorkinentzako. Kapitala, patriarkatua eta gaztelania nagusi diren honetan, pertsonetan oinarritutako jendarte baten bidean, emakume euskaldunek bizitza atseginagoa izateko ametsa lortzeko ari gara lanean.

USTEAK USTE

MAIDER ARREGI | 'marregi@goiena.com'

Bertso askea oztopatzen

Oihane Perea eta Josu Ormaetxea bertsolariek Auzitegi Nazionalean deklaratu dute. Arrazoia, presoen senideei elkartasuna adierazteko antolatutako iazko Santiago egunean egindako ekitaldi batean presoen izenak esatea. Terrorismoa goratzea leporatzen diete bi bertsolariei.

Bertsolaritzaren jardun askea ere trabatu nahi al dute? Bertsoak gizartean hartu duen indarra ikusita baliteke posible izatea bertso askea oztopatu nahi izatea. *Sustatu.com* webgunean dituzue ikusle batek bizi izan zuenaren kontakizuna, grabatutako irudiak eta argazkiak; horiek ikusita, nork bere hausnarketa eta iritzia izan dezala gertatutakoaren aurrean.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | 'http://goiena.net/iritzia/'

HANDIK ETA HEMENDIK

Begiratu, aztertu, erabaki eta egin

Aitor Manterola
berria.info/blogak/futbolsofatzen/

Ikusi, ikusi. Futbola bizitza bera bezalakoa da. Erabakiak hartu behar dira. Etengabe. Jokalariek mugimenduak egin behar dituzte (taktika), eta baloiaren jabe direnean, gauza biribil hori mugiarazi egin behar dute (teknika). [...] Lotuta daude taktika eta teknika. [...] Baloia oinetara joan baino lehen edota mugimendu bat egin aurretik, begiratu egin behar du jokalariak. Eta di-da batean, balizko egoera eta aukera guztiak aztertu, bat aukeratzea erabaki, eta erabakitako hori gauzatu. Zoritxarrez, oso jokalari gutxik begiratzen dute. [...]

Denbora gutxi, lekuak txiki. Aldatu egin da futbola. [...] askoz azkarrago jokatzen da orain. Eta lehen baino leku txikiagoan pilatzen dira jokalariak. [...]

Horregatik da funtsezkoa aurretik begiratzea. Baloia oinetan duenean hasten bada begiratzen, aztertzen eta erabakitzen, aurkaria gainean izango du erabakia gauzatzerako. [...]

Erakusten da? Astebururo bospasei partida ikusten ditut. [...] Eta jokalari denei ikusten diet ez dutela begiratzen, salbuespenak salbuespen. Entrenatzailoen akatsa da. Galanta. Erakusten dizkiegu, erakusten badizkiegu, baloia nola mugiarazi behar duten (paseak, kontrolak, baloia eramatea, jaurtitzeko moduak eta abar), eta non eta nora mugitu behar duten (desmarke motak, defentsako lanetan kokatzeko lekuak, presioa egitea, lerroak atzeratzea eta abar). Baina begiratzen ez diegu erakusten. [...]

Aranburuk begiratu zuen. Guztiak du salbuespena. Baita ez begiratzeko ohitura txarrak ere. Ikusi ditut sarritan Aranburuk Getafen sartu zituen bi golak. Eta ikusi dut bere bigarren golean nola begiratu zuen mugimendua gauzatu aurretik, baloia sare barrura mugiarazi baino askoz ere lehenago.

Hona jokaldia: Llorente doa ezkerretik, erditik Aranburu, eta eskuinetik Xabi Prieto. Baloia Xabi Prietok zeukanean, Aranburuk ezkerrera begiratu zuen, Llorente zertan ari zen ikusteko. Llorentek, bikain, erdialdera jo zuen, bere lekuan zuloa utziz. Aranburak zulo hori bete zuen, bigarren zutoin aldera joz. Hantxe jarri zion baloia Xabi Prietok, eta handik eman zion zartakoa Aranburuk. Jokaldi eredugarria, mugimendu paregabeak. Zer gertatuko zen Aranburuk ez balio begiratu Llorenteri? Ez zuen ikusiko Llorente erdialdera joan zela errematea bilatzera, eta bera ere, ziurrenik, leku berera joango litzateke helburu berarekin.

Askotan ikusten ditut horrelako egoerak. Area barruan dauden bi jokalari leku berera joaten dira errematatzeko leku bila. Aurretik ez begiratzeagatik gertatzen da akats hori. Julio Cesarrek 'vini, vidi, vinci' egin zuen: etorri, ikusi (begiratu eta gero) eta irabazi. Aranburuk ere irabazi egin zuen: begiratu, aztertu, erabaki eta egin.

ZUZENKETA

Joan den egubakoitzeko GOIENA paperean, 448. zenbakian, *Asteko gaia*-n, idatzi genuen Eskoriatzako Udalean ELAk bere ordezkaria galdu duela; bada, ez da horrela; izan ere, LABek galdu du bere ordezkaria.

Hori dela eta, barkamena eskatzen diegu afektatuei eta irakurleei".

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

Antzuolako armarria eztabaidan

Iñigo Ramirez de Okariz Telleria
Antzuola

Badira aste batzuk GOIENAn, *Niri ustez* atalean, herriko armarriaren inguruan abiatu nahi zen eztabaida zela-eta, ideia labur batzuk azpimarratu nituela. Orain, eztabaida prozesua ustez bukatzear den honetan, hainbat ideia-iritzi partekatu nahiko nituzke herritarrekin; izan ere, susmoa dut gai honekin bukatu baino hasi besterik ez dugula egin, eta, identitatearekin loturiko gai guztiekin gertatzen denez, susmoa dut EITBn eguraldi mapak izan duen prozesu bera ez ote gabiltzan errepikatzen Antzuolan armarriarekin.

Hasiera. Armarriaren eztabaidaren abiapuntuan armarriari egin zaion irakurketa ideologikoa ez zait, hasteko, aproposena iruditu. Hasiera baten kanoiak ziren hainbat ideologia sentsibilitatetan eragiten zuten egonezina, nahiz eta herritar gehiengoaren kezka baino gehiago (nahiz eta batzuena izan), Nabarralde erakundearen kezka izan, batik bat. Honi, baina, herriko beste ideologia sentsibilitate batzuk gehitu behar zaizkio, eta kanoiak soilik ez, baizik eta armarrian azaltzen diren erregea, maria, ostia eta kaliza ere zergatik aldatu ez pentsatu zen.

Garapena. Udaletxean bat etortzerik ez, eta hau herritarrek erabaki behar zutela pentsatu zen, eta azken garaietan Gipuzkoako hainbat udaletan modan jarri den Parte Hartuz programa aprobetxatu zen prozesu eta hausnarketa honi legitimitatea emateko. Ez dut programa honi buruz zehazki ezer aipatu nahi, bakarrik aipatuko dut metodologia hau dela baliagarria baldin eta prozesuan berme eta baldintza batzuk betetzen badira; besteak beste, informazio kontrastatu gehiago emateko aukera badago, eta uste dut alderdi horretatik gehiago egin zitekeela.

Ondorioa. Ez noa banan-banan herritarrek ateratako ondorioak aztertzera; izan ere, ustez armarri berriak adierazi beharko lituzkeen balioak (euskara, herri sentimendua, elkartasuna, boluntariotza…) inguruko edozein herrik ustez dituztenak dira, ez bada herritarrek Antzuolarentzat ateratako balio bat: alardearena. Eta bitxia da ondorio hau; izan ere, balio honek bere baitan ezabatu nahi diren armarriaren ikurretara berriro (kanoiak, erregea, kaliza, ostia eta mariara) eramaten gaitu, eta zeharka alardean ere erabiltzen den herriko banderara.

Iruditzen zait edozein herritako armarriak fosilizatutako ikurrak besterik ez dela, historia gutxi, mito eta tradizio asko dauzkaten euskarriak direla, eta gaur egun herrietako folkloreari gehiago lotuta daudela historiari baino, gure herriko makila-dantza edo sorgin-dantza bezalaxe, eta ez duela merezi hasieran egin zaion irakurketa ideologikoa egitea; alegia, ezin dugu XXI. mendeko begiekin nahiz pentsaerarekin aztertu eta baloratu gauza asko, baina are gutxiago armarriak.

Orain hurrengo fasea dator, zer egingo duen hemendik aurrera herriko Udalak ateratako ondorioekin. Nik aholku bat emango nioke, egoera birpentsatu eta norabidea birdiseinatu.

Bukatzeko, uste dut ondorioekin herrian urtero ospatzen dugun alardea bera ere zalantzan eta eduki gabe jartzen dugula. Alardea, armarria eta herriko bandera bera eztabaida ideologiko honetatik ateratzen ez badugu, geure arteko zatiketa eta gaizki ulertzeak areagotzeko besterik ez dute balioko. Alardea eztabaida prozesu luze bezain konplexu baten ondoren egokitu dugu herritar askok, eta armarriaren kontu honek une honetan ez lioke batere mesederik egingo.

Jakina, hau guztia iritzi pertsonala da, baina pena emango lidake gai hau, herrian beste gauza askorekin gertatzen den bezala, besterik gabe, *parte hartu* barik pasatuko balitz. Eta agian hala gerta daiteke, armarriaren kontu hau ustez beste zeregin garrantzitsuagorik ez duenaren kontua bakarrik izan daitekeelako.

Hondakinek badute irteera

Aitor Odriozola Lopez
(Arrasate Zero Zabor taldea)
Arrasate

Hondakinen kudeaketa gero eta konplexuagoa da, gero eta material desberdin gehiago erabiltzen dugulako eta, batez ere, gero eta zabor gehiago sortzen dugulako. Baliabideak mugatuak dira. Mundua husten ari gara zaborrak gainezka egiten digun bitartean.

Orain arteko bidetik jarraituz gero, oso urte gutxitan egingo dute gainezka Gipuzkoako zabortegiek eta erabaki egokiak hartu ezean, eraiki nahi duten errauste plantak 25-30 urterako lotuko gaitu kudeaketa eredu xahutzaile eta kutsakor honetara. Zer zentzu dauka lehengaiak (papera, kartoia, beira, plastikoa eta janari hondarrak…) erretzeak?

Guztiok diogu birziklatzen dugula, baina orokorrean sortzen ditugun hiri hondakinen %23 baino ez ditugu gaika biltzen, %90 birziklagarria denean. Arazoa larriagotu baino lehen, birziklatze-tasa handitu eta, batez ere, herritarrentzat erosotasuna eta osasuna bermatuko dituen hondakinen kudeaketa aitzindaria martxan jarri behar dugu Gipuzkoa osoan, jadanik Usurbil, Hernani eta Oiartzunen martxan dagoen berbera: atez ateko bilketa.

Gaur egungo inertziari buelta eman diote herri hauetan. %80tik gorako gaikako biltze portzentajeak lortuz, herritarren osasuna eta gipuzkoarron etorkizuna bermatzeko. Hondakin atal guztiak nahasian jasotzeak ez dauka inongo zentzurik; ez ingurugiroaren ikuspegitik, ez ekonomiaren ikuspuntutik, ezta baliabide publikoen kudeaketaren eraginkortasunetik begiratuta ere. Arrasaten ere, konponbidearen arloan, Zero Zabor filosofia zer den azalduko dugu eta *Atez atekoa*-ri atal berezi bat eskainiko diogu.

Kontsumitzen duguna beharrezkoa dugun, botatzen duguna ondo botatzen dugun, ekoizten dena ondo ekoizten den, eta abar. Zertarako egin gauzak erdipurdi, gauzak ondo egitea dagoenean. Guztiaz elkarrekin solasaldi bat edukitzeko gonbita egiten dizuegu: *Hondakinek badute irtenbidea, atez ateko zabor bilketa.* Urtarrilaren 26an, asteazkena, 19:00etan, Kulturaten (areto nagusian).

Ni ez naiz ateoa, eta zer?

Agustin Errasti Goenaga
Oñati

Barkatuko dit Joxe Aranzabalek gutun honen titulua, ia hitzez hitz berak idatzitakoarena *(goiena.net/blogak/faroa/)*, baina erabat kontrakoa. Izan ere, oso erakargarria egin zitzaidan, testua irakurtzera gonbidatuz. Nireak horrela beharko luke: "Ni fededuna naiz", beste izate guztiak alde batera utziz.

Lehenik, bostekoa emango nioke Joxeri, bere ateismoa bilaketa prozesu baten ondorioa baldin bada eta ez azaleko zerbait; eta errespetu berbera izango luke beste kristau helduen aldetik. Garai bateko ateo bakunak, gaizki tratatuak, baztertuak, etab., hori guztia, gure artean behintzat, nahiko aspaldikoa iruditzen zait.

Ateo gehienak ez direla, tamalez, armairutik ateratzen, dio, salbuespenen artean Pako Aristi eta Mikel Abaitua aipatuz. Nik alderantzizko ibilbidea egin duten beste bi ekarri nahi ditut: Joxanton Artze "Ametsezko mundutik egiazkora" eta Xabier Lete "Abestitzak eta Poema kantatuak". Azken hauentzat erlijioa oso kontuan hartzeko zerbait da, misterioaren atarirantz begiratuz bizitzea da.

Sinestun, sinesgabe izan, denek merezi dute begirunea, are gehiago, bere barrua agerian jartzen badute. Txepelkeria eta axolagabekeria lirateke onartu ezinezkoak; horretan bat etor gaitezke Joxe eta biok.

Kooperatibetako langileok oraingoan bai

Amagoia Lasagabaster (ELA) eta Jose Ramon Kortabarria (LAB)
Bergara

Jakingo duzuenez, urtarrilaren 27rako gehiengo sindikalak greba orokorrera deitu du euskal gizartea. Izan ere, jasaten ari garen krisi egoeran gobernu ezberdinek hartzen diharduten erabakiak herritarrentzat eraso gogorrak dira. Bankuei dirutza handia eman zaien bitartean, langileei lan erreforma bortitza ezarri zaie (kaleratzeak merkatu dituzte, besteak beste), haur bat izateagatik zeuden dirulaguntzak kendu dizkigute, langile askori soldata jaitsi diete, langabezian eta prestaziorik gabe dauden herritarrei dirulaguntzak kendu zaizkie eta orain pentsioak kendu nahi dizkigute. Gizarte Segurantza arriskuan dagoen argudio faltsua erabiliz (iaz 10.000 milioi euro baino gehiagoko superabita izan zuen), pentsioen zenbatekoa murriztu eta kotizazio eta jubilazio urteak luzatu nahi dizkigute. Argi eta garbi: erreforma berri honekin pentsio plan pribatuak indartu nahi dituzte, eta krisi hau eragin dutenak aberastu nahi dituzte langileriaren aurrezkiekin.

Hau kontuan izanda, euskal gehiengo sindikalak erantzun gogor eta bateratua eman behar dio. Eta kooperatibistoi deialdi honekin bat egiteko eskatzen dizuegu. Izan ere, zuek ere gertutik jasango duzue erreforma hau. Azken urtean, hainbat erabaki hartu dituzue babes pentsio ereduaren inguruan. Besteak beste, zuon kotizazioaren gehiengoa Gizarte Segurantzan egiten duzue (lehen ez bezala). Ondorioz, zuek ere sufrituko duzue erreforma berria. Pentsio duin bat izateko eskubidea kenduko dizue askori.

Langile klase guztiari dei egiten diogu grebarekin bat egiteko. Gure eskubidea delako, pentsio publikoak ez daudelako arriskuan, gezurretan ari direlako, gure aurreko belaunaldiek lortutako eskubideak kendu nahi dizkigutelako, guztion etorkizunarekin jokoan ari direlako, elkartasun kontua delako! Urtarrilaren 27an greba orokorra!

Info7: bertso saio bat baiño gehixau

Ibai Redondo
(Info7ren Bergarako babes taldea)
Bergara

Martitzena. 08:00. Irratixa piztu eta… "Detenidos 10 jóvenes por formar el aparato político de ETA"; "La Guardia Civil detiene al hijo de Txelui Moreno"; "Las pistolas pasan de padres a hijos"… 09:00. Titularren gaiñian tertulianuak hasi die zaunkaka, operaziñua txalotuz edo justifikatuaz ixa irrati guztietan. Nazkatu naiz eta Txapa irratixan bidez (eskerrak Txapai) Info7n *Kale gorrian* saiua jarri dot… "ETAren su-etenaren ondoren 10 euskal herritar atxilotuak izan dira…".

Honegaitik, Info7 irratixa herri guztietara zabaldu behar dogu. Zure laguntza behar dogu Bergaran adierazpen askatasunai bere lekua egitteko. Aukera paregabia daukazu ostiral gabian, Bergarako frontoian, bertso saio bikaiñakin gozatu eta laguntza txiki bat emoteko.

Jose Mari gogoan

Iñigo Trueba
(Hiruatx eta Mundukide elkarteen izenean)
Aretxabaleta

Orain dela urtebete utzi gintuen Jose Mari Sarasuak. Urtebete pasa da Jose Marik betiko utzi gintuela, baina berak hasitako bideek aurrera jarraitzen dute.

Aretxabaletako Hiruatx taldetik eta Mundukidetik beti edukiko dugu gogoan herrialde pobretuen bizitza duin baterantz hasitako lana. Atzera begiratzeak aurrerako indarra ematen du.

Jarrai dezagun Jose Marik hasitako bideak aurrera bultzatzen, justizian, elkartasunean eta gizatasunean oinarritutako mundu baterantz doan bidea zabaltzen.

Urtarrilaren 23an, 11:30ean, Aretxabaletako Jasokunde Ama parrokian urteurren meza ospatuko da. Bihotzean eramango zaitugu beti.

Mikel Intsausti, Arrasaten, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

Mikel Intsausti | Kutxa Fundazioko Iraunkortasuneko zuzendaria

"Erabilitako olioa batzeko sistema berritzailea, iraunkorra eta erosoa da"

- Olioa batzeko 32 edukiontzi jartzeko ekimena diruz lagundu du Kutxak
- "Erabilitako litro olioko 10.000 litro ur kutsa daiteke"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Etxean erabilitako landare-olioa batzeko Debagoienean abiatu den ekimenean zuzen-zuzenean hartu du parte Kutxa Fundazioak. Iraunkortasuneko zuzendari Mikel Intsausti hernaniarrarekin jardun dugu horren inguruan.

Etxean erabilitako landare-olioa batzeko 32 edukiontzi jarri dituzte Debagoieneko herri guztietan. Kutxa Fundazioak zuzen-zuzenean hartu du parte egitasmo horretan, ezta?

Bai. Arrasaten jarri zuten lehenengo, eskualde osoan orain, eta gustatuko litzaiguke Gipuzkoa osora zabaltzea. Debagoieneko Mankomunitateak erabakia hartu zuenean sistema bailara osora zabaltzeko, Kutxak laguntzeko prestutasuna agertu zuen. Sistema berritzailea da, iraunkorra eta, batez ere, jendearendako erosoa. Olio-potea etxean erabilitako landare-olioarekin bete, edukiontzian sartu eta pote hutsa eraman dezakezu etxera berriro ere olioz betetzeko.

Ezagutzen zenuten sistema?

Bai; duela bospasei urte, Bilboko azoka baten, Eko3 enpresaren berri izan genuen. Mondragon Unibertsitateko ikasleak ziren. Eta han ikusi genuen diseinatu zuten lehenengo edukiontzi prototipoa. Geroztik, edukiontziaren garapena ezagutu izan dut, mekanizatua eta digitalizatua dago, Internet bidez bidaltzen du informazioa betetzen doanean... Aspaldi ezagutzen dugu ekimena eta oso ona iruditzen zaigu.

Zelan lagundu du Kutxak proiektua?

Horrelako egitasmoak, hastapenetan, garestiak izaten dira. Eta bultzada behar izaten dute. Kutxak diruz lagundu du enpresak eskainitako zerbitzua merkatzeko. Babestu dugu poteen banaketa. Debagoieneko familiako hiruzpalau euro eman ditugu; guztira, 252.000 euro. Horrek lagundu du proiektua abiarazten eta Mankomunitateak jarri beharreko kopurua murrizten.

Aitzindaria da Debagoienean ezarri den sistema hori?

Esperientzia puntualak badaude, Gasteizen, Iruñean ere aztertze ari dira, baina Gipuzkoan aitzindari izan zarete Debagoienean. Espero dugu 2011n beste toki batzuetan ere abian jartzea sistema, eta, horretarako, diru partida bat gorde dugu.

Udalei ze kostatzen zaie?

Batez beste, biztanle bakoitzeko euro bat urtean: edukiontziak, zerbitzua, olioaren tratamendua...

Oso kutsakorra da etxean erabilitako landare-olioa?

Bai. Erabilitako litro olioko 10.000 litro ur kutsa daiteke. Bioanizatasunean izan dezakeen inpaktua handia da, ze ur hori itsasora baitoa. Egia da araztegiak-eta badaudela, baina hor ere kostu ekonomiko handia behar da, inbertsio handia, erabilitako olio hori arazte plantako zirkuitutik kentzeko. Hortaz, sistema lurralde osora zabalduko balitz, araztegietara joango liratekeen ur zikinak askoz ere garbiagoak iritsiko lirateke, etxean erabilitako landare-olio askoz ere gutxiagorekin.

Kutxa Fundazioak ze aurrekontu du urtean ingurumenarendako?

Kutxaren Gizarte Ekintzaren aurrekontua Kutxako emaitzen araberakoa izaten da. Irabazien heren bat gizarte proiektuetarako izaten da. 2010ean, esaterako, 45 milioi euro bideratu dira Gizarte Ekintzara, eta, horietatik, 4 milioi euro ingurumen proiektuetara. 2011tik aurrera Gizarte ekintzan ziklo bat itxi da Onkologikoaren irekiarekin. Orain arte, inbertsioen zati handi bat xurgatu du Onkologikoak. 60 milioitik gorako inbertsioa izan da, baina hori amaitu da eta datozen urteotarako, Kutxan lan ildo estrategiko moduan natura, ingurumen, iraunkortasun eta horrelakoekin zerikusia duten ekimenak bultzatuko dira. Datorren urtean, esaterako, baliabideak bikoiztu egingo ditugu.

Hainbat proiektu dauzka martxan Kutxa Fundazioko Iraunkortasuneko Departamentuak. Batzuk aipatuko ditugu, banan-banan: Gazte Ekoliderrak da horietako bat. Zer da?

19 eta 29 urteko gazteei zuzendutako programa da. Gipuzkoan, bost urteko epean, 150 gazte ekintzailerekin sarea sortu nahi dugu. Ingurumen proiektuen alde gogoz ekiteko prest dagoen gazte jendea. Hiru fase ditu: Trebatu, Ekin eta Izan. 6 hilabeteko epean, tailerrak, mintegiak, berbaldiak e.a. izaten dituzte. Gazte ekintzaile horien artean eskualde ezberdinetan sareak sortzea da asmoa.

Etorkizun handia dauka iraunkortasunarekin zerikusia duen guztiak.

Bai. Azken 15 urteotan jendartea jabetu egin da arazoaz, erritmo honekin jarraituz gero, jai daukagula. Datu bat: munduko biztanle guztiek Gipuzkoan kontsumitzen dugun adina kontsumituko balute, bi planeta beharko genituzke. Ez da eroangarria; kontua da txinatarrak, indiarrak, brasildarrak ari direla kontsumo portaerak aldatzen eta gure mailara heltzen: haragi gehiago jaten, autoa gehiago erabiltzen... Baina baliabideak mugatuak dira.

Auto elektrikoak herritarren artean alokatzeko ekimen aitzindaria abian jarri dute oraingo astean Ataunen eta hor ere parte hartu du Kutxak, ezta?

Bai; Europan ekimen aitzindaria da Sarecar egitasmoa. Auto elektrikoak egon badaude, baina Ataungo egitasmoak badauzka ezaugarri bereziak. Auto elektrikoak izateaz gain, errentan hartzeko sistema jarri da abian eta oso prezio merkean, gainera: lehenengo bi orduak, bi euro orduko. Lortu nahi da familiek uko egitea bigarren autoa erosteari eta errentan erabil ditzatela auto elektriko hauek. Beste ezaugarri garrantzitsu bat da autoak kargatzeko erabiltzen den energia berdea dela. Plaka fotovoltaikoak jarri dira eta hornitzen den energia ere jatorri berdekoa da.

Zabalegi Ekogunea da beste proiektu bat, datorren urtean argia ikusiko duena...

Kutxaren proiektu nabarmen eta garrantzitsuena da hurrengo urteetarako, behin Onkologikoa amaituta. Donostian kokatuko da eta ingurumenaren parke tematikoa izango da, non hiritarrek, enpresek eta udalek posible izango duten, proiektuak abian jarri nahi badituzte, aholkularitza, trebakuntza, informazioa eta finantzazio berdea jasotzea. 50 hektareako parke ireki bat izango da, sarrera doan izango duena. Jorratuko ditu energia berriztagarriak, eraginkortasun energetikoa... Bizikleta eta motor elektrikoak ere erabili ahal izango dira, baratze ekologikoa, konposta, ura arazteko sistema naturalak erabiliko dira... Astean barrena helburu pedagogikoa izango du eskolako neska-mutikoendako eta asteburuan, gehienbat, alde ludikoa familia osoarendako.

Ze fasetan dago proiektua?

Obrak duela aste bi hasi dira. Lur mugimenduekin-eta hasiak gara. 2013rako parkea erabat amaituta eta zabalik izango da, baina nahiko genuke datorren urtean eremu bat irekitzea.

"Biztanle bakoitzeko euro bat urtean kostatzen da ekimena"

"Bikoiztu egingo dugu ingurumenera bideratutako diru partida"

"Azken urteotan jendartea jabetu egin da ingurumenaren arazoaz"

"Ekogunea da gure proiektu izarra hurrengo urteetarako"

ateak zabalik
zatoz ikastolara!



HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

BILERA INFORMATIBOAK				
URIBARRI	urtarrilak	**25**	18:00	ARRASATE
SANTA TERESA	urtarrilak	**26**	18:00	ARRASATE
UMEZAINTZA	urtarrilak	**31**	18:00	ARRASATE
ATE IREKIAK				
OLARTE	urtarrilak	**26**	17:00-18:30	ARRASATE
JOSE ARANA	otsailak	**1**	18:00-19:30	ESKORIATZA
BASABEAZPI	otsailak	**1**	18:00-20:00	ARETXABALETA
ARIMAZUBI	otsailak	**1-2**	17:00-18:30	ARRASATE
SANTA TERESA	otsailak	**3**	17:00-18:30	ARRASATE

LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

BILERA INFORMATIBOAK				
5 urteko umeen gurasoentzat	urtarrilak	**25**	18:00	ARRASATEko UMEZAINTZA
ATE IREKIAK				
ARIMAZUBI	otsailak	**1-2**	17:00-19:00	ARRASATE
SANTA TERESA	otsailak	**3**	17:00-18:30	ARRASATE
GAZTELUONDO	otsailak	**4**	16:30-18:30	ARRASATE
ALMEN	otsailak	**5**	16:30-18:30	ESKORIATZA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

BILERA INFORMATIBOAK				
SANTA TERESA	urtarrilak	**26**	18:00	ARRASATE
GAZTELUONDO	otsailak	**2**	18:00	ARRASATE
ARIMAZUBI	otsailak	**3**	18:00	ARRASATE
ALMEN	otsailak	**3**	18:00	ESKORIATZA
ATE IREKIAK				
ALMEN	otsailak	**5**	16:30-18:30	ESKORIATZA
GAZTELUPE	otsailak	**7-11**	egun osoa	ARRASATE

MONDRAGON GIZATASUNA LANEAN · Finantzak Industria Ikerketa Esaguzua

Ikastolen Elkartea

informa zaitez

943 77 20 25
www.arizmendi.eu

Arizmendi ikastola

DUELA 10 URTE

2001-01-16

'Behi erorik' ez zen antzeman gurean

Behi eroen auziak merkatua ez ezik politikagintza ere astindu zuen duela hamar urte; hautsak harrotu zituen non-nahi. Hala ere, gurean ez zuen eragin handirik izan: EAEn gaitza antzemateko probak egin zirenean, Zubillagako hiltegian ez zen gaitza aurkitu. Zortzi behi hil zituzten, eta, Jaurlaritzaren aginduz, horien buruak Derioko Neiker laborategietara eraman zituzten. Probek ez zuten positiborik eman.

Zubillagako hiltegia, duela hamar urte. | ARTXIBOA

2001-01-19

Aramaioko mitoak jasotzeko lanean

Barandiaranen galdetegi bat oinarri hartuta, Aramaioko kondaira, mito eta hizkera jasotzeko lanetan hasi ziren, bereziki 70 urtetik gorako aramaioarrengana eta abadeengana jota. Bi taldetan banatu ziren: lehen taldeak herriko ipuin eta kondairak batu zituen eta bigarrenak, berriz, euskara ondare filologiko moduan hartuta, Aramaioko berba egiteko modua jaso zuen. Garai hartan, bestalde, Udalak webgunea sortzeko asmoa erakutsi zuen.

DUELA 5 URTE

2006-01-16

Tranbia egiten noiz hasiko

Debagoieneko tranbiaren lanak noiz hasiko zain zeuden ibarreko udal ordezkari gehienak. Hona orduan Arrasateko alkate Ignacio Lakuntzak esan zuena: "Garrantzitsuena lanak hastea da. Ezin dugu aukera galdu, gure atzetik zain direlako beste batzuk ere". Oraindik zain izango dira, proiektua geratuta dago-eta.

HERRITARRAK

Felix Ajuria | Artzaina eta gaztagilea

"Baikorra naiz baserriaren etorkizunaz; eskema eta eredu berriak behar dira"

Baserriaren defendatzaile sutsua, egungo egoeraren errua bertako administrazioena ere badela uste du

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Baserritarra, gaztea eta baikorra da Felix Ajuria. Beste askok bizimodu jasanezina eta etorkizun beltza ikusten duten lekuan, baserria errentagarria izan daitekeela deritzo; hori bai, pentsaera aldaketarekin. Gaztagilea da eta aramaioarren artean ezaguna da haren gazta. Baserriaren defendatzaile sutsua da, nekazaritza sindikatuetan ibilbide luzea egindakoa: EHNEn eta UAGAn kargu garrantzitsuak izan ditu, eta orain EHNEko afiliatu bat gehiago da. Hainbat kontuz egin dugu berba Ajuriarekin, haren baserrian bertan.

Sindikalismoan ibilbide luzea duzu. Zein balorazio egiten duzu urte horiez guztiez? Eta nola ikusten duzu azken urteotan baserriak izan duen bilakaera?

1993an sartu nintzen EHNEn. Maila pertsonalean esanda, oso urte aberasgarriak izan dira hainbat planotan: formazio aldetik, jendea ezagutzeko orduan, sektorearen alde onak eta txarrak ezagutzen... denetarik. Kolektiboki, bestalde, nahiko bilakaera eskasa izan du sektoreak, oro har. Abandonatze-prozesua bizi izan du gure nekazaritzak.

Baserriaren etorkizuna beltza da, beraz...

Nik ez dut hala ikusten. Nire aukera da, eta gaztea naiz, gainera. Baserriak etorkizuna duela uste dudalako aukeratu dut bizimodu hau. Oso baikorra naiz gure baserrien etorkizunaren gainean; hori bai, etorkizun horrek eskema berriak behar ditu. Politika berriak behar dira, baina ez Europatik, euskal gobernutik edo diputazioetatik bakarrik: administrazio lokalek asko dute egiteko.

Baserriak bizi duen egoera ilunaren errua gurea da, neurri handian. Baserritarrona, hasteko, eta baita Udalarena eta gainontzeko administrazioena. Adibideak badaude mendi-nekazaritza posible dela frogatzen dutenak: Suitza, Italia eta Austria dira horren adibide. Nekazaritza egiteko eredu ezberdinak dituzte.

Felix Ajuriak 400 ardi inguru ditu baserri ondoan duen ardi-kortan, Oleta auzoan. | JOKIN BEREZIARTUA

> **"Baserriak egun bizi duen egoeraren errudunak gu gara, neurri handian"**

> **"Aramaio baserri barik mantentzeko dirutza beharko litzateke"**

Zein sektore uste duzu dela Aramaion ustiatu behar dena?

Gero eta argiago daukat Aramaio moduko eremuetan behi-esnean dagoela etorkizuna; mendi inguruetan landa garapenerako agente garrantzitsuena da behi-esnea. Baina sektore horren gainean egin diren politikak guztiz kontrakoak izan dira.

Gainera, Aramaion ardi-gazta ere badugu. Beraz, hemen aukerak baditugu.

Eta aukera horiek aprobetxatzeko moduan ikusten duzu Udala?

Aramaion azken urteotan jabetu dira baserriak eta nekazaritzak duten garrantziaz eta Aramaio gaur den moduan izaten jarraitzeko baserriak ezinbestekoak direla. Aramaioko ekonomia eta ekosistema baserri barik mantentzea sekulako dirutza litzateke eta horretaz jabetu behar dugu. Administrazioak argi jokatzen badu, ikusiko du errentagarriena dela Suitza, Italia eta Austriako ereduak aintzat hartzea: hau da, lehentasuna izatea bertako nekazaritza mantentzea, inguru horretako sektore garrantzitsu moduan.

Udalaren aldetik pentsaera aldaketa bat ikusten dut eta hori txalotzekoa da. Hor dago *Aramaio Baserri Berri* ekimena, esaterako. Beste ekimen batzuk ere badaude eta oraindik ere gauza handirik gauzatu ez den arren, itxaropen handiak ditut.

Egun gutxi barru urtebete beteko da lur-jausi batek Aramaiorako bidea moztu zuela. Urte luzea, ezta?

Guri ez digu kalte handirik eragin, gu *limitauan* gaude: Aramaioko kaletik [Ibarra auzotik] 18 kilometrora eta Otxandioko plazatik 500 metrora. Baina ez dago zalantzarik aramaioarrendako kalte handia izan dela. Adibide bat jarriko dizut: 2009an sortu zen Aramaioko artzainek esnea elkarrekin banatzeko proiektua. Orduan, kamioia pasatzen zen Aramaion artzainen esnea hartzeko, baina, bidea moztu zenetik, ez etortzea erabaki zuen. 2010ean artzain aramaioarrek Legutiora eraman dute esnea, esfortzu handia eginda. Bada, esfortzu hori barik, horrenbeste kostatako ekimena bertan behera geratuko litzateke.

AHTko lanek zenbateraino eragin dute bertako nekazaritzan? Eta aramaioarren artean?

Zauri handia da Aramaioko nekazaritzaren bihotzean. Eta ez hori bakarrik: maila guztietako inpaktuak eragin ditu, baserritar zein aramaioar guztiendako.

NIRE HERRIAN

'ARAMAIO BASERRI BERRI'

"Oso interesgarria da *Aramaio Baserri Berri* proiektua. Baserria subjektu ekonomiko moduan berpizteko dinamika da, betiere ekoizpenaren aldetik ikusita. Hau da, bertako ekonomia bultzatzeko proiektua da; oso ondo ikusten dut. Hasiera prozesuan dago, baina itxaropentsu nago".

KANPOAN LAN EGIN BEHARRA

"Azken urteetan ez da garatu bertan lana sortzeko ahalmenik. Aramaion bizi denak non egiten du lan? Kanpoan. Herriaren erronka izan behar du bertakoendako lana sortzeak. Ez da erraza, inguruan dugun lan merkatua ikusita. Hala ere, ez dakit ondo jabetzen garen gurean lana sortzeak duen garrantziaz".

HERRIAK

ARETXABALETA

Gertu du Loramendik kultura eremu askotatik jorratzeko plana

Hilaren 30ean hasiko da 'Non beretik, nok beretzat' leloa duen Kultur Eskola

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Egitasmo berria du esku artean Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak: *Non beretik, nok beretzat* leloa duen Kultur Eskola. Elkarteko ordezkari Beñat Zamalloak azaldu du bakoitzak duen interesetik heldu ahal izango diola ekimen berri horri. Hori horrela izan dadin, zazpi eskola eta azoka gertatu dituzte: literatura, antzerkia, bertsoak, dantza, ikus-entzunezkoa, musika eta kultura azoka.

Zamalloaren arabera, "Loramendiren asmoa da sorkuntza lantzea hainbat kultura eremutatik; eta helburua, kultura sorkuntza euskaratik eta euskaraz landu eta ezagutzatik nor bere kultura arlotan euskaraz zaletzera eroan".

Joan den urteko eskola arteko Loramendi literatura lehiaketako saridunak; literatura eskolan dago sartuta esandako lehiaketa. | MIRARI ALTUBE

Ikastaro trinkoak

Horren harira, azaldu du lau lagunez osatutako elkarteko kultura batzordea dabilela guztia lantzen eta datozen hilabeteotarako ekimenak lotzen. Horri lotuta, jakinarazi du horretan parte hartzeko aukera izango dutela interesa duten guztiek ikastaro trinkoen bidez. Ikastaro horiek 8 eta 16 ordu artekoak izango dira, eta unibertsitateko irakasleak, adituak, arituak eta herritarrak izango dira horiek gidatuko dituztenak.

Esan bezala, Kultur Eskolak zazpi arlotan jardungo du. Literaturari dagokionez, Zamalloak azaldu du lau ekimen egingo direla atal horren harira: alde batetik, *Zela idatzi ondo ulertu dein* ikastaroarekin hasiko dute eskola eta, aldi berean, Kultur Eskola ere. Huheziko irakasle Beatriz Zabalondok emango du hilaren 31tik otsailaren 17ra, astelehenetan eta eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara.

Loramendi literatura lehiaketa, kafe tertulia literarioak eta Karmeleren literatura astea ere egingo dira. Azken horretan, martxo aldera argitaratuko den Karmele Igartua poetaren azken liburua aztertzeko asmoa dute.

Erretiratuendako antzerkia

Antzerki eskolaren harira, ekimen bi dabiltza gertatzen Loramendikoak. Otsailean, martitzen goizetan, erretiratuei zuzendutako ikastaroa egingo dute; Iurgi Etxebarriak emango du. Horretaz gain, martxoan, ikastaroa egingo dute DBHko ikasleekin; egubakoitzean izango dira eskolak, 19:00etatik 20:30era.

Bestalde, bertso eskolaren bueltan, otsailerako taldea sortzeko asmotan dabiltza Lehen Hezkuntzako ikasleekin; horrez gain, dagoeneko Nerea Urrarekin lanean dabiltzan DBHko ikasleak daude.

Dantza eskolari dagokionez, larrin-dantza ikastaroa egongo da otsailean hasita, Maialen Elortzarekin; eta herriko auzoetan erromeriak antolatzeko asmoa dago. Bestalde, ikus-entzunezkoetan, jatorrizko hizkuntzan umeendako filmak botatzeaz gain, argazkigintzarekin lotutako ikastaroak egingo dituzte udaberrian; eta bideoarekin lotutakoak iraileti aurrera.

Bertso afaria otsailaren 25ean

Musika eskolan, gitarra jotzen ikasteko ikastaroa emango du martxoan Igor San Juan musikari aretxabaletarrak. Azkenik, kultura azokak bi eratako ekimenak jasoko ditu: batetik, Kultur Eskolaren bidez sortuko diren ekimenak egitea, hala nola erakusketak edo antzerkiak; bestetik, formatu txikiko ekitaldiak antolatzea. Azken horren harira, dagoeneko gertu dute lehena: otsailaren 25ean, bertso-afaria izango da Hibai-Gain elkartean, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi bertsolariekin.

Kultur Eskola egitasmoa aurrera eroan ahal izateko, Loramendiko ordezkariak nabarmendu du "beharrezko" finantzazioa lortzen dabiltzala, bai dirulaguntzen bidez eta baita dirua lortzeko gertatuko dituzten ekimenen bidez ere; besteak beste, produktuen salmenta eta tabernak jartzea. Horrenbestez, ekimenik ez da faltako datozen hilabeteotan.

Formatu txikiko ekimenak ez dira faltako; irudian, iaz egindako irteera. | M.A.

KULTUR ESKOLA ATALEZ ATAL

- Literatura
- Antzerkia
- Bertsoak
- Dantza
- Ikus-entzunezkoa
- Musika
- Kultura azoka

Literatura lehiaketa deitu dute

23. eskola arteko Loramendi literatura lehiaketa deitu du aurten ere. Loramendiren egoitzara (udaletxe zaharrera) eraman behar dira lanak otsailaren 18a baino lehen.

Iazkoarekin alderatuta hainbat berrikuntza daude aurtengo lehiaketan: amodiozko gutunak beharrean, DBHkoek gorrotozko gutunak idatzi beharko dituzte; gainera, egiten duten film labur edo grabazioak umorezkoa izan beharko du. Bertsoei dagokienez, LHko 5. mailatik gorakoek berba bat emanda (gaia jarrita) egin beharko dituzte.

Sari banaketa martxoaren 11n egingo dute. 19:00etan hasiko da ekimena Arkupe kultura etxeko areto nagusian. Horren harira, gogorarazi dute parte-hartzaile guztiek jasoko dutela oparia.

Iñigo Garitano | Udaleko idazkari berria

"Errespetua ematen dit lanpostuak, erantzukizun handia du-eta"

Udalean 12 urteotan idazkari lanetan ibili den Ainhoa Munduate irundarrak kargua utzi eta haren lekua hartu du Iñigo Garitano bergararrak

UBANE MADERA | ARRASATE

Iñigo Garitano (Bergara, 1966) Arrasateko Udaleko idazkari berria da. Baina badihardu 13 urte udaletxean lanean, Gizarte Zerbitzuetako teknikariburu. Lehenago beste bost urtean ibili zen Antzuolako Udalean, han ere idazkari. .

Hartu duzu kargua?

Bai, urtarrilaren 3an.

Zerk ematen dizu beldur handien halako kargu inportante baten?

Ba, akaso ezjakintasunarengatik -edo, baina beldurrik ez dit ematen. Errespetua bai, lanak erantzukizuna du-eta.

Akaso Antzuolan bost urtean idazkari izanak lagunduko du, ala?

Bueno, idazkari izan nintzen Antzuolan bost urtez, baina duela 13 urte, hortaz... Gainera, Antzuola 2.000 biztanleko herri bat da eta Arrasate beste gauza bat da. Zerikusia badu, jakina, lanaren funtsa berdin samarra izan liteke; aldatzen dena da egitura hau beste tamaina batekoa dela eta beste erantzukizun bat izan dezakeela. Baina lanposturako badaukat aurretiko erreferentzia, eta lagunduko du.

Zer egin behar izaten du udal idazkari batek?

Batetik, fede publikoa eman; Udalak hartzen dituen erabakiak organo jakin batzuetan hartzen dira (osokoan eta tokiko gobernu batzarrean) eta idazkariaren lana da organo horretan hartzen diren erabakien fede ematea; erabaki horiek hor hartu direla ziurtatzea. Bestea da udal jarduera osoa legediari egokitzen dela bermatzea. Aldi berean, baina, udal honetan arlo bakoitzaren erantzukizuna hainbat teknikariren eskuetan dago, eta badauka, baita ere, euskarri administratibo inportantea. Idazkariak ezin du jarduera guztiaren zaintza osoa eraman. Baina, osotasunean, jarduera eta erantzukizuna, azkenean, idazkariarena da.

Halako kargu garrantzitsu baterako ze ikasketa behar da?



Iñigo Garitano. | U.M.

"Idazkariaren lana da fede publikoa ematea eta legea bermatzea"

"Azken hogeitaka urtean darama hutsik Arrasateko lanpostuak"

Zuzenbidean lizentziaduna izatea. Idazkari lanpostuak Udaletan habilitazio nazionaleko funtzionarioei gordeta daude, oposizio bidez hartzen da lanpostua jabegoan. Gertatzen dena da lehiaketa horietan hainbat idazkaritza, Arrasatekoa, adibidez, hutsik daudela. Urtero deitzen da lehiaketa, baina ez dator inor. Eta, hutsik jarraitzen duten bitartean, Udalak egiten duena da lanpostuok modu behin-behinekoan bete. Nire kasuan, izendatu naute halabeharrezko izaerarekin. Baina urteroko lehiaketetan aurkeztuz gero habilitazio nazionaleko funtzionario bat, hark beteko luke lanpostua. Azken 20taka urtean daramа hutsik lanpostuak Arrasaten, eta egon dira behin-behinerako izaerarekin.

Hortaz, alkatearen ostean zeu zara Arrasateko Udalean inportanteena? Edo, behintzat, ezinbestekoena?

Inportanteena beti alkatea da, alkatea eta Udal Gobernu Taldea. Erabaki nagusiak hor hartzen direlako eta gero osokoan, jakina. Egunerokotasunean, berriz, alkatea da Udaleko azken burua. Ezinbestekoa... neurri batean. Osokoetan eta tokiko gobernu batzarretan idazkariak beti egon behar izaten du, fede publikoa eman behar duelako. Eta egunerokotasunean ere idazkariaren presentzia beharrezkoa da.

Indartsu hasi behar duzu lanpostuan, aurten hauteskundeak dira...

Bai, eta udal hauteskundeak udal baten bereziak dira. Horrek aparteko lana dakar. Antzuolan bizi izan nuen hori; hala ere, aldea izango da tamainan. Baina ez nau kezkatzen.

Hasi da hauteskunde prozesua?

Ez, laster hasiko da, baina oraindik ez. Irekita dagoena da atzerritarrak (espainolak ez diren europarrak edo Espainiak hainbat herrialderekin akordioa dueneko herritarrak) erroldan sartzeko epea. Urtarrilaren 15era arte zen epea eta 25era arte luzatu da. Herritar horiek eskubidea dute erroldan sartzea eskatzeko.

Bergarakoa izan arren, Arrasaten zure txokoa eginda duzu? Gustura zabiltza?

Nik hemengoa lana kontsideratzen dut, eta, egia esan, Arrasaten ez dut bizitzarik egiten. Baina gustura nago. Udaletxea ezagutzen dut. Eta udaletxetik kanpoko jende asko ezagutu dut 13 urtean, eta jende askorekin harremana izateko bidea eman dute Gizarte Zerbitzuek: elkarteak, jende nagusia, erretiratuak, egoitzarekin lotutakoak... Gustura nago.

Besterik gura baduzu gaineratu...

Orain kokatzen nabilela toki berrian, baina hasteko gogoarekin nago.

Estreinatu dute egoitza AED eta Ekin elkarteek

Danborradako materiala jasotzen zen lekuan daude, lehengo egoitzatik oso gertu

U.M. | ARRASATE

Kalea lehengo bera da: Pablo Uranga; baina lokala da desberdina, SUDCen orain arteko lokala egokitu eta hantxe hasi dira-eta lanean AED eta Ekin Emakumeak elkarteak.

Leku aldaketa egin dute, asteon egokitzapen lan batzuk falta zaizkie, baina lokal berrian dihardute lanean bi elkarteek. Beraz, aurrerantzean bertara joan behar da eurekin egoteko, danborradako materiala jasotzen zen lokalera, alegia. "Bide batez, eskerrak eman gura dizkiegu udal brigadako langileei, egiten dabiltzan lanarengatik", adierazi du Itxaro Artolak, AEDko dinamizatzaileak.

Euskararen erabilera

Bestalde, martitzenerako, hilak 25, hitzordua egin dute: *Zergatik ez dugu euskaldunok euskaraz egiten?* izenburuarekin, Arrasaten euskararen erabilerari buruzko ikerketa aurkeztuko dute, 19:00etan, Jokin Zaitegi aretoan.

Jokin Zaitegi lehiaketa

39 lan aurkeztu dituzte Mario Vargas Llosaren liburua itzultzeko lehiaketara: "Inoiz baino gehiago; parte-hartze handia espero genuen jatorrizko hizkuntza gaztelania delako, baina bikoiztu eta ia hirukoiztu egin da iazko parte-hartzea", dio Itxaro Artolak, AEDko dinamizatzaileak.

Itxaro Artola eta Maite Agirre, bulego berrian lanean. | U.M.

OHARRAK

KONPARTSA TXIKIA

1.270 zenbakia da Konpartsa Txikiaren egutegiko zozketako zenbaki irabazlea. Saria: Zumaiako Zelai talasoterapia zentroan gaua, tratamendua, zirkuitua, afaria eta gosaria, bi pertsonarendako. Zenbaki hori duenak hona dei dezala: 655 71 89 38.

TAI TXI ESKOLAK

Otsailaren 2an hasiko dituzte tai txi eskolak, astelehen eta eguaztenetan, 20:15etik 21:15era, Saioa gimnasioan. Izena emateko: 943 79 72 16 (gimnasioa) eta 679 64 24 91 (Rafael).

ARRASATE PILOTA TALDEA

Arrasate Pilota Taldeak zozketatu dituen bi bisiguak 186 zenbakia duenarendako dira. Izan ere, horiexek dira asteleheneko ONCEko zozketan saritua izan zen zenbakiaren azken lau digituak.

NIRE USTEZ

ENEKO BARBERENA

Kamisa Azulak

Zelako zalaparta Errealeko zortzi futbolarik babesa eman ziotelako dispertsioaren aurkako martxa bati!Parlamentuak ere kritikatu izan du dispertsioa eta! Gainera, milaka lagun elkartu ziren Bilbon urtarrilaren 8an lelo berdinaren magalean, azken urteotako manifestazio handienean. Epaileek eta Herrizaingo Sailak baimendutako martxa zen.

Horrenbestez, non dago arazoa? Iker Casillasek Espainiako ultra-eskuinak bultzatutako *Manifiesto por la lengua común* izenpetu zuen. Vargas Llosa, Miguel Delibes, Perez Reverte, PPko hainbat buruzagi, hainbat hedabide atzerakoi... Wikipedian irakur daitezke sinatzaile denak, baton batek interesa badu. Eta, egon al zen arazorik Casillasekin? Bat ere ez. Atera al zuen Marcak erreportaje inzendiariorik? Ez. Real Madrileko presidenteak kritikatu al zuen atezain ezaguna? Ez.

Orduan zergatik ez babestu zure jokalariak Jokin Aperribay? Ez al zenien inplizituko arrazoia eman jokalariak kritikatu zituztenei zure agerraldiarekin? Marcari tanto hori ematea ere...

"Has gaitezen pentsamenduaren Fronte Popularra antolatzen"

Pentsamenduaren kamisa azulak kalean dabiltza, ezein disidentzia ideologiko gaztigatzen. Moroak besterik ez gara behelainopean eta oraindik ez dugu hori asumitu. Brigada Internazionalak bidean egon daitezke, baina has gaitezen pentsamenduaren Fronte Popularra antolatzen.

'Auzolana herrira': ikasleen irudimena landuz, natura artelan bihurtu eta erakutsi

Proiektuaren lehen saioa egin zuten atzo Institutuko batxilergo artistikoko ikasleek, Santa Barbaran

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Atzo ekimen berri baten lekuko izan zen Santa Barbara parkea. Garaion naturarteak gidatzen duen *Auzolana herrira* ekimenaren lehen saioa izan zen: 16 eta 18 urte arteko batxilergoko ikasleei zuzenduta dago. Ikasleak eurak dira protagonista: eurek diseinatzen dute natura elementuak erabiliz egin gura duten artelana eta noski, ideiei forma ematea ere euren eginkizuna da.

Ekimenak Debagoiena osoa bisitatuko du. 15 artelan inguru egitea pentsatu dute, eta auzolana eta natura dira proiektuaren ardatzak. Apirilera arte luzatuko da ekimena bailara osoko ikastetxe ezberdinetan. Datorren astean, esaterako, Bergaran eta Oñatin izango dira.

Ikasleek naturako elementuak izan zituzten lehengai artelana egiteko. | J.B.

Lehena: 'Herensugetik sura'

Bada, atzo izan zen lehen saioa. Eskolan ideia diseinatu ostean, goizean goiz joan ziren Santa Barbara parkera Arrasate Instituturko batxilergo artistikoko ikasleak. Artelanerako materiala batzen hasi ziren lehendabizi. Eta, gero, naturak ematen zuenarekin hasi ziren artelana egiten: *Herensugetik sura* jarri diote izena. Santa Barbarako herensugerean ondoan egin dute.

Abstraktua, baina herensugea ei da. Emaitza, gainera, ez da "garrantzitsuena", Amaia Gabilondo Garaion naturartea proiektua bertatik bertara gidatzen ari denaren ustez: "Emaitza bera baino, artelana egiteko prozesua da helburua, eta helburu hori bete dugu". Pozik zegoen lehen saioaren ostean: "Ikasle guztiek hartu dute parte, oso fin ibili dira. Burua eta eskuak erabiltzen ikasi dute eta elkarlanean aritu dira; nik uste dut gustura ibili direla". Amaia Gabilondorekin batera ikasleen dinamizatzaile lanetan diharduen Usoa Agirrezabalak ere balorazio positiboa egin zuen ekimenaren estreinaldiaren egunaz: "Pozik gaude; ikasleek elkarlanean gustura aritu direla esango nuke".

"Ekimen ezberdina da"

Bada, ikasleek ekimena gustuko izan dutela dirudi. Atzokoan parte hartu zuen Itsaso Pol ikasleak honakoa adierazi zuen: "8:30ean heldu gara eta lehendabizi lekua aztertu dugu klasean adostu duguna nola aplikatu jakiteko. Gero materiala batzen hasi gara eta taldetan banatuz herensugea egiten hasi gara". Azken emaitzarekin gustura zegoen Pol: "Zuhaitzean sua irudikatzea kostatu zaigu baina gustura gaude".

Horrez gain, klasetik irteteko aukera izatea oso ondo ikusi dute: "Ekimen ezberdina da, ez da betiko hitzaldi bat. Ideiak praktikan jartzeko aukera ematen dizu eta elkarlanean aritzeko ere bai. Gainera, herriarendako ere interesgarria da betiko lekuetan zerbait ezberdina ikustea", gaineratu zuen ikasleak. Hurrengo geltokiak, Bergara eta Oñati.

Meatzerreka auzoko San Baleixo jaiak datorren asteburuan

Hilaren 28, 29 eta 30ean San Baleixo jaiak ospatuko dituzte Meatzerrekan. Aurten 30 urte beteko ditu mus txapelketak: Meatzerreka elkartean izango da, hilaren 29ean, 17:00etatik aurrera. Txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago eman behar da izena, eta bikote bakoitzak 25 euro ordaindu beharko du. Bestalde, hainbat ekintza izango dira: ume eta gazteendako jolasak, Gorritiren eskutik pottokak eta Txikitxu-Arrostaitz taldearen dantza saioa, besteak beste.

Okendoko ludotekak zortzi urte bete dituela ospatuko du gaur

Okendoko ludotekak zortzi urte bete ditu dagoeneko eta urteurrena ospatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte gaurko: ludotekako bazkide diren guztiek gozatu eta ondo pasatzeko aukera izango dute. 17:00etan irekiko da ludoteka eta beste ludoteketatik datozen haurrekin elkartu ostean, 18:00etan *Kili-kontuak* ipuinak entzungo dituzte. Ospakizunekin amaitzeko, merienda egingo dute, 18:30ean.

Roman Martinez | Besaide Mendi Elkarteko presidentea

"Ekonomikoki elkartea ondo dago; gazteak erakartzea da erronka"

- Besaideko bazkideek dagoeneko etxean dute 2011ko egitaraua
- Iaz Besaideren kirol jardueretan 1.488 plaza bete ziren

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Besade Mendi Elkarteak batzar orokorra egin zuen atzo; eta hitzordu horren bueltan izan gara Roman Martinezekin, Besaideko presidentearekin. Iazko urtearen balorazioa egin digu eta, besteak beste, aurtengo egitasmoen eta elkartearen erronken gainean egin dugu berba.

Neguan murgilduta, eskiko irteeretan buru-belarri zabiltzate.

Bai, halaxe da. Datozen hilabeteotarako mendiko eskiko bost irteera prestatu ditugu, hilero bat; pena da, elur gutxi zegoela -eta, prestatuta geneukan irteera bertan behera geratu zen. Horrekin batera, eski alpinoa egiteko irteerak, Formigalera eta Aste Santuan Alpeetara orain arte moduan antolatuko ditugu.

Mendiko eskia indar handia hartzen dabil, baita txapelketetan ere.

Bai, geroago eta jende gehiago dabil kirol modalitate horretan. Gure eskaintza ez dago txapelketetara bideratuta, eta bai kirol hori ahalik eta jende gehienen eskura jartzera.

Euskal Herriko mendietan zehar egiten dituzuen irteerak direla-eta. Aurten Besaiderekin Bizkaia ezagutu ahal izango da ondo.

Domeketan egiten dira irteera horiek, hilean behin. Aurten, Ondarroan hasita etapaz etapa Muskizeraino iritsiko gara. Sei etapa izango dira, batez beste 16-18 kilometrokoak, eta Bizkaiko paraje eder asko ezagutu ahal izango dira. Horrekin batera, mendikate esanguratsuetara ere izango dira irteerak, asteburuko irteerak, Anayetera (ekainak 4 eta 5) eta Arletera (irailak 24 eta 25).

Egutegiko hitzorduez gain, helburu zehatzak dituzue elkartean.

Arrasateko bide zaharrak errekuperatzeko lanekin jarraitzen dugu, Udalarekin elkarlanean. Bide horiek ondo identifikatu, garbitu, eta markatzen baditugu, Arrasatek aisialdirako beste aukera bat izango du; izan ere, Arrasateko inguruetan bazter eta txoko politak daude oinez ibiltzeko.



Besaideko presidente Roman Martinez, eguaztenean, egoitza parean. | XABIER URTZELAI

"Leixargarateko aterpea udaberrirako txukun izan nahi dugu"

Horrekin batera, Leixargarateko aterpea konpontzeko proiektuarekin gabiltza, eta udaberrirako txukun egongo dela uste dugu, denondako erabilgarri. Teilatuko teila batzuk aldatu, aterpearen aurrealdea txukundu, barrutik hobeto isolatu eta kanpotik margotu nahi dugu.

Igarri duzue krisialdia?

Orokorrean, mendi elkarte gehienetan bazkide kopuruak behera egin du, %5-edo. Gurean ere azken urteotan beherako joera izan da, baina ez nabarmena. Bestetik, AUKEAk beste sistema bat erabili du kirol elkarteen artean diru-laguntzak banatzeko, eta Besaide ez da irabazten irten. Baina ekonomikoki elkartea ondo dago.

Erronka handia dugu, esaterako, gazteak mendi elkartera erakartzen. Gaztetan mendi taldearekin harremana izaten badute, etorkizunean eurak izango dira irteerak antolatuko dituztenak, elkartea gidatuko dutenak. Eta hor ere baditugu egitasmo batzuk esku artean.

Batzar orokorrean zuzendaritzaren proposamenetako bat izango da bazkideen kuota igotzea.

Bai, eta ez dakigu bazkideek zelan hartuko duten hori. Aspaldi egin ez den gauza bat da, eta bazkide kuota bi euro igotzea proposatuko dugu. Dena dela, ez dugu uste igoera handia denik.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Dublin-Steaua del Grifo	17-1
Fuxxion-Fidel & Discipulos	1-6
Ekaitz-McAwenDauen	4-5
Iriztu-Lasagabaster	2-3
Portaboleiros-Dribling	1-2
Lasagabaster-McAwenDauen	8-3
Betrayer-Iluntz	5-3
Cipris-Abokajarro	1-4

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Lasagabaster	22	9
2	Cipris	21	9
3	Ekaitz	21	9
4	Dribling	19	9
5	Iriztu	18	9
6	McAwenDauen	16	9
7	Abokajarro	14	9
8	Betrayer	12	9
9	Dublin	11	9
10	Iluntz	10	9
11	Portaboleiros	9	9
12	Fidel & Disc.	6	9
13	Fuxxion	3	9
14	Steaua del Grifo	0	9

PARTIDUAK

URTARRILAK 22, ZAPATUA

11:30 Betrayer-Fidel&Disc / **Fuxxion**
12:30 Abokajarro-Fuxxion / **Betrayer**
16:00 McAwenDauen-Steaua / **Lasaga.**
17:00 Lasagabaster-Dribling / **Steaua**

URTARRILAK 23, DOMEKA

11:30 Iriztu-Iluntz / **Dribling**
12:30 McAwenDauen-Dribling / **Iriztu**
13:30 Dublin-Cipris / **McAwenDauen**

Gogotsu, Gabonetan geldi egon osteam

Joan den astean, 2011ko lehen jardunaldian baieztatu zen Gabonetako atsedenaldia talde askorendako luzeegia izan dela, futbol gosez ziren taldeak. Aipagarria da, baina, sailkapenean aurrean doazenek kale egin zutela urteko lehen jardunaldian.

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

BASATI TABERNA
943 71 17 68

Kooltur Ostegunetan, rocka izango da nagusi Lobo Electrico taldearen eskutik

Laukoteak kontzertua eskainiko du eguaztenean gaztetxean, 22:00etan

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Kooltur Ostegunak ekimenean rock-and-rolla izango da nagusi datorren astean. Tolosako Lobo Electrico taldea izango da eguaztenean, hilak 27, Arrasateko gaztetxeko agertokira igoko dena. 22:00etan hasiko da kontzertua.

Urteak daramatza Lobo Electricok musika egiten, 1999an sortu zen-eta. Partaidetako batzuek 80ko eta 90eko hamarkadetan Ruido de Rabia taldean jo zuten. Hain justu ere, Shanti Iribar abeslariak (*Dr. Magma*), Jorge Sanz baxu-jotzaileak (*Perrolobo*), Iker Lopez gitarristak (*Iki Peligro*) eta Iñaki Alberdi bateria-jotzaileak sortu zuten taldea. 2000ko abenduaren 23an eman zuten lehen kontzertua. Urtebete inguru handik eta hemendik ibili ostean, Iñaki Alberdik taldea utzi eta haren ordez Lander Zabaltza sartu zen.

Lobo Electrico talde tolosarraren partaideak. | KOOLTUR EKINTZA

'¿Has visto al lobo eléctrico?'

2002ko urtarrilean lehen grabazioa egin zuten, *Oztopo guztien gainetik Bonberenea* disko bildumarako. Handik bi urtera, Mikel Biffsen laguntzaz, single bat grabatu zuten, *El lado salvaje del corazón* eta *Demonios sofisticados* abestiak jasotzen zituena. Urte berean, 2004ko udan, *¿Has visto al lobo eléctrico?* izeneko lehen lan luzea grabatu zuten, Karlos Osinagaren gidaritzapean.

Esandako diskoa kaleratu ostean kontzertu asko eman zituzten; tartean, Japoniatik hamar eguneko biratxoa egin zuten, eta Madril, Bartzelona eta Zaragozan ere eskaini zituzten kontzertuak.

Iñaki Guanche

2005eko udazkenean, baterian aldaketak egon ziren ostera ere. Lander Zabaltzak taldea utzi zuen eta haren ordez Iñaki Guanche hasi zen bateria jotzen. Euskal Herriko rock talde askotan ibilitakoa zen Guanche.

Ordutik hona taldeak ez du atsedenik hartu. 2008an, *Fantasma eta Luna roja* abestiekin binilo-single bat kaleratu zuten; eta joan den urteko irailean, *Artefactos mágicos* izeneko bigarren lan luzea argitaratu zuten.

Eguaztenean eman behar duten emanaldian azken lan horren kantuak eta orain arte egindakoak entzun ahal izango dituzte gaztetxera joaten direnek.

Saizarbitoriaren 'Egunero hasten delako' eleberria aztertuko dute, Literatura Solasaldietan

Eguazten arratsaldean egingo dute euskarazko lehenengo solasaldia, Kulturaten

M.B. | ARRASATE

Udal Liburutegiak antolatuta, Literatura Solasaldien barruan Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* izeneko eleberriaz jardungo dute eguaztenean, urtarrilak 26, Kulturaten. Esandako solasaldiak ordu bi iraungo du; hain justu, 18:30etik 20:30era bitartean.

Euskarazko lehen solasaldia izango da Saizarbitoriarena. Hilaren 18an hasi ziren Literatura Solasaldiak egiten; Literaturako Nobel saria jaso berri duen Mario Vargas Llosaren *La tía julia y el escribidor* lana aztertu zuten bilkura hartan. Ekainera arte 12 egingo dituzte, hilero bi, bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz.

Mikel Aierbe koordinatzailea

Datorren asteko batzarrean Mikel Aierbe arduratuko da koordinatzaile lanak egiteaz. Gaztelaniazkoena, ostera, Rikardo Arregik koordinatuko ditu.

Solasaldien gaineko informazio gehiago nahi dutenek *www.arrasatekoudalbiblioteka.blogspot.com* helbidean topatuko dute. Telefonoz ere jasoko dute, 943 25 20 25 zenbakian.

Otsailaren 4a baino lehen aurkeztu behar dira lanak Arrasate Literatur Lehiaketan

AEDk antolatutako Arrasate Literatur Lehiaketarako lanak otsailaren 4a baino lehen aurkeztu behar dira. Interesatuek euskara elkartearen egoitzara jo behar dute (Pablo Uranga 6, behea). Haur eta gaztetxoen artean irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz urtero antolatzen duen lehiaketa da hori; aurtengoa 24. aldia da. Lehiaketa lau kategoriatan dago banatuta: hain justu ere, ipuina, poesia, bertso-paperak eta komikiak. Irabazleak apirilaren 14an egingo den ekitaldian jakinaraziko dira.

Goiena telebista ikusten ez baduzu, berriro sintonizatu

Hainbat aldaketa egin ditugu Muruko antenan; hori dela eta, baliteke Goiena telebista ikusten zenuten hainbat etxetan orain ez ikustea.

Ondorengo herrietan bakarrik dute eragina:
Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio eta Oñatin.

Kasu honetan, zure telebista berriro sintonizatu beharko duzu. Hau da, zure telebistak berriro bilatu beharko du automatikoki (edo bestela zu zeuk eskuz) Goiena telebista.

Berriz sintonizatu, baldin-eta:
· Aipatutako herriren batean bizi bazara.
· Telebista LTD bitartez ikusten baduzu.
· Orain arte Goiena telebista ikusi baduzu, baina orain ikusten ez baduzu.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Irizar etxeko horma botatzen asteon. | MONIKA BELASTEGI

Irizar inguratzeko itxitura berria jarriko dute

- Altzairuzkoa jarriko dute, oraingoaren ordez, etxea berritzeko lanen barruan
- Otsail bukaerarako lan guztiak bukatuta egongo dira

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Irizar etxea zaharberritzeko lanak aurrera doaz. Dagoeneko "akaberekin" dihardute: "Lixatze eta bernizatze lanekin, argiteriako luminariak jartzen...", Zetabi Arkitektura Bulegoko kide Xabi Zubiak azaldu duen moduan. Hain justu, bulego hori da jauregia zaharberritzeko proiektua egin duena, eta baita obraren zuzendaritza daroana ere. Bada, hori eraikinari dagokionez, baina kanpoko hirigintza lanak egitea ere falta da, eta baita etxea eta haren lorategia inguratuko dituen itxitura berria ere.

Horrekin guztiarekin, lan guztiak, etxe barruko zein kanpokoak, otsail bukaerarako bukatuta egongo direla aurreratu du Agurne Barruso alkateak.

Itxitura berria

Eraikinaren kanpoko aldean egingo diren lanei dagokienez, bi dira nagusiak: batetik, etxea eta haren lorategia inguratzen dituen itxitura berria egingo da. Gaur egun dagoen horma bota egingo dute eta Jon Muniategiandikoetxea bergararrak diharduen Vaumm arkitektura estudioak diseinatutakoa jarriko dute. *Corten* altzairuz egindako xaflek osatuko dute hesia. Alkateak azaldu duenez, Irizar etxeko labirinto itxurako lorategi zatia lorategi historikoa da, eta, babes berezia duenez, horren arabera egin da itxitura.

Itxitura horrek lorategiaren izaera gordeko du, gaur egungo erabilerara egokituta. Hala, lorategi historikoaren zatiari dagokionez, *corten* altzairuz egindako xaflek inguratuko dute, lorategiaren hasierako izaera pribatua adieraziz, eta xaflen artean zirrikitua egongo da lorategia ikusi ahal izateko.

Labirintotik aldendu ahala, xaflen arteko tartea handitzen joango da, eta Irala kalera ematen duen aldean lorategia erabat zabalik egongo da, Irala eta Irizar kaleekin integratzeko.

Kanpoko aldean egingo den bigarren lana da azpiegitura berriak sartzearekin batera, zorua egokitzea Irizar eta Irala kaleen arteko bidegurutzean hasi eta Gaspar pareraino. Modu horretan batasuna eman nahi zaio inguruneari.

Jauregiko lanak

Bigarren E Planaren barruan egiten dihardu Udalak lanok, eta, behin bukatuta, hezkuntzara bideratuko du. Hau da, Helduen Heziketa Iraunkorra (lehen solairuan), Udal Euskaltegia (2. solairuan eta KZgunea 3. solairuan) hartuko ditu Irizar jauregiak.

Eraberritze lan sakona egin dute Irizarren, eta, etxearen jatorrizko izaera mantenduz, gaurko beharretara egokitu dute, irisgarritasuna erabat bermatuta. Hain zuzen, irisgarritasunari dagokionez, aipatzekoa da sarrera berria zabaldu dutela, batik bat mugikortasun arazoa dutenendako –Barrenkalea 35 eraikinaren eta Irizar etxearen artean–, zuzenean igogailura iristeko.

Teilatupean egurra bistan. | M.B.

Igogailua eskailera-begian. | M.B.

Sarrera berria. | M.B.

Miguel Altunako ikasleak Bilboko Burtsan izan dira

Miguel Altuna ikastetxeko Administrazio eta Finantzak zikloko 2. mailako ikasleak Bilbon izan ziren aurreko egubakoitzean. Alde batetik, Burtsaren funtzionamendua bertatik bertara ezagutzera joan ziren. Bestetik, Bilboko Lan Ekintza erakundeak enplegu eta enpresen sustapen arloan martxan dituen ekimen ezberdinak ere ezagutu ahal izan zituzten.

MIGUEL ALTUNA

Luis Mari Gutierrez, Iñigo Olañeta eta Jesus Mari Elortza auzo-alkatea. | E.M.

Mari Justaren jaitsierarekin hasiko dira gaur Uberako jaiak

Juan Martin Elexpuruk irakurriko du pregoia

EDU MENDIBIL | BERGARA

Mari Justa Beiztegi auzotar ospetsua (1884-1976) omendu nahi izan dute uberarrek eta aurrerantzean hark emango die hasiera San Paulo jaiei. Gaur, egubakoitza, frontoian egingo dute Mari Justaren jaitsiera jaiei hasiera emateko. Juan Martin Elexpuruk irakurriko du pregoia.

Auzoari ekarpena

Oinordekorik ez zuenez, Mari Justak hiru milioi pezeta inguru utzi zizkion Uberari hainbat lan egiteko, tartean San Paulo eliza berritzeko eta bertan erloju berria jartzeko. Izan ere, Mari Justaren nahia hauxe zen: bere baserritik, Idarraga Azpikoa baserritik, elizako kanpai hotsak entzun ahal izatea. Luis Mari Gutierrez, Iñigo Olañeta eta Jesus Mari Elortza auzotarrek esan digutenez, oso emakume ezaguna izan zen Mari Justa Beiztegi, Uberan zein inguruko herrietan. Bihar, zapatua, eguerdian salda, txistorra eta sagardo dastaketa izango da; herritarrei gonbidapena egin diete antolatzaileek.

Arantzazu Loidi | Berdintasun teknikaria

"Herrian genero ikuspegia txertatzeko beharra dago"

Udalak iaz maiatzean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun plana onartu zuen; agintaldiko lehentasunetako bat da Udal Gobernuarentzat

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Berdintasun Planaren lehen urrats moduan diagnostikoa egin duzue. Nola dago Bergara berdintasun arloan?

Diagnostikoak agerian laga du Udaleko jardueretan eta herri mailan ere genero ikuspegia txertatzeko premia. Beharrezkoa da Udaleko politikariek eta teknikariek berdintasun-defizitak non dauden identifikatzea eta horrek ekiditeko neurriak hartzea arloz arlo, hainbat eremutan gai horrekiko datuak eta informazioa falta baitira.

Eta zein dira antzeman diren gabezia nabarmenenak?

Hainbat. Komunikazioari dagokionez, bai hizkuntza aldetik (euskaraz zein gaztelaniaz), baita irudien aldetik. Esaterako, sarritan gizonezkoak dira erreferentziazko subjektuak; emakumeak, aldiz, menpeko subjektu modura agertzen dira; arlo askotariko jardueren planifikazioan eta garatzerakoan orokorrean ez da genero ikuspegia kontuan hartzen; Udaleko erabaki-organoetan, batzordeetan, ez dago parekidetasunik emakume eta gizonen arteko partaidetzan; presentziari dagokionez, orokorrean gizonezkoek egindakoa bistaratzen da, ez da ezagutzen gaur egun zein herriaren historian emakumeek egindako ekarpenik. Gainera, emakumeek egiten dituzten lanei (ordaindutakoei zein ordaindu gabekoei) balio sozial eta ekonomiko handiagoa emateko beharra dago; lana eta bizitza pertsonala uztartzeko, eta familiaren zaintza lanetan, emakumeen eta gizonezkoen ardura banaketaren inguruan, bateragarritasun errealaren kultura zabaltzeko premia dago, baita erantzunkidetasunarena ere; eta emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, aurre hartzeko eta arreta hobetzeko premia ere ikusi da.

Nola esku hartuko da arlo horretan?

Planaren ardatzetako bat da. Giza eskubideen urraketa larria eta onartezina da eta desagerrarazteko ezinbestekoa da identifikatzea zeintzuk diren indarkeria bultzatzen duten faktoreak, horiek aldatzeko. Aldi berean, arreta hobetzeko udal protokoloa egingo dugu.

Arantzazu Loidi, bulegoan. | GOIENA

"Genero indarkeriari aurre egiteko udal protokoloa egingo dugu"

Orain arte, batik bat, Udal barruan egin duzue lan.

Planak arrakasta izan dezan, sail guztiek dagokien lana bere gain hartu behar dute. Horretarako, genero-ikuspegiarekin lan egiteko 36 udal-langilek eta 12 ordezkari politikok formazioa jaso dute. Bestetik, teknikari bakoitzari bere alorreko diagnostikoa eta dagozkion ekintzak ezagutzera eman zaizkio, ondoren partekatu eta kontrastatzeko.

2010erako aurreikusten ziren esku-hartzeak garatzeari ekin diogu. Besteak beste, plana jendarteratzeko ekimenak gertatzen aritu gara; hain zuzen ere, arlo bakoitzaren inguruan diagnostikoak esaten duena eta proposatzen diren esku-hartzeekin arloz arloko liburuxkak gertatu ditugu, eta laster kaleratuko ditugu; eta enplegu arloan, prestakuntza ekintzetan emakumeen presentzia sustatzeko sentsibilizazio-lanak ere egin dira.

Bestalde, 2010erako aurreikusten ez ziren beste zenbait ekintzarekin ere hasi gara: hizkuntza -irizpideak lantzen hasi gara; kultura arloan, dirulaguntzetarako oinarrietan eta eskaera-orrietan genero-ikuspegia txertatzeko egin beharreko egokitzapenak egin dira; eta hezkuntza arloan, berdintasunaren eta hezkidetzaren gaia hezkuntzako eragileekin lantzeko, ikastetxeei elkarlanean aritzea proposatu diegu, eta haien adostasuna jaso dugu.

Aurrera begira ze lan dituzue?

Asko dira; besteak beste, herriko gizarte eragile, elkarte, erakunde eta herritarrei diagnostikoak eta plana arlo bakoitzari lotutako informazioa euren artean zabaltzea, kontrastatzea eta elkar lanean aritzeko bideak jartzea eta Emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko Udal Protokoloa egitea.

Martitzenean komunikabide aurrean azaldutako zinegotziak. | E.M.

Permuta lehenbailehen egiteko eskatu diote Diputazioari

EDU MENDIBIL | BERGARA

Errege Seminarioaren eta Arrizuriagaren arteko permuta dela eta, Bergarako ezker abertzaleak, Aralarrek, PSE-EEk eta EAk Diputazioari permuta lehenbailehen egiteko eskatu diote, Bergarako Udalak denboraz planifikazioa egin ahal izateko.

Diputazioak permuta 2011ko irailera arte atzeratzea proposatu zuen eta Bergarako udalbatza horren kontra azaldu zen: ezker abertzaleak, Aralarrek, PSE-EEk eta EAk bat egin zuten eta Batzar Nagusietara bideratu zuten gaia, eta permuta iraila baino lehen egiteko eskatu. Joan den abenduan, baina, osoko bilkurak lehenbizi eta Batzar Nagusiek ondoren hartutako erabakiarekin bat ez egitea erabaki zuen Diputazioak.

Errespetu falta Bergarari

Agurne Barruso alkateak hartu zuen hitza batutako alderdien izenean. Barrusoren hitzetan, "gehiengo baten iritzia ez dute kontuan hartu eta errespetu falta erakutsi dute gipuzkoarrekiko zein bergararrekiko". Erabakia aldatzeko eskatu diote Diputazioari, permuta aurreratzeko. "Planifikatzeko gaitasuna emango liguke permuta aurreratzeak", gehitu zuen alkateak.

OHARRAK

IRUDI ERLOJU-DENDAKO ZENBAKIA ATERA DA

Gabonetako zozketako zenbaki saritua hauxe da: 3.593.

1956AN JAIOTAKOEK AFARIA EGINGO DUTE

Hilaren 29an egingo dute, Zabalan. 20:00etarako Fraiskozurin egin dute hitzordua, txikiteorako. 21:30ean abiatuko da urbanoa Fraiskozuritik. Dantzaldia ere egongo da. Izenematea Zabalan (943 76 42 57), hilaren 25a baino lehen.

ZIKLISMO TALDEA LIZENTZIEKIN HASI DA

Bergarako Txirrindulari Elkarteak urteroko baimenak tramitatzeko epea zabaldu du, hilaren 31 arte. I2 eta Igartua dendetan bete daitezke.

MARIAREN LAGUNDIKO ZENBAKI SARITUA

Holandako eskola batekin elkartrukea egiteko Mariaren Lagundia ikastolak egindako zozketako zenbakia saritua hauxe da: 481. Saria jasotzeko (bi lagunendako afaria Zumelaga jatetxean) ikastolara joan behar da eta horretarako 15 eguneko epea dago.

BEHORRA ETA MOXALA DITU SALTZEKO UDALAK

Udalak behor bat eta haren moxala ditu saltzeko. Interesa duten herritarrek baldintzak eskura dituzte idazkaritzan eta Udaleko webgunean, *www.bergara.net* helbidean. Eskaintzak aurkezteko epea 2011ko urtarrilaren 28ko 13:00etan bukatuko da.

JOXAN
ARRAINDEGIA
Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. *bergara@bergaramargoak.com*

IKER SANCHEZ

Berrizko ziklo-kros proban

Sumofic taldeko txirrindulariak Berrizko ziklo-krosean lehiatu ziren aurreko zapatuan: gazte mailan, Mikel Aristi 4. tokian sailkatu zen eta Hodei Orobengoa (goiko argazkian) hamargarren geratu zen. Kadete mailan, Lokatzako Julen Irizar eta Txomin Larrañaga gaztetxoek hartu zuten parte. Lehenbiziko denboraldia dute ziklo-krosean eta gero eta hobeto moldatzen direla erakutsi zuten biek Berrizko proban.

Txirrindularitzako federatu txartela, urtarrilaren 31ra arte

Txirrindularitza-zaleek aukera daukate urtarrilaren 31ra arte federatu txartela egiteko. Nazional mailako txartelak 100 euro balio du eta autonomikoak, aldiz, 95 euro. Interesatuek Igartua (943 76 11 21) edo i2 (943 76 41 63) dendara jo dezakete. Inprimakiak bertan daude eskuragarri.

Bergarak Donostian, Berion jokatuko du domekan

Ohorezko erregional mailako Bergara futbol taldeak Berio taldeari bisita egingo dio domekan. Partidua 17:30ean jokatuko da. Bergara sailkapeneko seigarren tokian dago eta Oskar Maiztegiren taldeak zortzi partidu darama galtzeke. Zapatuan 4-0 irabazi zioten Oiartzuni, Agorrosinen.

Senior mailako saskibaloi taldea Labegaraietan domeka arratsaldean

Sailkapenean seigarren tokian dira David Urbinaren mutilak

EDU MENDIBIL | BERGARA

Aurreko zapatuan Sustrai Aloña Mendi taldeari erraz nagusitu ondoren (45-74), Soraluce BKE saskibaloi taldeak Eibarko Ruibal Alquiler de Vehiculos taldea hartuko du domeka arratsaldean Labegaraietan, 17:00etan. Teorian, behintzat, partidu erraza izango dute David Urbinaren mutilek, eibartarrak sailkapeneko azken aurreko tokian daude-eta, garaipen bakarrarekin. Etxeko taldeari dagokionez, bergararrak gorako bidean dira joan den asteko garaipenaren ostean; zazpi partidu irabazi eta bost galdu dituzte mahoneroek. 14 talde dira lehian Gipuzkoako bigarren mailan eta Bergara seigarren tokian dago, 19 punturekin. Haien aurretik dira Aluminios Francisco Alberdi (20 puntu), Sustrai Aloña Mendi (21), Easo Zahar eta Leihoak Zast (22na) eta Teklan Laser (23 puntu).

Edozein modutan, etxean ez dabiltza oso fin. Bergaran jokatutako azken bi partiduetan galtzaile atera dira, Aluminios Francisco Alberdi (50-54) eta Leihoak Zast (50-67) taldeen aurka. Hurrengo astean ere etxean jokatuko dute Gabi Jatetxea azkenaren aurka, eta, etxeko bi partidu horiei helduz gero, sailkapeneko aurreko postuetara igo daiteke Urbinaren taldea.

Senior mailan, Bergarak Aloñari irabazi zion zapatuan, 45-74. | J. CALLEJA

Junior mailakoa, bihar

Zapatuan, bestalde, junior mailako mutilen taldeak Easo Haizea taldearen aurka neurtuko ditu indarrak Labegaraietan, 12:45ean. Junior mailako partaidetza ligan zazpi taldek dihardute eta Bergara azken aurreko tokian dago lehenbiziko bi jardunaldien ostean. Joan den aste bukaeran Oiartzunen 67-58 galdu zuen Iker Barberok zuzendutako taldeak. Edozein modutan, itxura polita erakutsi zuen Soraluce BKEk liderraren kantxan. Zapatuan ere ez dute partidu errazik izango, Donostiako Easo Haizea taldeak, Oiartzunek bezala, jokatutako bi partiduak irabazi dituelako.

Bergarako gainerako taldeek etxetik kanpo jokatuko dute oraingo asteburuan.

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Txotxongilo teknikak ezagutzeko 'Katilukadak' emanaldia dago bihar

Kontakatilu taldeak egitasmo berria aurkeztuko du Zabalotegi aretoan; ikuskizuna 18:00etan hasiko da eta sarrerak hiru euro balio du

MIRIAN BITERI | BERGARA

Txotxongiloak gustuko dituztenek hitzordua dute bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan. 18:00etan hasita, Kontakatilu taldeak *Katilukadak* izeneko emanaldia egingo du han. Sarrerak hiru euro balio du.

Mikel Ibartzabal bergararraren eta Aitor Ormaetxea bizkaitarraren proiektu berria da *Katilukadak*. Ibartzabalek dio familiendako "akzioz beteriko" ikuskizun entretenigarria dela. Txotxongiloak manipulatzeko bost teknika ezberdin erakusten dira bertan, kontakizun berberean hari batekin lotuta: *Katilu* da protagonista, huts egin duen bertsolaria, eta azkenaldian txotxongiloak hartu ditu bizibide.

Txontxongiloak dira *Katalukadak* emanaldiaren protagonistak. | MIKEL IBARTZABAL

Emanaldi didaktikoa

Haren esanetan, "emanaldi didaktikoa da biharkoa. Txotxongiloak erabiltzeko dauden modu ezberdinak azaldu nahi dizkiegu Zabalotegira joaten direnei. Ipuintxoen bidez argi eta garbi bereizten dira dauden teknika ezberdinak". Ibartzabalek eta Ormaetxeak manipulatuko dituzte emanaldian parte hartuko duten txotxongiloak.

Kontakatilu taldeak helburu bikoitza du: batetik, umeei txotxongiloak erabiltzen eta egiten irakastea; eta bestetik, emanaldiak egitea. Bihar aurkeztuko dutena bigarren helburu horren barruan sartuta dago. Ordubete inguru iraungo du eta bigarrenez antzeztuko dute; Ajangizen (Bizkaian) estreinatu zuten.

Askotariko filmak ikusi ahalko dira egunotan

Zinemazaleek lau film dituzte datozen egunotan ikusgai: etzi, domeka, 17:00etan, *Niko eta izarretako bidea* animaziozko filma emango dute Zabalotegi aretoan; eta 19:30ean, Roman Polanski zuzendariaren *El escritor*. Gaztetxeko zineklubaren barruan, egun berean, Mathieu Kassovitz-en *El odio* filma ikusi ahalko da, 18:00etan.

Bestalde, egueneko zineklubean, *La antena* izango da Zabalotegin, 20:30ean. Sarrerak bi euro balio du.

Aranzadiren erakusketa hilaren 30era arte zabalik

Aranzadi ikastolaren 40. urteurrena ospatzeko antolatutako arte erakusketa hilaren 30era arte egongo da zabalik Aroztegi aretoan, honako ordutegian: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara bitartean.

Ikastolarekin lotutako 56 artistaren lanak ikus daitezke han. Irakasle, ikasle eta gurasoek egindako artelanak dira guztiak.

Puntako bertsolariak batuko dira gaur gauean pilotalekuan

Info7 irratiaren aldeko bertso jaialdia antolatu du herritar talde batek

M.B. | BERGARA

Sebastian Lizaso, Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jon Maia eta Aitor Mendiluze bertsolariek saioa eskainiko dute gaur, egubakoitza, gauean, Udal Pilotalekuan. Josu Goikoetxea ibiliko da gai-jartzaile lanak egiten jaialdi horretan.

Sarrerak salgai daude zortzi eurotan herriko honako tokietan: Arrano eta Ariznoa tabernetan eta kultura etxean. Eguaztenera bitartean 100 txartel inguru zituzten salduta herriko hiru toki horietan. Debagoienean barrena ere eros daitezke: Arrasaten, Irati tabernan; Aretxabaletan, Urbaltzen; Eskoriatzan, Inkernun; Oñatin, Arranon; Antzuolan, Larrean; eta Elgetan, Haizean. Betiko moduan, leihatilan ere erosteko aukera izango dute bertsozaleek.

6.245 euro

Esandako bertso emanaldia Info7 irratiaren aldeko kanpainaren harira antolatu da. Internetetik FMrako jauzia dabil egiten eta Bergaran entzun ahal izateko antena jartzekotan dira. Horrek, baina, 6.245 euroko kostua du, eta kopuru horri aurre egin ahal izateko kanpaina abiarazi du herritar talde batek.

Lagundu nahi duten herritarrek jakin dezatela bi bide daudela: antolatzen diren ekimenetan parte hartuz eta bazkide eginez hilean 7 euro ordainduta; Arranon dago horretarako aukera.

Besteak beste, Igor Elortza eta Unai Iturriaga izango dira saioan. | NIKO MORENO

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

Bazkide eta langileekin batera ospatuko du Ulmak 50. urteurrena

Mende erdia ospatzeko askotariko ekitaldiak egingo dituzte urtea bukatu aurretik

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

2011 urte berezia da Ulmarendako. Izan ere, 50. urteurrena beteko du. Hori horrela, urtean zehar, mende erdia ospatzeko, hainbat ekitaldi egingo dituzte, orain arteko bidea gogoratu eta etorkizuna eraikitzen hasteko. Urte garrantzitsua da 50 urteko historian, modu batera edo bestera, Ulmarekin zerikusia izan duten pertsona guztiendako.

Ekonomia eta finantza krisia nagusi den honetan, Ulmaren zati inportante izan diren pertsona guztiei eskerrak emango dizkiete ospakizunetan: egungo langileei eta bezeroei eta Ulma proiektua garatzen lagundu duten guztiei.

Txokolate industriaren baitan

Oñatiko hainbat enpresetan lehenengo greba saiakerak eragiten zituzten gizarte gabezia handiko garaiekin bat eginez, gazte batzuek orduan ekin zioten euren enpresa ibilbideari, Talleres Ignacio Maiztegui izeneko lokal zahar batean. Garai hartan pil-pilean zegoen txokolate industriara zuzendutako mantentze lanak eta lan osagarriak egiteko asmoz hasi ziren. Urte batzuk beranduago, 1961ean, enpresa hura Talleres Ulma SCI kooperatiba bilakatu zen.

Une berean, Forjas de Zubillagako lau langilek sarrailagintza eta osagarrien tailer bat hartu zuten lanean Oñatin jarraitzeko asmoz, aipatu enpresak bere jarduera Azkoitira lekualdatu ondoren. Garai hartan balkoi, metalezko ate eta hainbat produktu forjatu egiten hasi ziren. Pixkanaka enpresa handitzen joan zen eta 1962an ofizialki eratuko zen kooperatiba, Gaitu SCI izenarekin.

Geroago, 1984an, Euskadiko Kutxaren Enpresa Dibisioaren sustapen modura Oiñakar S. Coop. sortu zen, Orga Jasotzaileen Negozioa sustatzeko. MITSUBISHI enpresa japoniarrarekin sinatutako lankidetza hitzarmenari esker abian jarri zen enpresa eta bere jarduerari ekin zion. Enpresa Oñatin kokatzea erabaki zen Chocolates Loyolaren desagertzea konpentsatzeko asmoz. 1987an Oiñakar Oñalan Taldearen partaide izatera pasako da –gerora Ulma Taldea izango dena–, eta kooperatibak bere negozioa zabalduko du Daifuku enpresa japoniarrarekin biltegi automatikoak merkaturatzeko sinatutako lankidetza hitzarmenari esker.Handik aurrera, negozio gehiago sortu zituzten Ulmaren barruan. Egun, zortzi negozio ditu: Ulma Agricola, Ulma Orga Jasotzaileak, Ulma Piping, Ulma Construccion, Ulma Hormigon Polimero, Ulma Packaging, Ulma Handling Systems eta Ulma Conveyor Components, hain zuzen ere.



Ulmaren lehenengo aldamioak Arantzazun 1962. urtean. | ARGAZKILARIA: ULMA

Otadui 3ko eraikina, 1965. urtean.

Inaugurazio ekitaldia. | JOSE LUIS PLAZAOLA

DATUA

1961

URTEA

Ulma taldearen hazia urte hartan erein zuten. Urte hartan sortu zuten Talleres Ignacio Maiztegi S. Coop. lehenengo kooperatiba, txokolate industriaren barruan.

"Ilusio handiarekin"

Hazi hura enpresa talde garrantzitsu bilakatu da egun, nazioarteko esparruan sektore ezberdinetan dabiltzan hainbat negozio batzen dituena. Garai hartan Oñatin izandako lan-baldintza gogorrei eta lana aurkitzeko aukera urriei esker, gazteok euren bideari ekin zioten Arrasaten hasitako kooperatibismo ingurunearen barruan. Laneko egoera zailei irtenbidea emateko gai izan ziren. "Ilusio handia" zuten gizartea aldatzen laguntzeko eta gertuko ingurunea hobetzeko. Orduan zituzten gizartearekiko konpromisoak partekatu zituzten eta kooperatibaren babesean gaur arte iraun dute.

Zailtasunak

Beharrezkoa da beti nondik gatozen gogoratzea, nora goazen jakin dezagun. Premisa horrekin egin zuten lan. 50 urteotan atzera begiratuz gero, Ulmaren ibilbidean zailtasun asko ikus daitezke. Kolpeak sufritu zituzten, baina horietatik guztietatik indartuta atera dira.

Erronka askori egin diete aurre Ulmakoek. 1970eko hamarkadaren hasierako urteetan krisi gogor batek astindu zuen ekonomia, eta eragina izan zuen Euskal Herriko gizartean, eta baita Ulman ere. Aurrerago, 1980-ko hamarkadan euskal industriak birmoldaketa sakona bizi izan zuen, hamarkada erdialdean Ulmaren garai nahasiarekin bat egin zuena.

Enplegu kopuru handiena

Ulmako kolektiboak, langileek eta bazkideek, asko sufritu dute 50 urteotan. Bazkideek proiektu komuna izan dute, eta gai izan dira beti, elkartasunez eta lanaren bidez, sortu izan zaizkien arazoei aurre egiteko, betiere norberaren esfortzua taldearen onurarako bideratuta. Hori da Ulmaren baliabideetako bat.

Izaera ekintzaile eta laguntzaile hari esker, 1990eko hamarkadaren bukaeran Oñatin inoiz egon den enplegu kopuru handiena lortu zen.

Lanarekin eta esfortzuarekin, eta bost hamarkadaren ostean, izaera propioa eman dioten balio kooperatibo batzuk barneratu ditu Ulma Kooperatiba Taldeak.

50 urteko ibilbidean, eta herriko garapenean eta lanaren sorreran izandako garrantzia ikusita, Ulma erreferentzia bilakatu da Oñatin. Besteak beste, ingurunea eta oñatiarren ongizatea hobetzen lagundu du.

Argentinarako materiala batzen hasi dira, berriro, lokalean eta edukiontzi zurian

M.B. | OÑATI

Argentinako elkartasun taldea hasi da berriro ere materiala batzen. Martitzena ezkero zabalik dituzte Bidebarrieta kaleko lokala eta edukiontzi zuria. Hermansoloña taldeko boluntarioak eguaztenero eta eguenero egongo dira materiala batzen, 18:30etik 20:30era arte. Bestalde, atzo, eguena, kargatu zuten Argentinarako edukiontzia Ulman. Laster bidaliko dute Bilboko portura, eta handik Argentinara eroango dute.

Gainera, Ulmako langileek eta bazkideek aukera dute enpresan bertan Argentinarako materiala uzteko; besteak beste, arropak, jostailuak eta eskolarako materiala batuko dituzte hilaren 31ra arte.

Baserrietan sortutako plastikoen lehen bilketa hilaren 25ean egingo dute

M.B. | OÑATI

Debagoieneko Landa Garapen Elkartea baserrietan sortutako plastikoak batzen hasiko da datorren astean; hain zuzen ere, urteko lehen bilketa egingo dute hilaren 25ean. Oñatin lau lekutan utz daitezke plastikoak: Zañartun, Zuazola inguruan; Murgialdain, Asentzio ermita ondoan; Olabarrietako autobus geltokian; eta ETEO atzealdean. Batuko duten plastikoa izango da: siloa eta belar bolak estaltzeko baserritarrek erabiltzen duten plastiko beltza; ortuko lurra estaltzeko plastiko beltza; eta berotegietako plastiko zuria eta beltza.

Hurrengo otsailaren 22an eta martxoaren 22an egingo dituzte.

Donostiako "ekitaldi nazionalerako" autobusak Oñatitik

Gernikako Akordioaren babes taldeak autobusak jarriko ditu Oñatitik. Autobusak 10:15ean aterako dira postetxeko geltokitik, eta txartelak Ona, Oñati, Arrano eta Guria tabernetan eros daitezke. "Ekitaldi nazionala" Donostiako Kursaalean egingo dute zapatuan, hilaren 22an, 12:00etan.

Idurre Elortza | Eskubaloiko senior mailako nesken entrenatzailea

"Bihar, liderraren kontra gure maila erakutsi beharko dugu"

Eskubaloiko senior mailako neskek Jarrilleras taldearen kontra jokatuko dute, 16:00etan, Euskadiko preferente mailako bederatzigarren jardunaldian

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Senior mailako Aloñako neskak sailkapenaren erdian daude, zortzi jardunaldi jokatu ostean. Taldean aurpegi berri asko daude. Idurre Elortza da entrenatzailea, eta harekin egin genuen berba aurreko asteko egubakoitzeko entrenamenduaren aurretik.

Aurpegi berri asko daude taldean.

Bai, hala da. Iazko denboraldian 18 jokalari ginen eta zortzik bakarrik jarraitzen dugu. Jokalari gazteak ditugu. Ni naiz zaharrena eta 23 urte ditut. Jokalari berriei buruz esan behar da aurretik eskubaloian aritutakoak direla, baina utzita zuten.

Zu zeu, gainera, entrenatzaile eta jokalari zara.

Entrenatzaile barik geratzen ginela ikusita, animatu egin nintzen, eta, oraingoz, konpontzen naiz. Egubakoitzetako entrenamenduetan senior mailako mutilen taldeko kide baten laguntza daukat.

Idurre Elortza, Zubikoan. | M.B.

Berrikuntza asko, baina zer moduz moldatu zarete?

Ba, egia esan, nahiko ondo. Ondo hasi genuen txapelketa, eta, hiru partidu jarraian galdu ondoren, aurreko domekan Zarautzen irabazi genuen. Talde gaztea dugu, baina ondo moldatu gara.

Zein da helburua?

Euskadiko preferente mailari eustea. Hemen dago gure lekua, eta, nola edo ala, eutsi egin behar diogu.

Bihar 16:00etan liderraren kontra jokatuko duzue.

Bai, eta hor erakutsi beharko dugu zein den gure benetako maila. Partidua oso zaila da, jokalari indartsuak dituztelako. Baina guk askoz hobeto jokatzen dugu Zubikoan. Harmailetan ez da ikusle askorik egoten, baina askoz lasaiago eta erosoago jokatzen dugu beti.

Aurpegi berriak daude taldean

Aurpegi berriak dira nagusi senior mailako taldean. Ondoko erretratuan, goiko ilaran daude Ane Hernandez, Nerea Maiztegi, Olatz Zabaleta, Rebeka Sanchez, Alaitz Zabaleta eta Idurre Elortza. Behean, Leire Nuñez, Eneritz Urrutia, Maialen Martinez de Zuazo, Ane Barrena eta Ixone Lizarra.

Senior mailako nesken taldeko kideak, entrenamendua hasi aurretik. | M.B.

OHARRAK

IZENEMATEA ZABALIK TXIKI TXOKON

Martxoan eskolan hasi gura duten 2009an eta 2010ean jaiotako umeen izenematea zabalik dute Txiki Txokon. Hilaren 28ra arte eskolako bulegoan egin daiteke matrikula, 10:00etatik 11:00etara, hain zuzen ere.

HITZALDIA

Eibar taldeko koordinatzaile Fran Garagartzak hitzaldia egingo du gaur kultura etxean, 19:00etan. *Gurasoak ere futbol partiduetan jokoaren parte dira* gaiaren gainean egingo die berba Aloña Mendiko jokalarien gurasoei. Hitzaldia gaztelaniaz egingo du.

ATE IREKIAK LUDOTEKAN

Txaloka ludotekak hainbat berrikuntza abian jarriko ditu laster. Horiek erakusteko ate irekiak egingo dituzte hilaren 24an eta 26an, 16:45etik 19:45era.

HITZALDIA ARRANON

Ahaztuak 1936-1977 erakundeko kideek hitzaldia egingo dute gaur Arrano tabernan. *Memoria egin, justizia egin* solasaldia egingo dute, 18:00etan. Bestalde, gauerako iragarrita zegoen afaria eta kantaldia bertan behera utzi dituzte.

ASIS SAREA

Asis sareak bilkura-otoitzaldia egingo du hilaren 27an, 19:30ean. Bidaurretako elizan bilduko dira, eta fedearen gainean egingo dute berba frantziskotarren espiritualtasuna ardatz hartuta.

BETERANUAK

EMAITZAK "B" TALDEA

Sasquatch-Albok	0-4
Kalañatasaray-Lozorromo	2-1
Paketinaikos-Etxaixat	0-1
Jai Ari-Zorrobero	0-11

SAILKAPENA "A" TALDEA

	TALDEA	P	J
1	The Gibel Boys	13	5
2	Xaguxar	10	5
3	Indar 85	9	5
4	Doolygans	9	5
5	Joxely	8	5
6	Gaur Bai	7	5
7	Bundeswehr	5	5
8	Txuskos	4	5
9	Nandrolona	4	5
10	Ankarteko	-3	5

SAILKAPENA "B" TALDEA

	TALDEA	P	J
1	Albok	12	4
2	Kalañatasaray	12	5
3	Zorrobero	10	4
4	Txarrixak	9	4
5	Sasquatch	6	5
6	Lozorromo	4	4
7	Paketinaikos	3	5
8	Etxaixat	3	4
9	Jai Ari	0	5

PARTIDUAK "A" TALDEA

6 JARDUNALDIA

Zapatua 13:00 Dollygans-Xaguxar
Zapatua 14:30 Ankarteko-Gibel Boys
Zapatua 18:30 Joxely-Gaur Bai
Zapatua 20:00 Nandrolona-Bundeswehr
Domeka 13:30: Indar 85-Txuskos

Otsailak 5-6ko aste bukaeran aldaketak

Aste bukaera horretan Aloña Mendiko futbol taldeek hainbat partidu dituzte. Hori horrela, A taldeko bi partidu bakarriko jokatu ahalko dituzte beteranuek. Batzordeak adierazi du, jokatzeke geratzen diren lehiak otsailak 12-13ko aste bukaeran jarriko dituztela.

Lehia gogorrak zapatuan

Xaguxarrek bigarren tokiari eusteko irabazi egin beharko dio laugarren dagoen Doolygans taldeari. Partidu gogorra eta parekatua izango da. Liderrak, The Gibel Boys taldeak, Ankartekoren kontra jokatuko du lehen tokian jarraitzeko helburuarekin. Ankarteko azkena da.

MIREIA BIKUÑA

Ahotsak egitasmoan parte hartu dutenei esker ona

Ahotsak egitasmoan parte hartu duten 60 oñatiarrak omendu zituzten eguaztenean. Herriko euskara *jatorra* berreskuratzeko proiektuan parte hartu duten gehienak kultura etxean batu ziren, egitasmoaren antolatzaileen esker ona jasotzeko. Eurei egindako elkarrizketa batzuen pasarteak erakutsi zituzten. Ahotsak taldeko Kepa Elortza oñatiarrak 56 elkarrizketa grabatu ditu hiru urtean. Egitasmoaren gaineko informazioa *www.ahotsak.com* atarian dago.

KIRKOS
SEXOLOGIA ZENTROA
Sexologoa: Edu Reguero (AEPS 421. zenb.)

> Bikote-terapia
> Gurasoentzako aholkularitza
> Sexuaren eta elkarbizitzaren zailtasunak
> Eiakulazio goiztiarra
> Desira falta
> Inpotentzia
> Baginismoa

Elizkale 13 solairuartea ezk. - 630 287 321
ZUMARRAGA

Kiroldegiak oraindik lan asko izan arren, udazkenean zabalik gura dute

Kudeatze sistemaren gaineko hausnarketa abiarazi dute alderdien artean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Izugarrizko egitura zatia jarri zuten astelehenean kiroldegi berrian: 40 tona pisatzen duen eta 50 metro luze eta 4 metro zabal den burdinazko habea. Zaragozatik ekarri zuten bi zatitan banatuta eta hiru garabi handi erabilita jaso zituzten zatiok. Kiroldegiaren estalkia izango denaren habea da.

Hala, bada, lanak aurrera doaz, nahiz eta hasieran izandako zimentatze arazoen ondorioz hiru bat hilabeteko atzerapena izan eta diru kostua handitu egin den: "Ekain ingururako bukatuta izan beharko lukete, baina arazo haren ondorioz irailean emango digutela eraikina bukatuta esan digute", argitu du Asier Muxikak, Kirol teknikariak. Gainera, arazo hark hasierako proiektuan aldaketak egitera behartu zituen arkitektoak, eta trinketa beharrean "erreferente" izango den rokodromoa izango du.

Kiroldegiari begiratuz gero, badirudi oraindik lan asko dagoela egiteko, baina zailena eginda dagoela dio Muxikak: "Hori diote, behintzat; porlanezko egitura eginda dago eta burdinazkoa ere jartzen dabiltza asteotan. Hala, bulegoak, igerilekua... eginda daude eta egiteko dagoena kantxa eta solariuma dira". Eta behin lan horiek bukatuta, gremioen txanda izango da; iturginak, zoru -jartzaileak, argiketariak... hasiko dira barruko guztia txukuntzen: "Zalantza barik, haiek ere lan handia izango dute".

Astelehenean kiroldegian jarritako egitura zatia, 40 tonako burdinazko habea. | M.A.

Rokodromo garrantzitsua

Kirol teknikariak jakinarazi du hiru atal dituztela kiroldegiko lanek: eraikinaren lanak; ekipamendua; eta kudeaketa. Eta hirurak dituztela abiarazita.

Eraikina Udalaren eskuetara pasatu ondoren, jantzi egin beharko dute –bulegoak, kirol ekipamenduak...–, eta horretarako hilabete pare bat beharko dituzte. Aurretik, baina, material hori erosteko lehiaketa deia egingo dute. Gainera, Debagoieneko eskalada taldearekin elkarlanean dabiltza behar bezalako rokodromoa diseinatu eta egokitzeko: "Trinketaren ordez zer egingo... eta inguruko eskalatzaileengana jo genuen euren iritzia jakiteko. Ganorazko rokodromo baten aldeko apustua egiteko konbentzitu gintuzten". Hala, ia 50 metro luze eta 6 metro garaiera izango du, eta ikasle hasiberrietatik goi mailara arteko Debagoieneko eskalatzaile guztiek izatea lekua da asmoa.

Bideragarritasun plana

Eta behin lan guztiak bukatuta, hirugarren kontua kudeaketa da. Udal ordezkariek hainbat bilera egin dituzte zelako eredua gura den hausnarketa abiaraziz. Gipuzkoako kiroldegi berri askotan enpresa pribatuen esku utzi da zerbitzua, eta hori aztertzen dabiltza. "Oraindik ez dago inolako erabakirik hartuta, baina Udalak ez du ikusten lanpostu publikorik sortzea kiroldegi berri horretan", dio Muxikak. Ondorioz, hainbat enpresari bideragarritasun plana egiteko eskatu diete, kudeaketa nondik nora joan daitekeen jakiteko. Enpresa baten eskuetan uztea erabakiz gero, lehiaketa bidez izendatuko du Udalak.

Euskoskills olinpiada irabazi duen orrazkera. | MIREIA IGNACIO

Mireia Ignacio ile-apaintzaile ikaslea Euskoskills-en garaile

M.A. | ARETXABALETA

Gasteizko Molinuevo ikastetxean ile-apaintzaile ikasketak egiten dabilen Mireia Ignacio 20 urteko aretxabaletarrak Lanbide Heziketako ikastetxeek antolatzen duten Euskoskills txapelketa irabazi du, ile-apainketa sailean. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkaria izango da apirilean Madrilen egingo duten olinpiadan.

Gizonen bizarra txukuntzea

Barakaldon egin zuten Euskoskills txapelketako finala, eta Gasteiz, Zarautz eta Barakaldoko ikastetxeetako ordezkariak elkartu ziren. Fantasiazko orrazkera egiteko eskatu zien epaimahaiak eta aretxabaletarrak egindakoa izan zen onena: "Gainerakoek ileorde asko erabili zituzten, eta, nire ustez, eskuz egindako lana baloratu zuten epaimahaiko kideek", argitu du Ignaciok.

Hurrengo hitzordua Madrilen dauka eta dagoeneko hasi da gertatzen: "Gizonen bizarra txukundu beharko dugula esan digute, eta permanenteak egin. Orain arte bizarrik ez dugu landu, eta horretan gabiltza orain", jakinarazi du. Madrilgo kanporaketa irabaziz gero, Londresen izango den Worldskills olinpiadarako sailkatuko da.

Odol ateratzeak egingo dituzte datozen asteotan

M.A. | ARETXABALETA

Arabako Odol Bankuko kideak gurean izango dira datozen bi asteotan urteko lehen odol ateratzeak egiten. Hona egunak: astelehena, hilak 24; urtarrilak 31; eta otsailak 1. Osasun etxean izango dira, 16:15 eta 20:00ak bitartean.

Aretxabaletan emaitza onak

Odol emaileen elkarteko kideek jakinarazi dute odol behar handia dagoela, "Gabon inguruan gordeta zeukaten asko erabili behar izan dutelako". Gainera, lantegi batzuk itxi izana eta beste batzuetan langile kopurua jaitsi izana igarri egin dute. Hala, bada, aretxabaletarrak animatu gura dituzte datozen hiru egunotan osasun etxera joateko. "Azken odol ateratzeetan, udazkenean egindakoetan, herritar asko hurreratu zen eta oso pozik gaude; ea horrela hasten dugun urtea", dio Ramon Erañak, odol emaileen Aretxabaletako ordezkariak. Hain zuzen, 140 bat lagunek eman zuten odola orduan.

18 urtetik gorakoek

Lehenengoz joanez gero odola ematera, medikuak azterketa egingo dio. Hauek dira emaileek bete beharreko baldintza garrantzitsuenak: 18 urtetik gorakoa eta 66 urtetik beherakoa izatea; gutxienez 50 kilo pisatzea; eta baraurik joan beharrik ez izan arren, gehiegi janda ez joatea.

450 cm^3 ateratzen diote bakoitzari, eta berehala berritzen du gorputzak. Urtean hiru aldiz eman dezakete emakumeek eta lau aldiz gizonek.

NIRE USTEZ

NURIA FERNANDEZ DE ARROIABE

Gure tripezilla baiño harutzau

Egunokaz makiña bat jardun entzutia tokau jaku tabakuaren gaiñeko lege dontsu horren inguruen. Bateko, erretzailliak baztartu egiten dittuela, bezeruak polizia-lanetan hastia eskaketan dauela, multia tabernarixak ordainketia ez dala bidezkua... Besteko, erreten ez dauenak iñoren keiak ez arnasketako eskubidia daukela, hola danon osasunak irebazten dauela... Tira, ez da besterik entzuten!

Bixen bittartien, munduen makiñatxo bat zorigatx dau horratio! Haitiren kasua ekarriko dot, lehenguen leidu neben konfesiño batek ikutu egin nindduen eta. Hamalau urteko neskatilla baten berbak zien: "Mutil batek atzetik etorri eta agua zerrau nusten... Gura auen dana egin eragin ostien, astinddu egin nindduen. Ezaguketan ez nauenez, ez nitzen poliziagana fan, alperrekua izengo zan eta. Bilddurrak nau, atzera beste horrenbeste pasauko ete jaten". Urtebete pasau da lurrikera bilddugarri hak astinddu auenetik, eta, ondio, milloi bat lagunetik gora behin-behiñeko kanpamentuetan dauz bizi izeten, batez be emakuma eta neskatilla haitiarren kalterako. Inddarkerixa sexuala ezkiña danetan dau harein zain: nehikua daue pasiuen, komunera edo ur-billa fatia, baten batek gura dauen dana egin eragitteko.

Halakuen aurrien, daukogunagatik eskerrak emutia akordetan jat niri.

XI. San Kanuto eguna ospatuko dute bihar, ekitaldi asko eginda

- Aurten Bergarako Sustar Kalamu Taldeko kideek hartu dute jaiaren ardura
- Bazkaria Mitarte plazako lokalean izango da eta kontzertuak gaztetxean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Marihuanaren lagunek Kanutoren omenez antolatzen duten jaia izango da bihar gurean: XI. San Kanuto eguna, hain zuzen. Bergarako Sustar Kalamu Taldeak hartu du horren ardura aurten, aurreko taldea nekatuta zegoelako, eta ekitaldi asko iragarri dituzte eguna girotzeko, tartean bazkaria eta kontzertuak.

San Kanutorekin kalejira. | M.A.

100 lagunendako bazkaria

Eguerdi partean (12:00) hasiko dituzte ekitaldiak, etxafuegoak bota eta salda eskainita Azkena tabernan. Reggae musika lagun kalejira egingo dute eta ondoren bazkaltzera joango dira Mitarte plazan dagoen lokalera –Urkulu denda egondakoa–. 100 bat lagunendako babarrunak gertatuko dituztela iragarri dute antolatzaileek. Eta bazkalostea girotzeko jokoak izango dira: mus txapelketa; bolo txapelketa eta sokatira pilotaleku inguruan…

Arratsaldean, ostera, musika izango da protagonista eta Kanuto bera ere bai. Kontzertuak gaztetxean izango dira, eta Aretxabaletako lau talde elkartuko direla iragarri dute; tartean, Crisis, Gazte Iraultza eta Matxinbrada. Hala, bada, azken txanpa girotzen hasteko talde horietako baten emanaldia izango da (18:00) eta gero kalejira egingo dute, San Kanutoren irudia aldean hartuta. Ondoren, jarraipena izango du kontzertuak gaztetxean (20:00), ospakizunez betetako egunari bukaera eman arte.

Euskal Herriko III. mus txapelketa gaur Urbaltz elkartean

Euskal Herriko Mus Federazioak antolatutako txapelketako mus partidak jokatuko dituzte gaur (22:00) Urbaltz elkartean. Izena bertan eman behar dute bikoteek, 20 euro ordainduta.

Gaurko irabazleek herrialdeko kanporaketarako sarrera eskuratuko dute. Euskal Herrian jokatzen dabiltzan III. mus txapelketako irabazleek sari bikainak eskuratuko dituzte: txapela, garaikurra, 3.000 euro eta nazioartera bidaia lau lagunendako.

San Bizente eguna ospatuko dute bihar Areantza auzoan

San Bizente hotza, neguen bihotza; San Bizente bero, negue gero esan eta ospakizuna dute bihar Areantzan. Meza izango da (17:30) San Bizenteri eskainitako ermitan eta joan gura duten guztiak ongietorriak izango direla diote areantzarrek.

Gero, auzoko gizonek elkarrekin afalduko dute Matikua jatetxean. Garai baten etxe baten elkartzen ziren, eta auzoko kontuak eguneratzeko bilera egin: sakristau aldaketa, argindarren kontuak…

Eski irteera egingo du Murrukixok otsailaren 19an

M.A. | ARETXABALETA

Murrukixo Mendizale Elkarteak eski irteera antolatu du otsailaren 19 eta 20rako. Luz Saint-Sauveur aldera joango dira, urtero legez, eta izenemate epea dagoeneko zabalik daukate.

Murrukixok Durana kalean duen egoitzatik pasatu behar dute interesatuek –martitzenetan, 19:00-20:00– edo mezu bat bidali helbide honetara: *murrukixo@euskalerria.org*. Mendizale elkarteko bazkideek 115 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 120 euro (ikasleek, 5 euro gutxiago). Prezio horren barruan sartuko dira autobusa, segurudun forfaita eta egonaldia (afaldu, lo egin eta gosaldu).

Antolatzaileek jakinarazi dute 18 urtetik beherakoek gurasoen baimena aurkeztu beharko dutela joan ahal izateko. Ez hori bakarrik, arduradun lanak egingo dituen nagusi batek joan beharko du eurekin derrigorrez. Eskiekin gustura jarduteko behar beste elur egotea espero dute Murrukixoko kideek.

ARETXABALETAKO
EUSKAL ESKOLA
PUBLIK*A

KURTZEBARRI ESKOLA — 2-12 urte
HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA
Santa Kurtz 19
Tel.: 943 79 00 49
012015aa@hezkuntza.net

KURTZEBARRI BHI — 12-16 urte
DBH
Herriko plaza 1
Tel.: 943 79 57 40
012945aa@hezkuntza.net

BILERA INFORMATIBOAK:
HH eta LHko (2-12 urte)
Urtarrilaren 26an liburutegian
- 18:00etan euskaraz
- 19:00etan gazteleraz

DBHko (2-16 urte)
Urtarrilaren 25ean liburutegian
- 18:00etan euskaraz
- 19:00etan gazteleraz

MATRIKULA EPEA:
URTARRILAREN 31tik OTSAILAREN 11ra

goieskola
debagoieneko euskal eskola publikoa
www.goieskola.net

Amaitzear daude hilerri zatiko bidegorriaren lanak

Bidea margotzea eta seinale bertikalak jartzea bakarrik falta da; datozen egunotan zabalduko dute

Atzo, eguena, bidegorri zati batek zuen itxura. | MIRIAN BITERI

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Bidegorrien erabiltzaileek aspalditik espero duten albistea da honakoa: Eskoriatza-hilerri zatiko lanak amaitzear daude eta datozen egunotan herriko iparraldeko eta hegoaldeko bidegorriak lotuko dituen tartea zabalduko dute. Eskoriatzako udaltzain Ibon Segurak azaldu digu bidegorri zati hori margotzea eta seinale bertikalak eta bestelakoak jartzea baino ez dela falta.

Uste zena baino gehiago atzeratu da esandako obra; 2009ko otsail erdialdean hasi ziren tarte hori egokitzen, eta, hasiera baten, uztailerako amaituta egotea espero zuen Diputazioak. Epeak, baina, luzatu egin dira eta, azkenean, urte erdiko atzerapenarekin zabalduko dute.

Olazartik Intxaurtxuetara

Gainera, lanek gura baino traba gehiago eragin dizkie erabiltzaileei. Sorautzeko tunela zabaltzeko obren ondorioz, Olazarko zubipetik Intxaurtxuetako zubirainoko bidegorri zatia itxi egin behar izan zuten urrian; hasiera baten hiru egunez bakarrik itxita egon behar bazuen ere, esandako bideak oraindik ere moztuta dihardu.

Eskoriatza-hilerria tarteak 300 metroko luzera izango du eta horietatik 200 hilerriaren azpitik doan antzinako trenbide-tuneletik joango dira. Maizcurrena enpresa arduratu da lanez, 797.572 euroren truke.

Arrasatetik Aingeru Guardaraino bidegorritik joatea errealitate izango da laster.

Erabiltzaileak pozik osasun parkearekin

Bidegorriaren lanak amaitzen dituztenean hasiko dira Olazarkoa egiten

M.B. | ESKORIATZA

Pozik daude erabiltzaileak Dorleta auzoko bidegorriaren ondoan nagusiendako dagoen osasun parkearekin. Paseatzen duten bitartean gorputzeko hainbat atal lantzeko aukera ematen duela azpimarratu du, adibidez, Alfonsa Benitez eskoriatzarrak.

Horretarako, hainbat gimnasia aparailu dituzte: goiko gorputz-adarrak lantzeko ariketa trena, pedalak, boeler taula, eskia, metroa, bailea, eskailera eta bolanteak daude, besteak beste.

Bidegorria bukatu ostean

Oraingoz, Dorleta auzokoa dago erabilgarri, baina laster bigarren bat jarriko dute Olazarren. Udaletik jakinarazi digute bidegorriaren lanak amaitu bezain pronto hasiko direla osasun parkea egiten.

Diputazioak eta Udalak sinatutako hitzarmenari esker dabiltza parke horiek egiten. Lan horien aurrekontua 23.388 euro da. Udalak 12.888 euro bideratuko ditu eta gainerakoa Diputazioaren kontu joango da. Parke bietako ekipamenduak 15.046 euroko gastua izango du; zoruaren egokitze lanek, 7.157; eta jarlekuak eta zakarrontziak erosten 1.184 euro erabiliko dituzte.

JOSE LARGO

"Ez dut txarto ikusten; kirola egiteko baldin bada, ondo dagoela iruditzen zait. Nik, dena dela, ez dut uste askorik erabiliko dudanik; osasun arazoak ditut, eta medikuak paseatzeko esan dit".

AURORA IRUZUBIETA

"Oso ondo dago; gainera, bidegorri ondoan jarri dute. Santa Polan ere horrelakoak jarri dituzte eta senarra asko egoten da han; 80 urte ditu eta oso bizkor dago horri esker".

ALFONSA BENITEZ

"Aspaldi ez nintzela etortzen, eta harrituta geratu naiz; asko aldatu da ingurua. Bidegorri ondoan dago, eta, paseatzera zatozela aprobetxatuz, gorputza mugitzeko aukera ematen du".

Iaz Aingeru Guarda ingurunean ibili ziren. | ESKORIATZAKO UDALA

Domekako Zuhaitz Egunean 48 harizti eta lizar landatuko dituzte

M.B. | ESKORIATZA

Badator ostera ere Zuhaitz Eguna; etzi, domeka, egingo dute. Betiko moduan, joan den urtean jaiotako haur bakoitzeko zuhaitz bana landatuko dute; hain justu ere, 48 ume jaio ziren iaz.

Ohiturari eutsiz, Ibarraundi museoan egin dute hitzordua; 10:30ean. Handik, landatuko dituzten zuhaitzak jasotzera joango dira brigadaren biltegira. Ibarraunditik jakinarazi digutenez, hariztiak eta lizarrak landatuko dituzte aurten. Horiek hartu ostean, Dorleta auzorantz abiatuko dira; bidegorriaren lanak direla-eta, inguru horretan hainbat zuhaitz kendu behar izan dira eta han hainbat landatuko dituzte. Aingeru Guardan jartzeko asmoa ere badute.

Ekitaldi irekia

Antolatzaileek gogorarazi dute eguna ez dela iaz jaiotako familiendako bakarrik, eta edonork parte hartu ahal izango duela ekitaldian, aitzurrarekin zuloa eginez eta arbolak landatuz. Guztira, 60 zuhaitz dituzte.

Otsaileko lehen asteburura atzeratu dute eski irteera

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatza kirol elkarteak antolatuta, asteburu honetan Luz Ardidenera joatekoak ziren. Baina eski estazio horretan elur gutxi dagoenez, irteera otsaileko lehen aste bukaerara atzeratzea erabaki dute.

Irteera horretan interesa dutenek Namaste belar-dendan edo 943 71 43 27 telefono zenbakian eman dezakete izena; 55 pertsonarendako lekua dagoela jakinarazi dute.

120 euro

Bidaiak 120 euro balio du. Autobusa, mantenu-erdiko ostatua eta bi egunotako forfaita daude sartuta prezio horren barruan. Bakoitzaren esku geratuko dira zapatuko gosaria eta bazkaria eta domekako bazkaria. Bestalde, eskiatzeko materialik ez dutenek bi egunotarako alokatzeko aukera izango dute han. Baina bakoitzak ordaindu beharko du eski edo snowboard taularen eta boten alokairua.

Eskoriatza kirol elkarteak urtero antolatzen du Luz Ardidenera irteera. Iaz 40 lagun inguru izan ziren horretan.

Hondakinen gaia jorratuko dute datorren asteko eraikuntza azoka iraunkorrean

M.B. | ESKORIATZA

Eraikuntza iraunkorraren III. azoka egingo dute urtarrilaren 29an eta 30ean Udal Pilotalekuan, hondakinen gaiaren inguruan. Aurten, hamar enpresa inguruk parte hartuko dute. Azoka honako ordutegian bisitatu ahalko da: zapatuan, 12:00etatik 14:30era eta 16:30etik 20:00etara; eta domekan, 11:00etatik 14:00etara.

Hondakinei irtenbidea

Zapatuan, hondakinen gaineko hitzaldia egongo da. Azokan parte hartuko duen Gipuzkoa Zero Zabor enpresak egingo du, *Hondakinek badute irtenbidea* lelopean. 18:30ean hasiko da.

Antzuolako gazte taldea Candanchun, 2005ean. | ARROLA

Eski irteera Candanchura: izenematea eguaztenean

Candanchura eskiatzera joateko irteera antolatu du Arrolak otsailaren 4ko eta 5eko aste bukaerarako

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Urteroko ohiturari jarraituz, Urteberri egunean Arrolara igota hasi zuten aurtengo mendiko denboraldia Arrola mendi taldekoek. Urteari begira, baina, beste hamaika ekintza aurreikusi dituzte: eskiatzera irteera, ikastaroak, Antzuolako bira, umeendako irteera... Neguko ekintzen artean ia ohiko bihurtu dena egingo dute otsaileko lehen aste bukaeran: eskiatzera irteera.

Canfranceko aterpetxean

Candanchura eskiatzera joango dira otsailaren 5ean, zapatuan, goizeko seietan Olaran paretik irtenda. Canfranceko Pepito Grillo aterpetxean egingo dute lo eta domekan gosaldu. Afaria alboko jatetxe baten egingo dute eta bazkariak nork bere kontura egin beharko dira.

Prezioak hauek dira: oinarrizkoa (bidaia, lotarako tokia, afaria eta gosaria barne), 30 euro; bi egunerako alpinorako forfaita, 70 euro; eta alpinorako materialaren alokairua, 24 euro. Izena emateko azken eguna datorren eguaztena, urtarrilak 26, izango da. Olaran etxeko 3. gelan egongo dira Arrolako kideak 19:30etik 18:30era. Izena ematerakoan ordaindu behar da, tokia erreserbatu nahi bada. 30 laguneko kopuru mugatua dute, eta, gehiago apuntatuz gero, Arrolako bazkideek dute lehentasuna.

GPS ikastaroa

Bestalde, GPSa erabiltzen ikasteko ikastaroa egingo da Andoainen otsailaren 19an eta 20an. 14 orduko ikastaroa izango da eta Jaime Eguzkitza Gipuzkoako Mendi Federazioko teknikaria izango da irakasle. Ikastaroan izena eman nahi dutenek datozen bi eguaztenetan jo beharko dute Olaranera, Arrolaren bulegora: urtarrilaren 26an eta otsailaren 2an, 19:30etik 20:30era. Federatuek 30 euro ordaindu behar dituzte eta mendiko federatu asegururik ez dutenek, 39.

ARROLAREN 2011KO EKINTZAK

Otsaila 5-6	Candanchura eskiatzera	**Ekaina**	Antzuolako biraren 2. etapa
Otsaila 19-20	GPS ikastaroa	**Ekaina**	Umeendako irteera, Pausokarekin
Martxoa 26-27	Piolet eta kranpoi ikastaroa	**Uztaila**	Pirinioetara irteera
Apirila	Batzar orokorra	**Iraila**	Biraren 3. etapa. Finalista eguna
Maiatza	Antzuolako biraren 1. etapa	**Urria**	Udazkeneko irteera, egun osokoa
Maiatza	Euskal Herriaren erdira irteera	**Azaroa**	Urteko argazkien emanaldia

Mus txapelketako kanporaketak egingo dira aste bukaeran

Txomin Alberdi-Iñaki Agirre eta Xabi Altzelai-Gotzon Gabilondo bikoteak sailkatu ziren herriko mus txapelketako finalerako, hilaren 14an Mox tabernan jokatutako lehen kanporaketan. Bigarren eta hirugarren kanporaketak aste bukaeran jokatuko dira: zapatuan, 16:00etan, Arin jatetxean; eta domekan, 16:30ean, Eperra elkartean.

Antzuolak Mutrikuren kontra jokatuko du zapatuan

Antzuolako erregional mailako mutilek Mutrikun dute 17. jardunaldiko lehia. Zapatuan izango da partidua, 16:00etan. Joan den zapatuan, berriz, Urnieta hartu zuen Antzuolak eta 2-0 irabazi zuten etxeko mutilek. Une honetan bosgarren dago Antzuolako taldea sailkapenean, 29 punturekin. Puntu batera du, seigarren, Zestoako taldea.

Gaur hasiko dute Udaberri txapelketa herriko pilotariek

Gaur, egubakoitza, jokatuko dute Udaberri txapelketako lehenengo faseko lehen partidua Olaldeko paleta jokalariek. Urnietarrak izango dituzte aurrean Iker Manso eta Jon Alberdi pilotariek. Partidua herriko pilotalekuan izango da, 20:00etan. Datorren egubakoitzean ere Antzuolan jokatuko dute, Biarritztarrak klubekoen kontra.

Martitzenean batuko dute baserri inguruetako plastikoa

Zupide azpialdeko aparkalekuan laga beharko da plastikoa urtarrilaren 25ean, martitzena, arratsaldez. Plastiko mota hauek batuko dira: siloa estaltzeko plastiko beltza; belar boletako plastiko beltza; berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko plastiko beltza; eta berotegiko plastiko zuria. Sokarik ez da batuko.

Eskolako aterpeko obra atzeratzeagatik, penalizazioa

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Joan den eguaztenean egin zuten hil honi dagokion Udaleko ohiko osoko bilkura. Sei puntu aztertu zituzten eta guztiak onartu zituzten aho batez.

Goiena kooperatibarekin hitzarmena sinatzeko proposamena izan zen puntuetako bat. Hain zuzen, 2010ari dagokion dirulaguntza proposamena onartu zuen udalbatzarrak. Hala, Antzuolako Udalak 18.038 euro emango dizkio Goienari, 2009an baino %10 gutxiago.

Eskolako aterpea

Eskolako aterpeko lanak direla-eta bi puntu onartu zituzten. Aterpeko lanen proiektuan hobekuntza eta aldaketa batzuk egon ziren eta kostu gehigarriak sortu zituzten. Obra bukaera moduan Construcciones Egaralurri 580.820,28 euroko likidazioa ordaintzea onartu zen bilkuran. Bestalde, lanek 14 asteko atzerapena izan zuten, eta, eraikitze enpresarekin egindako kontratuan jasotzen zenez, atzeratzeak penalizazioa zekarren. Obra atzerapena dela-eta Egaralurri 8.790,46 euroko penalizazioa jartzea onartu zuten.

Antzuolako Udalak Torresoroa errentan hartzeko kontratua berritzea adostu zuen. Antzuolako Udal Etxegintzak eraiki zuen Torresoroa eta Udalari errentan eman zion gizarte eta kultura zerbitzuak emateko. Abenduan kontratua amaitu zenez, urte honetarako berritzea onartu zuten.

Lan-poltsak

Eskari eta galderen tartean, Pilar Etxaniz zinegotziak Udalerako lan-poltsak sortzeko beharra aipatu zuen, "daudenak zahar geratu direlako eta kanpoko lan-poltsetatik kontrataziorik ez egiteko". Alkateak esan zuen orain egin diren kontratazioak Udaleko lan-poltsetatik egin direla eta aurrerantzean ere saiatuko direla berriak sortzen.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

URTARRILEKO ZOZKETA

Tel.: **943 25 05 05** | e-posta: *kluba@goiena.com* | Kuota: **48 €**.

EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
Bidali KLUBA ZIRA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

EKFB Euskal Selekzioa

LIBURU SORTA
Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

PAMIELA argitaletxea

UMEENTZAKO PUZZLEA
Bidali KLUBA PUZZLEA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

Ikastolen Elkartea

REALEKO MOTXILA ETA BUFANDA
Bidali KLUBA REALA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

ERREMEIXUAK DVD-A
Bidali KLUBA DVDa
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

gizarte kutxa · Bergarako Udala · goiena

SARI NAGUSIA
AZAROA-URTARRILA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
26 HAZBETEKO TELEBISTA

- 26"-ko TFT-LCD pantaila.
- Barneratutako TDT-a.
- HDMI.
- USB 2.0

EROSKI

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Argazkiek 1950. urtea baino lehenagokoak izan behar dute. Goiko irudian, udaletxea 1941ean. | UDALAREN ARTXIBOA

Argazki bilketa etxez etxe, eraginkorragoa izan dadin

Udala argazki artxiboa sortu guran dabil: 1950. urtea baino lehenagoko irudiak batzen dabiltza

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaioko historiaren ondare garrantzitsu diren irudiak etxe eta baserrietako armairuetan gal ez daitezen, Udala argazki artxiboa osatu guran dabil. Horretarako beka sortu zuen eta Naia Bailez da arduraduna.

Urtarrilaren 10ean hasi zuten ekimena, eta, oraingoz, Bailezek adierazi duenez, ez dute argazkirik jaso. Lehen bi asteetan udaletxean izan da Bailez. Izan ere, Udalak hasieratik iragarri zuenez, herritarrek astelehenero entrega ditzakete argazkiak, 16:00etatik 18:00etara. Udaletxera joan beharrean posta elektronikoz ere bidal daitezke erretratuak, *itxasokultura@cuadrillazuia.com* helbidera. Bada, oraingoz, ez dago erantzunik. Orain, etxez etxe eta baserriz baserri hasiko da Bailez: "Aurrez telefonoz deitu eta hitzordua egin behar ditut, eta gero argazkiak eta datuak jasotzera etxez etxe joan. Etxe gehienetan argazki horiek balio handia izaten dute eta horregatik uste dut askok ez dutela argazkiak utzi nahi izan. Eskanerra gainean eraman eta etxean bertan pasako ditut eskanerretik; horrela, argazkiak ez dira etxetik irtengo".

Ahoz aho zabaltzea

Auzo guztietara heltzeko denbora beharko da. Hala, albistea herritarren artean ahoz aho zabaltzea "garrantzitsua" dela uste du Bailezek. Argazkien jabegoa Udalaren esku geratuko da, eta hori ere azaldu behar zaie herritarrei: "Horrek ez dut uste arazorik sortuko duenik", dio.

Euskal dantzen ikastaroa, Lagun Artea taldearen eskutik

Iazko arrakasta ikusita, Lagun Artea dantza taldeak euskal dantzen ikastaroa antolatu du berriro. Izena emateko gimnasiora joan behar da: hilaren 28an, 18:00etan. Hamaika dantza irakatsiko dituzte: zazpijausi, trulalai, fandango eta arin-arina, besteak beste. Egubakoitzero elkartuko dira (18:00-19:00).

Itur-Zuri elkartetik BECera irteera, eskulanen erakusketara

Itur-Zuri emakume elkarteak hilaren 29rako BECera antolatu duen irteerarako izenematea hilaren 21era arte luzatu du. *El salón de las manualidades* izeneko erakusketa da eta denetariko eskulanak bertatik bertara jarraitzeko aukera izango dute izena ematen dutenek. Oraingoz, 20 lagunek inguruk eman dute izena; lekua badago oraindik.

Oinarrizko euskara ikastaroa antolatu du Udaleko Euskara Sailak

Oinarrizko euskara ikastaroa antolatu du Udalak. Eskolak herrian bertan izango dira, otsailean hasi eta ekainera bitartean. "Oinarrizkoak eta praktikoak" izango dira eskola horiek. Interesatuak udaletxean eman behar du izena edo telefonoz deitu Euskara Sailera –945 44 50 16–, urtarrilaren 24a baino lehen.

NIRE USTEZ

XABIER AGIRRE

Lehen urteurrena

Urtarrila zen. Hilak 30 egin zituen. Etxaguengo elkartean geunden bazkal ondorengo tertulia lasaian. Kanpoan, hotz. Elur-ura ari zuen. Baten telefonoak jo zuen eta hala jakin genuen errepidean lur-jausia gertatu zela. Orduan hasi ginen asmakizunetan, noiz arte egongo ote zen bidea itxita… Noiz arte?

Urtebete honetan egin dira kontzentrazioak, egin dira Udalean batzarrak, zabaldu dira pankartak, bertsoak kantatu dira, tartean eztabaidak ere bai… Gasteizen Aldundiaren egoitzaren aurreko kontzentrazioan batek egin zuen oihu: "Agirre, zer berri?". Rosa Mondragonek deskribatu zuen bezala, porrak sortu zuen saltsa ugari. Galderak eta galderak, baina, hori bai, erantzunik gabekoak… Noiz arte?

Egunero-egunero bide horretan ibili denak, akaso, eskertuko du paisaia ederrak ikusteko aukera (Untzillatik ikus daitezkeen Aloña, Aralar…). Alde onak topatu beharra dago edonola. Baina kontuz! Martxa honetan baliteke astoa makilapean bezala ohitzea horrela ibiltzera.

Herriko Udaleko *Barriketan* aldizkarian lehenengo gai, arazo edo problema moduan agertu zen errepidearen auzia. Noski, trenarenarekin lotua; nondik etorri da, bada, okerra?

Otsaila gainean dugun honetan, galdetzen jarraitzen dugu: noiz arte? Ni behintzat ez naiz joango inaugurazio egunean eskerrak ematera.

ELGETA

Oxel Erostarbe: "Azken urteotan Elgetak hobera egin duela esan dute herritarrek"

Telefono bidez 234 elgetarren iritziak jaso zituen Gizaker enpresak azaroan; emaitzak ikusgai daude orain 'elgeta.org' webgunean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Oxel Erostarbe alkatea gustura azaldu da inkestak emandako emaitzekin. "Herritarren gogobetetze maila orokorra handia da: 7,56ko nota ipini dute", adierazi du. Puntuazio handienak jaso dituzten ekintzen artean, alkateak nabarmendu ditu Asentzion egindako lanak (7,70), haurreskola, ludoteka eta gazteleku zerbitzuak (7,54), ibilaldi tematikoa (7,43), berdeguneak (7,37) eta herriko kaleetan lehentasuna oinezkoei eman izana (7,16). Azpimarratu du kirol instalazioek jaso dutela notarik txikiena (6,54).

EMAITZA ESANGURATSUENAK

GAUZATUTAKO PROIEKTUAK

GAIA	NOTA
Asentsioko lanak	7,70
Ludoteka-Gaztelekua	7,54
Ibilaldi tematikoa	7,43
Aparkalekuak	7,17
Oinezkoen guneak	7,16
Segurtasuna herrian	7,16
Alkatearen lana	6,98
Osasun zerbitzuak	6,58
Kirol instalazioak	6,54

ETORKIZUNEKO PROIEKTUAK

GAIA	ALDE
Saihesbidea egin	%76,9
Enpresak erakarri	%73,5
Igerilekua egin	%42,7
Garraioa hobetu	%41
Osasun zerbitzuak hobetu	%7,3

ITURRIA: ELGETAKO UDALA

Txosten osoa elgeta.org helbidean dago ikusgai.

Behar nagusiak

"Inkestak balio izan du behar nagusi batzuk identifikatzeko", azaldu du Erostarbek. "Zentzu horretan, garraio publikoa zein osasun zerbitzuak hobetzea dira bi eskaera garrantzitsuenak".

Alkateari, bestalde, kontuan hartzekoa iruditzen zaio herritarrek saihesbidearen bigarren fasea egitearen alde agertu izana, baita defizitarioak izan arren haurreskola, eguneko zentroa, erretiratuen egoitza eta kultura etxea mantentzea eskatu izana. Igerileku bat egiteko aukeraren aurrean parekotasun handia dago. Kostu handiko proiektua dela jakinarazita igerilekua egitearen aurka azaldu da %44,9 eta alde, berriz, %42,7. Diputazioak Aixolako zentroa zabaldu izana, berriz, herrian ez dela igartzen adierazi du gehiengoak.

Emaitza guztiak eta politikariei herritarrek ipinitako notak *elgeta.org* webgunean daude.

NIRE USTEZ

EDUARDO ZUBIAURRE

Erretiroaren geroa

Krisialdi honetan darabilgun eztabaida beroenetako bat erretiroarena da; ea posible den egungo sistemarekin jarraitzea edo aldatzea baino ez dagokigun. Liskarra gutxienez argigarria gerta dadin, auzia ondo aztertzea eta ulertzea ezinbestekoa dela deritzot. Eta hobe gai hauetan eragile ugarik demagogia egiteko izan dezaketen joera baztertuko balute. Munduan zehar badira formula desberdinak erretiroko prestazioak antolatzeko. Pentsio sistema hori edozein izanda bideragarria izateko baldintza bat bete behar du nahitaez: epe jakin batean sarrerak eta irteerak orekatuak izatea.

Langabezia tasa tamalez handiagoaren ondorioz lanean eta kotizatzen ari direnen kopurua urritzen doa. Aldiz, eta zorionez, bizi itxaropen luzeagoaren poderioz prestazioak jasotzen dituztenak ugaritzen doaz. Horri era jasangarrian aurre egingo dion pentsio sistemarik ez dago. Eta ezer ez egitekotan, etengabeko moldaketak jasan beharko ditu. Neurri ohikoenak dira aurrekontuetatik (hots, hiritar guztien zergetatik) gehigarriak jasotzea edo prestazioak zailtzea eta murriztea. Nire ustez, eraginkorrena ahal denik eta modu zabalenean jendea lanean (eta kotizatzen) jartzea da: lanerako heziketa indartuz, ekintzailetasuna sustatuz, kontratazioa eta lan harremanak malgutuz eta erraztuz, prestazioren bat jaso eta lana egin ahal izatea legeztatuz...

"Eraginkorrena modu zabalenean jendea lanean jartzea da"

Bolatoki tabernan bost urtean izan duten seigarren lapurreta

Ertzaintzaren esanetan, antolatutako talde batek egin du lapurreta. Domeka gauean kanpoko eta barruko alarmak kentzen jakin zuten, ate nagusia zabaltzeko tresneriarekin etorri ziren eta 73 kiloko pisua zuten bi bozgorailu eramateko gai izan ziren. Langileek kalkulatu dute eramandako materialak 12.000 euroko balioa zuela. Plasmazko bi telebista, bi bozgoragailu handi, musika ipintzeko erabiltzen zuten ordenagailua eta makinetako dirua sumatu dituzte faltan.

Pediatria zerbitzu hobea eskatzeko lehen sinadurak batzen

Gogoratu behar da hilaren 31ra bitartean jasoko dituztela, udaletxean, pediatria zerbitzu hobea eskatzeko sinadurak. "Eusko Jaurlaritzak herri txikietatik zerbitzuak kentzeko apustua egin du, eta ez gaude horrekin ados", esan du alkateak. "Herritarrek horrela nahi dutelako pediatria zerbitzu zabalagoa eskatuko dugu, pediatra titulatuarekin eta euskaldunarekin".

III. FRONTENIS TXAPELKETA

Asteburuan lau norgehiagoka

Zortzi bikote ikusiko ditugu lanean aste bukaera honetan, guztiak gizonezkoak. Txapelketa mistoa aurrera atera dela adierazi digute antolatzaileek eta datorren aste bukaeran hasiko dela esan digute.

BIHAR, ZAPATUA, 17:15EAN

A. Untzetabarrenetxea-I. Untzetabarrenetxea/Iban Retolaza-Xabier Ubera

Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Eneko Maguregi-Andoni Elortza

DOMEKA, 10:30EAN

Asier Osoro-Adrian Gorostiza/Oskar Sarasua-Santi Dosuna

Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Mikel Arkarazo-Ander Gorosabel

OHARRAK

KZGUNEA

Astelehenean, hilak 24, tutoretza izango da kultura etxeko KZgunean, 16:00etatik 20:00etara. Hala, 16 urtetik gorako herritarrek gidatutako hainbat ikastaro egiteko aukera izango dute.

PODOLOGOA

Hilaren 27an, eguena, egingo du erretiratuendako hurrengo kontsulta podologoak. Aldez aurretik txanda hartu behar da: 943 76 80 77.

HAURRESKOLA

Martxotik aurrera haurreskola zerbitzua erabili nahi duten familiek zabalik dute izenemate epea. Plaza libreak gelditzen dira oraindik ere Elgetako haurreskolan.

L.Z.

Eskolako danborradak Nobleei

Atzo eguerdian eliza atarian elkartu ziren San Sebastian Kofradiako Nobleak eta Haur Hezkuntzako neska-mutikoak. Bigarren urtez eskolako danborradak emanaldi berezia egin zuen Nobleendako. Amantala soinean eta txanoa buruan, 2-5 urte bitarteko umeek San Sebastian martxa eta Realaren himnoa eskaini zituzten. Danbor-jotzaile trebeak direla erakutsi zuten.

LEINTZ GATZAGA

Batzar orokorra egingo du Gurelek bazkideekin hilaren 26an

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Urteko batzar orokorra egingo du Gurel guraso elkarteak eguaztenean, hilak 26, Garro jauregian (18:30). Pasatutako urteari bukaera emango diote gainbegiratua eginez, eta 2011ko ekitaldiak antolatzen hasiko dira. Hala, bada, bazkide guztiek daukate bertaratzeko gonbidapena.

Bi batzordekide berri

2010eko kontuak, balantzea eta memoria aurkeztuta hasiko dute batzarra. Iaz egindako ekitaldiak aztertu eta baloratuko dituzte orduan.

Gero, 2011rako lan banaketa egingo dute, aurrekontua aurkeztu, eta baita urtean egin daitezkeen ekitaldien zirriborroa zehaztu ere. Gainera, zuzendaritza batzordea osatzen duten lau kideetatik bik utzi egingo dute, hala dagokielako: Dorleta Elkorobarrutiak eta Bea Alvarezek, hain zuzen. Haien ordez beste bi kide hautatuko dituzte batzordean geratuko diren Angel eta Alberto Oñaterekin batera lan egiteko datozen bi urteotan.

Gatzagako 20 familia baino gehiago dira Gureleko bazkide eta horiei guztiei egin diete dei eguazteneko batzarrean parte hartzeko.

Estolderia eta uraren tasa ordaintzeko epea zabalik dago

2010eko laugarren hiruhilekoan kontsumitutako edateko ura eta estolderia zerbitzua ordaintzeko epea zabaldu du Udalak. Martxoaren 10a bitartean ordaindu beharko dute udaletxean helbideratu gabe duten herritarrek. Gainerakoei banketxetik pasatuko diete kobratu beharreko kopurua.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

SARIAK

Aitor Zabaleta: "Urte gogorretan ondo hartzen dira errekonozimenduak"

Bergarako auto pilotua izango da, gaur, DKSn sarituko dutenetako bat

XABIER URTZELAI | BERGARA

Debagoieneko Kirol Sarien hirugarren ekitaldia egingo dute gaur, egubakoitza, 19:00etan hasita, Aramaion. Eta, urtero moduan, ibarreko kirolari onenak saritzea baino haratago joan nahi du ekimenak: "Urtean zehar lan ona egin duten kirolariak saritu, baina urtean behin ez bada ere, boluntario moduan kirolaren alde lan egiten dutenak ere errekonozitu nahi ditugu", adierazi zuen aurkezpenean epaimahaiko kideetako batek, Asier Muxika Kirol teknikariak.

Gizonezko eta emakumezko kirolari onenak gaur bertan izendatuko dituzte, ekitaldian. Eta sei hautagai daude horretarako: Alberto Iñurrategi, Markel Irizar eta Beñat Arnaitz. Emakumezkoetan, berriz, Maider Unda, Jone Elortza eta Ane Sanz de Galdeano dira hautagaiak.

Aitor Zabaleta, 2010ean Udanako igoeran, barketarekin. | GOIENA

Erabakita dauden sariak

Beste saritu batzuk, berriz, erabakita daude. Eta, aukeratutako horien artean sari berezia jasoko du Aitor Zabaleta bergararrak, horrenbeste urtean Eukal Herriko errepideetan Lola BMW autoarekin egindako lanagatik: "Bada, urte gogor hauetan ondo hartzen dira errekonozimendu hauek; izan ere, gizarte osoak bezala, kirol munduan gabiltzanok ere nabarmen igarri dugu krisialdia. Azken bi urteotan halamoduz lehiatzen ibili gara, ezinezkoa da babeslerik topatzea, inork ez du dirurik, eta, babesle asko lagunak baditut ere, inork ez du duro bakar bat ere".

Hala ere, Bergarakoak aurreratu digu 2011n errepidean lehian izango dela: "Autoa etxe ondoan dut eta aurten ere Euskadiko txapelketako lasterketa gehienetan izango gara; sailkapen orokorrerako derrigorrezkoa da proben %70ean puntuatzea".

Zabaletarekin batera, sarituen artean daude Sustrai Aloña Mendi saskibaloi taldea, Alberto Garai kirol medikua eta Ford Mugarri enpresa. Kirolari anonimoaren saria ere gaur emango dute aditzera, eta adi, herritarren sarirako sarean proposamen mordoa jaso dugu-eta. Ekitaldia astelehenean izango da ikusgai (20:45) *Harmailatik* berezian.

FINALISTEN ZERRENDA

GIZONEZKOETAN
- Beñat Arnaitz
- Alberto Iñurrategi
- Markel Irizar

EMAKUMEZKOETAN
- Maider Unda
- Jone Elortza
- Ane Sanz de Galdeano

TALDE ONENA
- Sustrai Aloña Mendi

TEKNIKARI ONENA
- Alberto Garai

KIROL IBILBIDEA
- Aitor Zabaleta

BABESLE ONENA
- Ford Mugarri

ESKUBALOIA

Ford Mugarrik Usurbil hartuko du bihar, ligako azken sailkatua

X.U. | BERGARA

Norbaitek esango du, Soraluce Bergararen kontra urte berriko lehen erronka gainditu ostean –eta lehen itzulia bikain amaituta, lehen postuan–, Ford Mugarri Arrasatek tramitezko norgehiagoka izango duela bihar (17:45 Iturripe) sailkapenean azken postuan dagoen Atez Ate Usurbilen kontra –lau puntu baino ez dituzte–. Baina kontrarioak merezi duen errespetuagatik eta kategoria horretan lo kantxaratzen denak zigorra jasotzen duelako, adi partidu horrekin, lehenengo postua defendatzen dabilen Ford Mugarri Arrasatek ezin du-eta despisterik onartu.

Soraluce BKE kanpoan

Bergarako taldeak jaitsiera postuetan amaitu du lehen itzulia, baina salbazio postuetatik oso gertu. Eta hori izango da Muniategiren mutilen erronka bigarren itzulian: "Gogorra izango da, baina gure esku dago mailari eustea. Partidu asko alde txikiagatik galdu ditugu, eta halakoak irabazi egin behar ditugu itzuli honetan".

Hala, bihar bertan kontrario zuzen baten kantxara joan beharko dute bergararrek, Portugaletetik bi punturekin itzultzeko asmoz partidua jokatzera (18:30). Talde bizkaitarrak bi puntu gehiago baino ez ditu; postu bat gorago daude.

Ford Mugarriko Altzelai, atera begira jaurtiketa prestatzen. | GOIENA

SASKIBALOIA

DKS saria jaso arren, Sustrai Aloña Mendi berdin entrenatuko da gaur, biharkoari begira

Seky.es taldearen bisita prestatzeko ez dute egubakoitzeroko saioa galduko

X.U. | BERGARA

Bikain dabilen Sustrai Aloña Mendik Arabako taldeen aurrean aurkitu du oposizio apur bat, orain arte galdutako bi partiduak –13 jardunalditan– Seky.es eta EHU Araba taldeen kontra izan dira-eta, biak arabarrak.

Eta, hain zuzen, bi talde horietako baten bisita izango dute Xabi Igartuaren mutilek bihar, zapatua, arratsaldean (18:00, Zubikoa). Inork ez dezala pentsa aurrean dabiltzalako Oñatikoak lasaitzeko asmotan dabiltzanik; izan ere, nahiz eta gaur iluntzean DKS sarietan talde onenaren garaikurra jaso, ekitaldiaren ostean Igartuak entrenatzeko agindua eman du: ez dago erlaxatzerik. Eta, are gutxiago, joan den astean EHUren kantxan ligako bigarren porrota jaso ostean (67-61). Oñatikoak gozatzen ari dira lehen nazional mailan aurrean egonda; iritsi berriaren gosea da hori, eta gosez jarraitu nahi dute.

Sustrai Aloñako Mallabiabarrena baloia babesten, bizkarrez. | GOIENA

MUk EHUren bisita

Hain zuzen, joan den astean Sustrai Aloña Mendi mendean hartzeko gauza izan zen EHU Araba izango da bihar Iturripen (18:00), Josu Larreategiren mutilen aurrean. Kalitatea baino gehiago esperientzia, partiduak irakurtzeko, batez ere. Horixe falta dute Arrasatekoek, joan den astean erakutsi zuten-eta gorputz eta pisu handiko jokalarien aurrean atzean lan ona egiteko gauza direla –nahiz eta partidua galdu egin zuten–. Arabakoak ez dira kontrario zuzenak, baina etxean irabaztea handia da.

FUTBOLA

Aloñako kapitain *Arrola*, Oiartzunen kontrako partiduan baloia lapurtu nahian. | GOIENA

Azkoagainek eta Mojategik gotorleku izateari utzi diote Aloña eta Mondrarendako

Bi talde horiek kanpoan etxean baino puntu gehiago batu dituzte orain arteko jardunaldietan

XABIER URTZELAI | BERGARA

"Etxean indartsu izatea". Liga hasieran edozein entrenatzaileri –ohorezko erregionalean edo lehenengo mailan– urteko helburuen gainean galdetuz gero ez izan zalantzarik, irakurri duzuen erantzunetako bat. Kanpoan baino babestuago daudelako, zelaia ezagun dutelako, baina aldi berean ikusleek taldearen lana bertatik bertara jarraitzen dutelako, etxeko puntuak bereziki baloratzen dira. Aloña Mendik, baina, sei puntu baino ez ditu batu Azkoagainen, bi garaipen.

Eta joera negatibo hori aldatzea da, hain zuzen, Oruetaren mutilek domekari begira duten helburua (16:30, Azkoagain). Gainera, jaitsiera postuetatik irteteko aukera paregabea dute, puntu bat gehiago duen Ordizia izango da-eta bisitari.

Mondrak ere etxean

Mondrak Mojategin jokatuko du bihar (16:30), Ondarroako Aurrera taldearen kontra. Eta, etxeko partiduei dagokienez, zuri-moreak ere txantxikuen antzera dabiltza: partidu bakarra irabazi dute etxean; hori bai, kanpoan puntu gehiago batu dituzte eta horregatik daude aurrerago. Azkenik, Aretxabaletak eta Bergarak kanpoan jokatuko dute.

XAKEA

Arrasate/Arlutz xake taldeko lehen taldeak puntu baliotsuak ekarri zituen Easoren etxetik

Euskal Herriko xakeko maila gorenean egoteko borrokan, Arrasate/Arlutz xake taldeko ordezkariek puntu baliotsuak ekarri zituzten Easoren kantxatik (1.5-2.5). Fran Miguelek, Aitor Alcaidek eta Txema Hernandok berdindu egin zituzten euren lehiak, eta Andoni Miguelek garaipena lortu zuen. Bigarren taldeak, berriz, ezuste ona eman zuen, berez preferente kategoriako talde indartsuena den Zarautzen kantxan (3.5-0.5). Asteburuan, talde nagusiak Iruñean jokatuko du, Orvinaren kontra; bigarren taldeak, berriz, Donostiako Fortuna izango du kontrario.

ATLETISMOA

Sara Gomezek eta Sergio Gartziak Espainiako kros txapelketarako txartela lortu dute

Domekan sailkatu ziren Aloña Mendiko atletak Espainiako txapelketarako. Araian egin zuten Euskadiko kros txapelketan nabarmendu ziren atleta oñatiarrak, eta han lortutako emaitzei esker jantziko dute euskal selekzioaren elastikoa. Kadetetan Sara Gomezek brontzezko domina eskuratu zuen; gizonezkoen promes mailan, berriz, Sergio Gartzia bigarren sailkatu zen, eta hura ere Oviedon izango da. Mari Sol Ramos, berriz, hamar onenen artean egon zen, senior kategorian lehiatuta.

Oñatiko atleta Sergio Gartzia. | X.U.

EGIN TXOTX! sagardotegietan

Arratzain

Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa
USURBIL / 943 36 66 63
www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com

Eskaintza
- Sagardotegia, nekazaritza turismoa eta jatetxea.
- Urte osoan irekita.
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik.
- Sagardo botilen salmenta.
- "Tolare" sagardotegia

Begiristain

Iturriotz baserria IKAZTEGIETA
607 36 57 43
begiristainsagardotegia@gmail.com | www.begiristainsagardotegia.com

Eskaintza
- Urtarriletik ekaina bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik. Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. Etxez-etxeko banaketa.
- Sagardotegiko menua. Arkumea burduntzian enkarguz. Afariak asteartetik zapatura, bazkariak eguenetik igandera.
- Webgunean sagardotegira bazkidetzeko aukera.
- **"Tolare" sagardotegia**

Iparragirre

Iparragirre baserria / HERNANI
943 55 03 28
www.iparragirre.com

Eskaintza
- Eguaztenetik zapatura gauez; zapatu eta domeka eguerditan zabalik ere.
  Beste egunetan kontsultatu
- Zutik edo eserita
- Asteburuetan garraio publikoa sagardotegiraino
- Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian.
  "Zabadiz" banatzaile ofíciala
- **"Tolare" sagardotegia**

Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza
- Egubakoitzetik domekara irekita.
  Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako sagardoa.

Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

Eskaintza
- Janaria sagardotegiak jartzen du.
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta.
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik.
  Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik.
  Domeketan eguerdira arte zabalik.
  Astelehenetan, itxita.
- **"Tolare" sagardotegia.**

Oiharte

Irukarate-gain auzoa (Mutiloa bidea)
ZERAIN
943 50 10 13 / 686 29 91 58
www.oiharte.com

Eskaintza
- 120 lagunendako lekua, zutik edo eserita.
- Martitzenetik zapatura gauez. Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerdietan zabalik.
- Sagardoa botilan salgai.
- Sagardotegiaz gain nekazaritza-turismoa.
- **Urtarrilaren 28an irekiera:**
  Lizaso, Zubeldia eta trikitilariekin.

Rezola

Santio Zeharra ASTIGARRAGA
608 14 33 32
rezolasagardotegia@gmail.com / www.rezolasagardotegia.com

Eskaintza
- Astigarraga erdigunetik 100 metrotara.
- Urte osoan txotxetik zabalik.
- Zutik edo eserita.
- Berezitasunak: arkumea eta txerrikumea burduntzian (enkarguz).
- Igande arratsaldetan eta astelehen eguerdietan itxita.
- **"Tolare" sagardotegia**

Unzueta

Zabola z/g
ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza
- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua: 29 €
- Berezitasuna: txuleta.
- 70 lagunendako tokia.
- Parking eta terraza.

Zabala

Garagartza baserria / ADUNA
(Andoain eta Billabona artean)
943 69 07 74

Eskaintza
- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerditan enkarguz.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2002an finalistak eta 2004an, 2006an eta 2010ean irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan.
- **"Tolare" sagardotegia**

KULTURA

Arrasate Musikaleko Big Band taldearen kontzertu bat. | BIG BAND

Big Band taldearen musikak Torresoroa girotuko du gaur

- Kontzertua Antzuolako Torresoroan izango da gaur, 22:00etan
- Taldekideak Arrasate Musikaleko ikasleak dira: 25 musikari

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

40ko hamarkadako musika gogora ekarriko dute Arrasateko Musikaleko Big Band taldeko kideek gaur Antzuolan. Kontzertua eskainiko dute Torresoroan, 22:00etan, 3 euroren truke.

Big Band taldeko kideak Arrasate Musikaleko ikasleak dira, guztira 25 lagun. Bost tronboi, lau tronpeta, sei saxo, pianoa, gitarra, bateria, perkusioa, baxua eta ahotsa nahasten dituzte. Arrasateko eta inguruko herrietako lagunak dira taldekideak; tartean, antzuolar bat ere badago: Andoni Zabalo, hain zuzen. Saxofoi altua jotzen du Zabalok.

AEBetako musika

Arrasateko taldeak 40eko hamarkadan AEBetan jotzen zen musika eskaintzen du; blues, jazz, latindar, bossa eta rock estiloak.

"Antzuolako kontzertuan, Durangon grabatu genuen zuzeneko diskoko abestiak joko ditugu, besteak beste", azaldu du Zigor Martinezek, Big Band taldeko zuzendariak.

Izan ere, 2010ean grabatu zuten zuzenekoa Plateruena Kafe Antzokian, eta han grabatutakoak aurkeztera joango dira gaur Torresoroara.

Ordu eta erdiko kontzertua

Beste talde batzuen bertsioak dira Big Band taldeak jotzen dituenak. Gaurko kontzertuak ordu eta erdi inguru iraungo du, eta eskainiko dituzte, besteak beste: *What is hip,* Tower of Power taldearen bertsioa; *Sandunga*, Arturo Sandoval kubatarrarena; eta Tall Cotton taldearen *Sammy nestico*. *What is hip* funk estiloko abestia da eta *Sandunga*-k Karibeko erritmoak eroango ditu Torresoroara.

"Jazza, funka, latindarra... dira jotzen ditugun musika estiloak. Latindarra da musika kubatarra edo brasildarra, baina jazz estiloarekin nahastuta. Hau da, erritmo aberatsagoa izaten duten abestiak dira", gaineratu du Martinezek euren musika estiloaz galdetuta.

Lehenengo aldia da Arrasateko taldeak Antzuolan kontzertua eskainiko duena. "Asteon izan gara Torresoroan eta agertoki ona iruditu zait", azaldu du Martinez zuzendariak. Gaur ikusiko dute agertokiak zelako aukerak eskaintzen dituen Big Band moduko talde batendako.

Taldeak duen ikusle mota

Big Band taldearen kontzertuak entzutera adin guztietako jendea joaten dela esan du Martinezek. Gaineratu du azkenaldian musika estilo modernoagoak sartzen dituztela eta horrek jende gazteagoa erakartzen duela: "Errepertorioan sartu ditugu, gazteei begira, funk estiloko abestiak".

Taldekideak eurak ere gazteak dira: 16 eta 40 urte artekoak.

Big Band: 10 urte

Aurten 10 urte beteko ditu Arrasateko taldeak. Hori ospatzeko, kontzertu berezia eskainiko dute ikasturte amaieran. "Taldean ibilitako kide guztiak elkartu gura ditugu", dio Martinezek.

2000. urtean sortu zuten taldea, Jose Ramon Elkoro buru zutela. Ondoren, Iker Olazabalek hartu zuen taldearen ardura eta gaur egun Zigor Martinezek dauka ardura hori. Dagoeneko hiru disko grabatu ditu taldeak: 2005ean Elgetan grabatu zuten lehena, 2006ko azaroan bigarrena eta 2010ean Durangon.

Trukea egingo dute Leioako eta Amurrioko taldeekin arrasatearrek

Big Band taldeak kontzertu berezia antolatu du datorren otsailaren 18rako. Hain zuzen, trukea egingo dute. Hau da, Leioako Big Band taldea etorriko da Amaia antzokira kontzertua eskaintzera eta hurrengo baten Arrasatekoak Amurriora joango dira euren musika eskaintzera.

"Lehenengo aldia da horrelako zerbait antolatzen duguna", azaldu du Zigor Martinez zuzendariak. Ideia, hain zuzen, Leioako Big Band taldetik iritsi zen. "Eurek planteatu duten proiektua da. Gura dutena da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Big Band taldeen arteko harremana sendotzea, eta horregatik erabaki dute horrelako truke kontzertua egitea", azaldu du Martinezek. Kontzertua 19:00etan izango da.

'Miss Morgue' komedia Elgetako Espaloian

A.E. | ELGETA

Zanguango antzerki taldearen bisita izango dute gaur, egubakoitza, Elgetako Espaloia antzokian. Antzerki taldeak umorezko lana eskainiko du, keinuen bidez egindako lana, hain zuzen. 22:30ean izango da hitzordua, eta sarrerak kostako dira 12 euro leihatilan eta 10 euro aurrez erosiz gero. Dagoeneko salgai daude txartelak Espaloian bertan.

Ikuskizun bisuala da

Miss Morgue antzezlana komedia bat da, bakardadearen gaineko lana; bakardadea begirada guztietatik ikusita.

Ikuskizun bisuala da *Miss Morgue*, testurik gabekoa; hari narratiboa eta dramatikoa keinuen bitartez gauzatzen dute. Bakartasunaz zer pentsatua emango duen antzezlana izango da gaur Elgetan eskainiko dutena.

Harremanak egiteko arazoa

Protagonistak gorputegi batean egiten du lan. Gizon bakartia da; gorputegiko lau paretetara murriztu du bere bizitza. Hildakoekin ematen du egun guztia, eta, haiek ez dutenez berbarik egiten, sozialki harremanak egiteko arazoak ditu protagonistak.

Baina, halako baten, gorputegian dauden bi hilotzek bizia hartuko dute. Hala, haien laguntzarekin protagonistak bere beldurrak gainditukо ditu.

Zanguango antzerki taldeak eskainiko du lana eta zuzendaria Migel Muñoz da. Aktore lanak egitera hiru lagun igoko dira taula gainera: Raul Camino, Begoña Martin Treviño eta Migel Garces. Hain zuzen, 2009an Zanguango antzerki taldeak hainbat lagunekin elkarlanean sortutako lana da.

Miss Morgue lana. | ZANGUANGO

IRITSI DA GOIENA GIDA 2011

Laster jasoko duzue herriko denda eta enpresen telefonoen gida.
Gida osatuena, erabilgarriena eta berriena.
Eta gogoratu: Goiena Gida *http://goiena.net/gida* helbidean ere badaukazu.

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

Danbakak jarraipen zabala izan du aurten ere

Antolatzaileen esanetan, "aurten talde gutxiago egon da, baina agortu ez den formula da lehiaketa"

Ondarroa eta Berrizko Xarma taldeak eroan du aurtengo edizioko sari nagusia. | JULIO CALLEJA

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Danbakako laugarren edizioa amaituta, balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Aurreko edizioetan baino talde gutxiago aurkeztu direla adierazi dute, eta horrek sorpresa gutxiago egotea ekarri duela. "Ulertzekoa" dela diote. "Talde gutxiago aurkeztu direla igarri egin den arren, uste dugu oraindik agortu ez den formula dela Danbaka lehiaketa", gaineratu dute antolatzaileek.

Proposamen interesgarriak

"Danbakako edizio onena izan ez den arren, esan behar dugu hainbat proposamen interesgarri entzuteko aukera egon dela aurtengo edizioan", diote.

Musika talde gutxiago aurkezteak indar apur bat kendu dio lehiaketari. Zenbait kontzertutan indar falta hori nabaritu egin dela esan dute. Baina oraindik ere "interes handia" pizten duen lehiaketa da, antolatzaileen ustez. Ez bakarrik Debagoienean, baita ibarretik kanpo ere. Horren adibide da finalean ia 400 lagun batu zirela.

"Epaimahaia soberanoa da eta antolaketak errespetatu egiten du haren erabakia. Hala ere, antolaketak kezkaz hartu du aurten euskaraz abestu duten talde gutxiago izan direla, baina poztu egiten da irabazleak euskaraz abesten duelako", azaldu dute azken epaiaz galdetuta.

DATUA

400

PERTSONA

Ia 400 lagun batu ziren urtarrilaren 14an Espaloian, Danbakako finala ikusteko.

ESANAK

"Lehiaketaren helburu nagusia taldeak ezagutzera ematea da"

IKER BARANDIARAN | ANTOLATZAILEA

Jarraipena hedabideetan

Lehiaketak pizten duen interesaren beste adibide bat da hedabideetan izan duen jarraipena. "Goiena telebistan kontzertuei jarraipen handia egiten zaie; baita Debagoienetik kanpo ere. Eta, aurten, kontzertuak zuzenean eskaini dira *streaming* bidez. Gainera, *Danbaka.com* atarian ere jende askok jarraitu du lehiaketa", azaldu dute.

"Jendeak interesez ikusten ditu gure hedabideetan eskaintzen ditugun kontzertuak. Pozik gaude; izan ere, hori da helburu nagusia: ezagutzera ematea hemengo musika taldeak", diote. Horren harira, azaldu dute lehiaketa irabazi duen Xarma taldeari, adibidez, kontzertu asko atera zaizkiola lehenengo kontzertua eman zutenetik.

Lehiaketako sariak

Ondarroa eta Berrizko Xarma taldeak irabazi du lehiaketa: Shot! estudioan diskoa grabatuko dute, Kutxaren laguntzarekin. Orain, abestiak prestatzen dabiltza eta oraindik erabaki barik dago noiz grabatuko duten diskoa.

Bergarako Lord Witch taldeak, berriz, Debagoieneko talde onenaren saria eroan du. MUk babestuta, bideo-klipa grabatuko dute bergararrek. Bideo-kliperako abestia aukeratzen ari dira.


Argazkia: Manuel Diaz de Rada

1.01

Taldea: Dantzaz konpainia

DANTZA

Non:
Arrasateko Amaia Udal Antzokian.

Noiz:
Urtarrilaren 22an, zapatua, 20:00etan

Sarrera: 10 €

Antolatzailea:

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Lara Gonzalez | Diseinatzailea

"Nire diseinuak saltzeko denda bat izatea, atzean lanerako txoko bat duela, hori da nire ametsa"

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Gaztea eta sortzailea da Lara Gonzalez (Arrasate, 1985). Gaur egun oso ondo baloratuta dauden bi ezaugarri dira, bai horixe. Argazkilaritza eta batez ere diseinua dira haren bizitzako ardatzak. Goi mailako bi ziklo egin ditu: Salerosketaren Kudeaketa eta Marketina, eta Arte Plastikoak eta Publizitate Grafikoa. Gonzalezen ametsetako bat da diseinu propioak saltzeko denda bat izatea, atzealdean lan egiteko txokoarekin.

Noiz konturatu zinen diseinuarena zela zure mundua?

Txikitatik jakin dut diseinatzaile izan gura nuela. Batzuek astronauta, suhiltzaile edo printzesa izan gura zuten neurrian, nik argi nuen diseinatzaile izan gura nuela. Neure panpinak egiten nituen eta paperezko milaka jantzi egiten nizkien panpinoi.

Txikitatik argi izan duzu, beraz. Zure ametsa bete egin duzula esan daiteke?

Horretan nabil, nire ametsa eraikitzen. Espero dut egunen baten nire diseinuak ezagunak egitea; hala ere, badakit aurretik lan handia daukadala.

Zein da zure diseinatzailerik gustukoena?

Moda diseinatzailerik ez dut segitzen, eta diseinatzaile grafikoen artean David Carson diseinatzailea aipatuko nuke. Harrigarria da benetan Carson-ek tipografiekin egin dezakeena.

Handia eta zabala da diseinuaren mundua. Zerk erakartzen zaitu gehien mundu horretatik?

Kalean ikusten dugun guztia da diseinua eta zerbaitetan espezializatu beharra dago. Diseinu grafikoak erakartzen nau ni gehien, eta horretan egin izan dut lanen bat edo beste. Esaterako, Arrasateko Toñi ile-apaindegiko logotipoa nik diseinatu nuen.

Zer da zure eguneroko bizitzan diseinatzen duzuna?

Azkenaldian, osagarriak diseinatzen espezializatu naiz. Besteak beste, diademak, belarritakoak, lepokoak eta poltsak egiten ditut. Laster kamisetak diseinatzeko asmoa daukat, ea erronka horri heltzen diodan...

Osagarriak diseinatzen diharduzu jo eta ke. Garrantzitsuak dira?

Nik uste dut norberaren itxura hobetzeko orduan eragin handia izan dezaketela. Bakero batzuk eta edozein kamiseta jantzita ere, osagarri egokiak jarriz gero, oso txukun joan daiteke. Arropa berbera osagarri ezberdinekin konbinatuz arropa aldatu egiten dela eman dezake.

Zein izan da gehien saldu duzun osagarria?

Diademak, zalantza barik. Orain arte ondoen saldu ditudanak izan dira. Diademez gain, egun, kameuetan (*camafeo*) dut jarrita esperantza.

Zure diseinuen berri izan dut zure blogean: *laraslostdesigne.blogspot.com*-en, hain zuzen. Zertarako sortu zenuen txoko propioa sarean?

Nire lanak jendeari erakusteko bitarteko moduan erabiltzen dut Internet. Blogaz aparte sare sozialak ere erabiltzen ditut eta nire ahizpek egiten didaten promozio lana ere garrantzitsua da, zalantza barik.

Bestalde, argazkilaritza asko gustatzen zait eta nire bigarren zaletasun horren berri emateko ere Internet erabiltzen dut: nire argazkiak ikusteko *Flickr*-eko kontua bisita dezakezue: *www.flickr.com/photos/y_viceversa*.

Zure lana ezagutarazteko Internet duzu medio nagusi. Salerosketarako ere sarea erabiltzen duzu?

Internet bidez ere saltzen ditut osagarriak: blogean bertan irakur daitekeenez, osagarriren bat gustuko duena nire helbide elektronikoaren bidez jar daiteke harremanetan. Hau da nire helbidea: *garabateadesign@hotmail.com*.

Internetez gain, Arrasateko Toñi ile-apaindegian eta Aretxabaletako Irudi ile-apaindegian ere eros daitezke nire osagarriak.

Internet eta Arrasate eta Aretxabaletako bi ile-apaindegi horiek dira zure salmentarako txokoak. Noizko zure denda propioa?

Nire ametsetako bat da. Nire diseinuak saltzeko denda bat izatea oso ondo legoke. Eta dendak atzealdean lanerako txoko bat balu, borobila litzateke!

Lara Gonzalez, berak egindako osagarriz inguratuta.

LARA GONZALEZ

MARRA AZKARREZ

Bizitzeko lekua: Arrasate edo Bartzelona.
Bisitatzeko leku bat: Maien Erribera, Bali, Kanada...
Musika talde bat: Roxette.
Pelikula bat: *El efecto mariposa*.
Liburu bat: *Cuentos para pensar*, Jorge Bucay idazlearena.
Telesail bat: *How I met your mother*
Etorkizunerako erronka: Marrazketan eta joskintzan hobetzea.
Diseinatzaile bat: David Carson.
Osagarririk erakargarriena: Diadema.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Familia bakarreko etxea salgai 8.000 metro koadroko lursailarekin. Prezio murriztua. 636 94 81 31

Aramaio. Aukera paregabea. 2001eko etxebizitza salgai. 70 metro koadro. Garaje itxia. Ganbara. Zuzenean bizitzera sartzeko moduan. Aita Gabirel kalean. 177.300 euro. 656 73 13 21

Oñati. 60 metro koadroko etxebizitza salgai San Lorentzon. Bi logela, komun bat eta sukalde -egongela. Jantzia eta berritua. 192.000 euro. Deitu 20:00ak eta 22:00ak artean, mesedez. 699 78 47 49

Oñati. Kalebarrian 71 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna guztiz hornituak. Patio erabilgarria, ganbara eta garaje itxia. Prezio ona. 665 71 77 98

Oñati. Erdialdean 110 metro koadroko duplexa salgai. Sukaldea, egongela, lau logela, bi bainugela eta garbigela-trastelekua. Oso egoera onean dago. Garajea aukeran. Harremanetarako idatzi mezua *bzubia@yahoo.com* helbidera edo deitu 659 53 87 62 telefonora.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Altamiran, Jose Luis Inarra kalean. 639 96 01 21

Debagoiena. Etxebizitza bi ematen dira errentan. Bata Aramaion eta bestea Arrasaten. 647 22 09 38

Oñati. San Lorentzon etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. 650 56 62 06

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza errentan hartu nahi dut Arrasaten, gehienez 550 euro ordainduta. Interesa duzuenok deitu telefono honetara 667 84 47 94 eta Nabit-engatik galdetu

Bergaran. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 2 edo 3 logelarekin. Interesa duzuenok deitu telefono zenbaki honetara: 677 77 22 31

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Pertsona bat behar dugu Erguin aldean etxebizitza osatzeko. Deitu 670 59 73 62 telefonora eta Ignaciorengatik galdetu.

Arrasate. Logela hartuko nuke errentan, kontratuarekin. Ordaintzeko arduratsua naiz. Deitu 666 21 88 95 edo 943 79 74 13 telefono zenbakietara.

Arrasate. Logela ematen da errentan Erguin auzoan. Hilean 280 euro, gastuak barne. Interesatuok deitu zenbaki honetara:648 19 10 38

Arrasate. Logela ematen da errentan, sukaldea eta egongela erabiltzeko eskubidearekin. Interesa duzuenok deitu telefono zenbaki honetara: 666 68 00 04

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. Interesa duzuenok deitu telefono zenbaki honetara: 630 71 35 83

Arrasaten edo Aretxabaletan. Logela bila nabil. Ikaslea naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 689 18 04 12

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan sukaldea eta egongela erabiltzeko eskubidearekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 72 79 55

Bergara. Etxebizitza osatzeko pertsona behar da, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Bolun. Interesa duzuenok deitu telefono zenbaki honetara: 670 85 86 68

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Deitu 650 62 12 94 edo 943 08 22 60. telefono zenbakietara.

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat edo bi behar dira. Deitu 18:00etatik aurrera 653 74 87 51 telefono zenbakira.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:
- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.
- Profesionalen moduluak.

JENDEA BEHAR DA
Gurekin lan egiteko jendea behar dugu.
Estetizistak, makillatzaileak, fisioterapeutak, osteopatak, nutrizionistak eta abar.
686 67 34 66

ARRASATE
Ile-apaintzaile ofiziala behar da. Ilea.
943 79 87 62

BERGARA
Esperientziadun zerbitzaria behar da tabernan.
695 78 85 55

OÑATI
Irakaslea behar da akademian.
12-13 ordu astean arratsaldez.
gainditiuak@gmail.com

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Oñati. Emakume edo neska behar da arratsaldez hiru ume euskaldun zaintzeko. Deitu lanegunetan 13:00etatik 16:00etara edo 20:00etatik aurrera zenbaki honetara: 665 71 22 15

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Eskarmentudun emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Egunez zein gauez.943 53 33 92

